

2024

# URRUZUNO

literatur lehiaketa



sagastiberri



# Urruzuno

## literatur lehiaketa 2024

LAN SARITUEN BILDUMA



HEZKUNTZA SAILA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2024

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia: 1.a, 2024ko uztaila

Ale-kopurua: 1.720 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza Saila

Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Prestatzaileak Begoña Erkiaga, Xabier González, Itxaso Hierro eta  
Maitane Izagirre

Azaleko irudia: Maria Altuna

Azalaren diseinua: Oihana Pagola

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa eta  
inprimategia: Gráficas Irudi, S.L.

ISBN: 978-84-457-3764-4

Lege-gordailua: LG G 390-2024

## AURKIBIDEA

|                                     |                                 |    |
|-------------------------------------|---------------------------------|----|
| <b>Sarrera</b> .....                |                                 | 7  |
| <b>Hitzaurrea: Ifrentzua.</b>       | <i>Miren Gorrotxategi</i> ..... | 11 |
| <b>Poesia: A maila</b> .....        |                                 | 15 |
| Zuk eskatuko bazenit .....          | María Zarrabeitia Méndez. ....  | 17 |
| Igande urdin bateko gogoetak ...    | Enara Gallastegi Barrenetxea .. | 25 |
| Ihesitakoak .....                   | Elaia García Aizpurua .....     | 33 |
| Garapen bideko poeta baten ohikeria | Naroa Asensio Gastón .....      | 39 |
| Belarritako bat mesanotxean ...     | June Aiestaran Iparragirre ...  | 45 |
| Grabitate falta .....               | Maddi Navas Uranga .....        | 51 |
| <b>Poesia: B maila</b> .....        |                                 | 57 |
| Hamaika burutapen .....             | Andere Bouza Bengoetxea ....    | 59 |
| Concerto III OP. 3. NO2.            |                                 |    |
| IN G Major .....                    | Irati Gallastegui Molero .....  | 65 |
| Ezetz asmatu .....                  | Irati Gallastegui Molero .....  | 71 |
| Oroitzapenezko hari bat .....       | June Etkezarraga Yurrebaso ...  | 83 |
| The kuku revisited .....            | June Etkezarraga Yurrebaso ...  | 89 |
| Denboraren amildegiak .....         | Aiora Jauregi Pagalday .....    | 95 |

|  |                                    |     |
|--|------------------------------------|-----|
| <b>Prosa: A maila</b> .....            |                                    | 101 |
| Besarka zaitzadan .....                | June Aiestaran Iparragirre.....    | 103 |
| Ousmane Traore .....                   | Haizene Merino Pérez .....         | 113 |
| Polaroid bat paperen artean .....      | Lucia Garmendia Arbizu .....       | 121 |
| Bihar... ..                            | Naia Urtaran Bilbao.....           | 131 |
| Aio .....                              | Elaia Garcia Aizpurua.....         | 139 |
| Barkamen eske .....                    | Amets Aranguren Arrizabalaga ..... | 149 |
| Oroitzapen ohartezinak .....           | Uxue Davalillo Pardo .....         | 157 |
| Katuaren marmarra .....                | Asier Castro Correa .....          | 169 |
| <br>                                   |                                    |     |
| <b>Prosa: B maila</b> .....            |                                    | 177 |
| Sara .....                             | Joanes Plazaola Ricondo.....       | 179 |
| Hil da rock erradikala .....           | Irati Gallastegui Molero .....     | 189 |
| Yamila .....                           | Mara Albistur Gurrutxaga.....      | 203 |
| Gure zizelkadaz egindako abestia ..... | Mikel Salazar Cifuentes .....      | 213 |
| Artasoroa .....                        | Malen Urkizu Arrozpide.....        | 223 |
| <br>                                   |                                    |     |
| <b>Urruzunotarrak 1986-2024</b> .....  |                                    | 233 |

## SARRERA

1986an abiatu zen Urruzuno literatur lehiaketa eta ordutik, urterik huts egin gabe, irakurtzea eta idaztea gustuko duten euskal gazteen topaleku izan da. Hogeita hemeretzi urte bete dira hortaz lehenengo ediziotik, eta familia handitzen doa etengabe.

Liburu honen azken orrietan duzu, irakurle, urte hauetan guztietan urruzunotar izan direnen zerrenda. Bostehunetik gora dira dagoeneko horrelako “titulua” lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetako lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literaturako izenetan. Kimu loratuak dira haiek, irakurle; kimu berriak, liburuan barrena dastatuko dituzunak.

Urtero bezala, berariaz goraiatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren irakasle-trebatzailea. Irakasle fin horren lan isila eta eraginkorra dago gaztetxo idazlearen atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle berriak sortzeko. Landu, trebatu eta aberastu egin behar izaten da berezko hori.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu zure barnean daramazuna ikusten. Agian, oraingoan ez duzu asmatu zure hori kanporatzen. Beharbada, trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko. Topikoa litzateke orain esatea “saiatu berriro”, eta topiko erdiarekin nahikoa da: “saiatu” besterik ez.

Literaturaz jantziak diren pertsona hauen lankidetzaz izan dugu aurtengo epaimahaian:

Mikel Ayllon

Itxaro Borda

Miren Gorrotxategi

Iratxe Retolaza

Patxi Zubizarreta

Parte-hartzeari dagokionez, 2024. urte honetan 278 lan jaso dira: A mailan, 61 prosan eta 66 poesian; B mailan, berriz, 125 hitz lauz eta 26 olerkian. Parte-hartzaileetako %74,1 neska dira, eta %25,9 mutilak.

Dakizuen bezala, ekimenak dituen 20 bikaintasun-aipamenak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailatan: bosna, atal bakoitzean.

Aipamendunek abuztuaren azken astean egingo den bost eguneko literatur egonaldian hartuko dute parte.

Sagastiberri sailean epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratzen dira lanak, eta liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Liburuaren bukaeran Urruzunotarren zerrenda jarri dugu. 1986tik 2024ra bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberrako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu aipamendunoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Miren Gorrotxategiri.

Liburuko idazleak poztuko dira irakurle zaren horrek lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburua zure ikasleen artean irakurtzeko eta idazteko zaletasuna zabaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere, irakur ezazu liburua, gazte batzuen ilusioaren eta sormenaren ispilutzat hartuz. Euskaltzale, irakur ezazu itzaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

“IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU”, deiadarka datorkizu liburua.

**Euskara Zerbitzua**



## IFRENTZUA

Agota Kristofek zioen idazle izateko idatzi besterik ez dela egin behar. Urruzonatarren zerrenda luzeari erreparatzen badiogu, pentsa dezakegu halakoxe simplea dela kontua: joan zaitez liburu honen amaierara, *URRUZUNOTARRAK 1986-2024* dioen orrialdera. A-tik Z-ra, noizbait Urruzuno literatur lehiaketan sarituak izan ginenon izen-abizenek eta lanek dozenaka orri betetzen dituztela ikusiko duzu. Izan ere, luzea da Urruzuno literatur lehiaketak 1986tik gaur egun arte eginiko ibilbidea, eta luzea da urruzunotarren zerrenda ere. Urruzunotar berriak gehituz doaz urtez urte, eta agian zeure izena ere hortxe dago liburuaren amaierako zerrenda horretan. Edo agian ez.

Aipatu dut Agota Kristofek zioela idazle izateko idatzi besterik ez dela egin behar, bai; baina horrez gain zioen batzuetan ez dagoela esateko ezer eta, beste batzuetan, esateko zerbait izanda ere, ez dakigula nola esan. Buru barnean idazteari utzi eta benetan idazten hasten garenean, pentsamenduak aldatu eta deformatu egiten direla, eta dena gezurrezko bihurtzen dela, hitzen erruz. Eta, nik gehituko nuke, hitzei esker.

Euskal Herri osoko 278 lan aurkeztu dira aurtengo edizioan Urruzuno literatur lehiaketara. Horietatik, hogeitaz gaztek idatzirikoa hogeita bost lan saritu ditu epaimahaiak. Lan horiek lehiatze bat ireki digute gutxi barru euskal letren paisaia izango den lurraldera. Euren lanei esker, lur emankorrek bistaratu dizkigute gazteok, hainbat kolore eta sakonerako erliebeak. Zorionik beroenak eta etorkizun oparoa opa dizuet irabazleoi.

Alabaina, hogeita bost lan sarituok txanponaren alde bat baino ez dira, txanponaren beste aldean, ifrentzuan, 253 lan gelditu baitira saririk gabe, inolako aipamenik gabe. Honela irakurri nion behin Juan Luis Zabalari: “Lehia, bizitza bezala, ez da inoiz justua izaten. Justizian, galtzaileak saritu beharko lirake, ez irabazleak, baina zer interes izango luke orduan lehiak?”. Ez, ez da justua: 253 proiektu gelditu dira baztertuta, 253 amets alboratuta, 253 gazteren ilusioa zapuztuta. Porrota ote da saritu gabeko 253 lan horiek egileen ahoetan utzi duten zaporea? Akaso. Aukeratuak izan ez direnen artean, batek baino gehiagok pentsatuko zuen, agian, ez duela idazle izateko balio. Izan ere, porrotak ahoan uzten duen mingostasunak batzuetan halako burutazioak ere ekarri ohi ditu. Eta gure lanen emaitzek, edota, areago, gure lanei buruz beste batzuek dituzten iritziek gure balioa definitzen dutela ere sarritan sinesten dugu.

Agota Kristof aipatu dut lehen. *Nola egiten da bat idazle?* galderari hala erantzuten dio bere *Analfabetoa* idazle autobiografia literarioan: “Lehenik eta behin, idatzi egin behar da, jakina. Gero, idazten jarraitu behar da. Baita inori interesatzen ez zaionean ere. Inoiz inori interesatuko ez zaiola uste dugunean ere. Eskuizkribuak tiraderetan pilotzen direnean eta, beste batzuk idazteko, ahazten ditugunean ere». Beraz, idatzi, aurtengo Urruzuno literatur lehiaketako

epaimahai honek zure lana saritu ez badu ere. Segi idazten, liburu honen amaierako zerrendan zure izen-abizenak agertzen ez badira ere. Ez ahaztu euskal idazle guztiak ez direla izan urruzunotar, eta urruzunotar guztiak ere ez direla idazle.

Bestalde, ba ote da inoiz porrot egin gabeko idazlerik? Beka, sari edo lehiaketaren batean ezezkoren bat jaso ez duenik? Bere lanarekin iritsi nahiko zukeen leku horretara iristea lortu ez duenik? Edo behin hara iritsita, intxaurrak han ere lau baino ez direla ohartu denik? Irabazleen zerrenda inoiz porrot egin zutenen zerrenda ere bada. Edo egingo dutenena. Sariak adoretzen du, bai; baina ez du porrotak bezainbat irakasten. Maria Negroni idazle argentinarrek bere *El corazón del daño* autobiografia literarioan esaten du idaztea kontu larria dela: naufragioaren hondarrak batzeaz gain, hondamendiaren erdian obsesioaren markak ezarri behar direla. Hala uste dut nik ere: idazteko, norbere mamuekin borroka egin beharra dago. Batzuetan lo egoten dira mamuok, eta haiek esnatzea ez da lan samurra. Ezbairik gabe, adorea behar da halako bide ilun eta malkartsuak urratzeko; kemena behar da idazteko. Horregatik, epaimahaikide guztion ahotik ari naizela uste dut adieraztean lehiaketara aurkeztutako 278 lanek eta haien sortzaileek gure aitortza merezi dutela. Orri zuriaren amildegian norbere munstroei aurre egitea bera garaipena baita, eta ez edonolakoa. Halako erronka itzelari aurre egitera ausartu diren gazte guztiek nire miresmen osoa daukate. Bejondeizuela.

Hasi bezala, Agota Kristofen hitzekin amaituko dut. Lehen aipatutako galderari —*Nola egiten da bat idazle?*— hitz hauekin ematen dio amaiera idazleak: “pazientziaz eta setaz idatziz, idazten denarekiko fedea behin ere galdu gabe,

egiten da bat idazle”. Bildu, beraz, hondamenditik salbaturiko tresna, tramankulu eta ikaskuntza guztiak eta segi munstroz beteriko ozeanoetan nabigatzen ur bareagoetara iritsi arte. Txanponak bi aldeetara erortzen daki eta, iragarpen guztien aurka, inoiz ertzaren gainean ere lurreratzen da eta.

Miren Gorrotxategi, 2024

# **POESIA A maila**

Batxilergoak  
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# **Zuk eskatuko bazenit**

María Zarrabeitia Méndez  
Ibarrekolanda BHI  
Bilbo

Biriketan haziak landatuko nituzke,  
klima beroetako liliak gustuko dituzula esango bazenit.

Hemen,

    Ipar poloan  
hazten ez diren  
    baina ohe-ondoko mahaitxoan nahi zenituzkeen  
loreak landatuko nituzke.

Begietatik ateratzen ez zaizkidan malkoek ureztatuko  
lituzkete nire biriketako haziak,

    -orain dela asko ez dudala kanporantz negar egiten-  
    malkoak ere izozten dira hemen.

Eta horrela,

    gutxinaka-gutxinaka,  
nire barnea betetzen joango litzateke,  
    klima beroetako liliz betetzen,  
    hosto, adartxo eta zurtoinez betetzen.

Biriketan sustraituko litzaizkidake orduan loreak,  
eta, zuri emango nizkizukeen arren,  
niri lotuta geratuko lirateke betirako,  
    niri lotuta geratuko zinateke betirako.

Horiek dira

    orain  
sentitzen duzun hutsunerik handienaren subjektu.

Eguzkia oso noizean behin agertzen den munduaren zati honetan,  
loreak nire barnean hazten utziko nituzke,  
zuk eskatuko bazenit.

Ez dakit zergatik etorri ginen liliak hazten ez diren toki batera,

eskuak izozten zaizkigun toki batera.

Ez dakit zergatik etorri ginen hutsik dagoen toki batera,

isiltasunak ere oihartzuna sortzen duen toki batera,

batera,

batera.

Hotz mingarria egiten duen Ipar polo honetan,  
eguzkiak ez du jotzen, eta espaloien arrakaletatik ez dira  
loreak

ezkutuan bada ere

agertzen.

Hotz zarela esaten duzu

eta nik —itzul gaitezen etxera, laztana.

Baina isilik geratzen zara.

Arnasteari uzten diozula iruditzen zait,

eta orduan pentsatzen dut,

biriketan haziak landatuko nituzkeela,

klima beroetako liliak gustuko dituzula esango bazenit.



Baina ez didazu eskatzen.

Ez didazu ezer esaten.

Zure isiltasunaren oihartzunak nire hitzak estaltzen ditu,  
-ez nauzu entzuten-.

Eska iezadazu, mesedez— diote nire begiek.

Loreak behar ditut ohe-ondoko mahaitxoan— zureek.

Baina afonia dirudien kondizio honek ez digu hitz egiten uzten,  
-ez zaitut entzuten-.

Isil dadila behingoz oihartzun madarikatu hau!

hau,

hau.

Kondenaturik gaude, laztana— esan zenidan azkenik.

Zertara kondenaturik?— nik.

Ipar poloan bizitzera— hasi zinen,

ohe-ondoko mahaitxoan lorarik ez izatera,

eskuak izoztera,

eguzkia bilatu

baina ez aurkitzera.

Zu birikak negutegi bezala erabiltzera kondenaturik zauden

moduan nago ni loreak behar

ditudalakoarena egitera.

Baina ez da egia.

Behar zaitudalako ilusio soila sortzeko besterik  
ez da,

antzerki-muntaia dramatiko hau,  
antzerki-muntaia ezinezko hau.

Ipar Polora etorri behar izan dugu maite ez zaitudala  
azaltzeko,

eta oraindik ez zara konturatu.

Zenbat denbora gehiago egon behar dut isilik,

hutsaren oihartzunak torturatu zaitzan?

Zenbat aldiz esan behar dizut eskuak izozten zaizkidala,

ihes egin nahi dudala uler dezazun?

Ez nauzu ulertzen,

ez nauzu entzuten,

entzun nazazu behingoz!

behingoz,

behingoz.

Orduan,

nik

negar egin nuen 3 segundoz,

barrurantz, berriro,

baina ez dakit zergatik izan zen;

maite ez ninduzula onartu zenidalako ala

isiltasuna faltan bota nuelako,

-agian biak gauza bera ziren-.

Baina bat-batean,

inolako abisurik gabe,

ur tanta bakar baten zain egon izan balitz  
bezala,  
eztarrian zerbait sentitu eta lore bat atera zitzaidan ahotik.

Irentsi nahi  
baina ezin.

Eta berriz ere isildu zinen,  
betirako isildu.

Loratu berri zena moztu  
eta ohe-ondoko mahaitxoan jarri nizun.

Jada ez zenuen bertan gehiagotan lo egin.

Ordutik ez da Ipar poloan ezer gehiago entzun.

Oihartzuna bai,  
oihartzun ozena.

Ordutik negar egiten dut egunero,  
barrurantz negar.

Eta ordutik 5 lili jaiotzen dira egunero.

Eta ez dira jada etxean sartzen,  
ez naiz jada etxean sartzen.

Ez dakit zergatik etorri ginen hutsik dagoen toki batera,  
isiltasunak ere oihartzuna sortzen duen toki batera  
batera,  
batera.

Herrialde honek ez du jada zure usaina,  
baina nik ezin dut alde egin.

Arrazoi zenuen,

birikak negutegi bezala erabiltzera kondenaturik  
nago,

etengabeko izozte hontara kondenaturik,

oihartzun mingarri hontara kondenaturik.

Eta oraindik ere,

biriketan haziak landatuko nituzke,

klima beroetako liliak gustuko dituzula esango bazenit.

# **Igande urdin bateko gogoetak**

Enara Gallastegi Barrenetxea  
Arratia BHI  
Igorre

## **Minezko kamioi gidari guztientzat**

Igandea berriro.

Gaur, zaborra biltzeko kamioia heldu denean,  
erregutu diot, mesedez, eraman ditzala oroitzapen astun  
batzuk ere.

Oroitzapenen Diogenes sindromeak zoramenera eraman  
orduko.

Belaunikatu naiz eta erregutu diot,  
mesedez, eramateko.

Urrutira.

Erantzuna ezetz.

Kamioian ez dute lekurik behin zurekin partekatutako  
koltxoiak,

behin zuriak izan ziren maindireek,  
zuretzako poemak idazteko erabiltzen dudan boligrafoak,  
odolezko tintaz idatzitako hitzez beteriko koadernoak.

Ez dira kabitzen.

Gidariaren begi bustien sakontasunean ikusi dut,

bere bizkar okertuan,

nire koltxoi zaharra,

auzokoaren amamaren aulkia,

hirugarren pisukoaren maitasun gutun bidali gabeak...

Gure min guztia

ez duela kamioiaren barruan eramaten.

Ez da kabitzen.

Zabor deitzen diogun horrez betetzen du kamioia,  
minez bere bizkarra.

Zure azala azaldu arte,  
azaleko gauzez soilik bizi nintzen ni ere.

Eta orain,

azaleko gauzak desagerraraziz mina ere desagerraraziko  
dudan esperantza

absurdoz,

kamioi gidariaren aurrean belauniko,

oroitzapenak zabor bihurtzeko, eta zabor deitzen diodan  
hori oroitzapen dela

ahazteko ahalegin masokistaz,

erregutu diot,

mesedez,

eraman ditzala,

besteen minez egindako kamioi horretan.

Ez al zioten azaldu kontuz ibiltzeko gainontzekoen min  
horrekin?

Gidariaren begi goibelek,

tantaz tanta,

busti dute nire koltxoia,

errenditu eta gelditzen zaion indar gutxiz,

kamioira sartzen duen bitartean.  
Min guztia banan-banan,  
bere eskuetan pisu bihurtuz,  
kamioira sartzen duen bitartean.  
Joan egin da,  
agur esan gabe.  
Euripean belaunikaturik,  
neuk ere negar egin dut.  
Minezko kamioi gidari guztiengatik,  
beraien mina hor nonbait gorde  
eta besteen minak lurraren kontra  
gogor  
zapaltzen dituen horiengatik.  
Behintzat hartu poema deitu diodan hau,  
minezko kamioi gidari guztientzat.

## **Isilduak**

Garraxi egin dut,  
inoiz baino ozenago,  
baina ahoa itxita.  
Eta zu,  
entzun ez nauzun hori,  
ez zara ohartzen zure eskua dela  
nire ahoa estaltzen ari dena.



## **Orratzen heriotza**

Atzekoa,

eta aurrekoa

*Baina soilik oraina, joe, kontzentratu!*

*Soilik oraina.*

### **Tik-tak, tik-tak**

Presioa, iragana gainean,

etorkizuna ere bai.

*Baina soilik oraina, momentua bizitzea.*

Oroitzapenen olatua,

eta egiteko gauzen zerrenda amaigabea.

*Baina momentua dela*

*inporta duen bakarra.*

### **Tik-tak, tik-tak**

*Lerro luze honetan,*

*orainaren puntutxo ia ikusezina*

*kontzentratu, ez galdu berriro galderetan.*

Atzean, aurrean,

eta dena nire gainean.

*Ezetz!*

*Oraina ta kito!*

### **Tik-tak, tik-tak**

Sikatu dira bizitza omen ziren “orain” tantak.

Bukatu da.

## Ida(ha)ztea

Lotzeak omen dakar noizbait askatzea,  
zintzilik nago zure sabaitik,  
soka zaharregi batek eusten duen lanpara banintz bezala,  
zaurgarri,  
beldurrez, noizbait askatuz gero hutsuneak irentsiko ote  
nauen.

Diogun bezainbeste maite al dugu askatasuna?

Lotzea horren da erraza batzuetan...

Bi hari, elkarren beharrez, elkarren desioz,  
elkarren gosez.

Elkar hartu, korapilatu, lotu, oratu,  
estu.

Elkar laztandu, maitatu, ukitu,  
xuabe.

Bi hari lotuta, bat eginda,  
ahaztuta berez bi direla,  
ez bat.

Bai, negua uda bihurtu genuen,  
uda bustia, hezea,  
denboraren basamortua hondartza bihurtzeraino,  
baina orain hondarra baino ez dago,  
lurrik anonimoena omen den hori,  
basamortua berriro,  
zoriontasuna utopia den lurraldea,

desparadisua,  
ez dut basamortuko lanpara izan nahi.  
Ez dut zintzilik bizi nahi.  
Ez ditut agurrak maite,  
baina lanparak agur esan dio sabaiari.  
Lotzeak dakarrelako askatzea.  
Baina astelehen grisenetako insomnio gauetan  
idatziko zaitut orri zurietan.  
Gogoratz idazten  
eta ahazten saiatzen naizen gauetan.  
Ida(ha)zten arintzen dut gure mina  
insomnio gauetan.

# **Ihesitakoak**

Elaia García Aizpurua  
Oteitza Lizeo Politeknikoa  
Zarautz

ORO da errana,  
    baina ez zuk,  
oro har, errangabekoen oihartzuna entzun dezakezu.  
Oroitu zara,  
    zinen,  
        gara,  
            edo ginen,  
                oihartzunak oihukatutako  
                errangabeko oroz.

Oro da errana eta ahaztua,  
    ezerk ez du irauten  
        gogoz gogoratua.

Izan ziren lapurtuak,  
    eskubide osoz,  
    ene hitzak haien ahotan,  
    ene ezpainak zureetan,  
    ene azken hatsa erlojuaren itzalean.

Gaur bihar delakoan nago,  
    eta etzidamu atzo.  
Denboraren bidaia negargarri honetan  
ezagutu ginen irrealitatera itzuli nahi,  
baina, zorigaiztoz, ezin aurki  
atzera biderik.

Sasibide honetan galdurik  
ezin egoera gainditu, aitormena amatatu.

Orriak pasa,  
baina atzeraka,  
behin eta berriro  
zure azaleko lerroak irakurriz.

Dagoeneko,  
gure amesgaiztoen istorioa buruz dakit,  
eta hamaseigarren orriko kortina grixiei  
hamaika esanahi desberdin aurkitu dizkiet:  
interpretazio guziz,  
ez dago ihesten zaidan ikuspunturik.

*cliché*

Topikoei eusten diet  
tipikoegia delako  
topaketa honen gorrotoa.  
Oroitzen zara,  
zinen,  
gara  
edo ginen  
oihartzunak oihukatutako  
errangabeko oroz?  
Saminean gordetako  
bihotz pusketez akaso?

Galdegin nizun  
«galdu egin»  
Alde egin zenuen,  
eta ordutik  
sasibideko irteera bilatzen dihardut.

Galdegin nizun,  
«galdu egin»  
Ez nuen erantzunik jaso,  
agian,  
ezin dut erantzunik eskatu.

Kanpaiek erran didate  
ekialdera jotzeko.  
Iparrorratzik gabe, ordea,  
errangabekoen oihartzunari jarraitzen diot.

Erran gabe utzi genituen,  
zenituen,  
nituen,  
kanpandorreko harrietan idatzitakoa,  
erlojuen norantza alderantzizkoa:  
ezin oroitu gaur bihar den  
edo atzo etzi.

Oro da errana,  
oro da izana,  
oro aukeratzekoa.

Aukeratzekotan,  
izatekotan,  
nor zara? Zer diozu?

*Wannabe, tryna be*

Erræpikatu  
oihartzunak oihukatutakoa,  
oroi gaitezen,  
zaitezen,  
nadin.

Gogoz egin arren, gogoratu ezin  
ostutako bihotz mingotsa,  
ikusezinezko hitz bihurturik  
errandako oro ezin itzali.



# **Garapen bideko poeta baten ohikeria**

Naroa Asensio Gastón  
Aita Larramendi Ikastola  
Andoain

## 12:00

Goizean, hortzak garbitu berritan,  
ura isurbidean behera.

Eskuin aldera,  
norabideek ere badutelako  
gu eta haiek bereizteko joera.

Atera.

Sartu.

Oraindik ere ez dut  
bien arteko ñabardura guztiz argitu.

Sukaldera sartu naiz  
ala korridoretik kanporatu?

Itzali dut iratzargailua:

12:00etan piztu den ontzi garbigailua.

(Esnatzeko modua ere ba omen da  
gure izaeraren ispilua).

Sutondora egur pila.

Sugarra, txinpartaren albotik jaioa.

Sutondora botako nuke poema mordo.

Olerki itsusiak,

ederrak,

beldurtiak,

ausartak,

enpatikoak,

gupidagabeak,

zikoitzak,  
eskuzabalak,  
lagungarriak,  
bihotz-puskatzaileak.  
Denak sutan desagertuz,  
eta gainera, debalde!

Botako nituzke,  
sua ere itzaliko luketen malko urtsuz  
osaturik ez baleude.  
Beraz, leihotik bota ditut,  
zailegia ez dela pentsatuz:  
etxea barnea omen da,  
beraz barnetik bota ditut poemak,  
etxea hustu nahian.  
Ala, etxetik bota ditut poemak,  
barnea hustu nahian?  
Baina ez dut lortu:  
oraindik buruan ditut noraezean,  
ahoskatzen ditut azpiarmonian,  
nireganako bidea aurkitzen dute  
ilunabarren argian.  
Poesia eternala izango da agian,  
eta ni, identitate krisidun poeta,

alferrikako pasioan jirabiran.  
Zer egingo diot ba!  
Poemak leihotik bota eta bota  
jarraituko dut goizero,  
etxea eta barnea hustu nahian.  
Poemak kaierean idatzi eta idatzi  
jarraituko dut gauero,  
neure burua aurkitzeko saiakeran.

### 17:00

Etxean sartu eta anoraka erantzi,  
betiko aurpegi apatikoa jantzi,  
leihopeko lore guztiak erroetatik erauzi  
eta tristura malkoei protoemak erantsi.  
Garapen bideko neopoetok ere  
ez dakigu errealitateari nondik eutsi.

Ordenagailuaren pantaila ireki  
eta hitz faltaren dardara.  
(Zer da larderiatsuagoa,  
word bete ala hutsaren begirada?)  
Gu geu ere poeta garaikideen falta  
sentitzen duten ardi beltzak gara.  
Sasi-poema eta poema-sasiz betea ganbara,

nire zirriborro penagarriei begira bota dut algara.

Hau kalitateari deiadarra da,  
nire barnean halako zerbait bada.

**01:00**

Poesia eta ni, biak huts.

Poesia eta huts, biak ni.

Ni eta huts, biak poesia.

# **Belarritako bat mesanotxean**

June Aiestaran Iparragirre  
Beasain BHI  
Beasain

## **Limoia eta gatza**

“Kontua, mesedez”

eskatu diot

mingain lodiz.

Eskua luzatu,

buelta erdia eman,

eta zuzenean joan naiz

algara eroak

zerizkion mahaira.

Zuzenean,

ez bereziki zuzen.

Zuzentasun maila berean

itzuli diogu kontua

zerbitzariari.

“Hondarrak biharko AjeCola-rako”.

Bihar arte.

Lehenengoa ondoko tabernan.

Hamarna euro jarri

eta iruditu zait

diru-zorroa husten hasi zaidala.

Lehen hamarrek egiten dute min gehien.

Hortik aurrerakoek, tira.

Lehenengo tragoak

sarri dakartza,

ondoko plateratxoan,  
gatza eta limoia.

Lehenengoak, behintzat, bai.  
Eskumuturra biratu orduko  
erre zait eztarria,  
tekila nazkagarria!

Baina lehenengoak erretzen du gehien.  
Hortik aurrerakoek, tira.

“Bi horiek, zer?”  
“Lagundu komunera”,  
“Beste bat?”  
eta “*Moñoa ondo?*”  
artean pasa ohi zaigu gaua.  
Dantza absurdo bat,  
bi algara  
eta oihu asko  
minutuko.

Eta berriz ere,  
“Beste bat?”  
“Goazen, bai”.

Elkarrizketa abiarazten du sarri  
txupito baten aitzakiak.  
Edo elkarrizketaren aitzakiak txupittoa,



zer nahi izaten den.

Formularen ordena edozein zela ere,  
barra ertzean amaitu dut  
berarekin hizketan.

Aitzakia luzatu edo  
aitzakiak indarra hartu;  
baina hemen amaitu dut.

Erretzera irten gara;  
tabernako ke lainoak,  
nonbait,  
ez zigun ikusten uzten  
barruan ere horretan ari zirenik;  
ez genuen ikusi nahi, agian.

Saltoka sentitzen dut sabelean zeozer.  
Tximeletak,  
tekila putzuetan  
igeri.

### **Oroitzen dudan apurra**

Argia itzali  
eta piztu zaigu sua.  
Neguko ezpain erreen  
arteko muxua.

Ez ditut kuleroak topatzen maindirepean.  
Berdin dio.

### **Ahaztuta edo**

Buelta erdia eman dut.

Buruak mila,  
bien bitartean.

Zu ikusi,  
eta une batez,  
berpiztu zaizkit  
atzo sabelean ito ziren tximeletak.  
Ez nire mesederako.

Zure gelatik irten aurretik,  
maindire arteko kuleroak  
eta kalimotxo arrastodun arropak  
hartu ditut eskuetan,  
komunean janzteko,  
esna ez zintezen.

Baina belarritako bat  
utzi dut mesanotxean,  
ahaztuta edo.

Ikusten duzunean dei nazazun  
eta izan dezadan  
aitzakia bat,  
berriz kuleroak maindirepean galtzeko.

# **Grabitate falta**

Maddi Navas Uranga  
Koldo Mitxelena BHI  
Vitoria-Gasteiz

## LIZTORREN ERASOAK

Zapata gabe erosoago ibiliko naizela zin egin didate.

Liztorrak datozkit,

garden bihurtuko nauen oihal baten atzetik noa.

Hegal hotsak aditu ditut.

Gertu, gero eta gertuago.

Buru barruan ditut.

Sumindutako helduak lehertzeaz nago,

eztanda egingo dut.

Zapata gabe erosoago ibiliko naizela zin egin didate.

Sustraiak lurpetik erauzi,

hanka bietako biloak arrasatuz

biluztu naute.

Sentitzetik hutsera.

Ozpinezko malkoak masailetan behera.

Oraingoan, bat gehiago naiz, besterik ez.

Zapatak kendu dizkidate bortizki,

beren nahia ase dute,

desberdina izatearen beldur,

begiek pentsa dezaketenaren beldur,

izatearen beldur.

“Zoritxarra” nigana itzuli da berriz ere.

Sustrai berriak hazi dira,

ziztadak, helduak eta gorrituak.  
Bila nenbilen oihal gardena eskaini didate.  
Oraingoan ez dut behar izan,  
bost axola liztorrek zer pentsatu.

### **GELAKO ZAINDARIA**

Gauero korridorean ikusten dut.  
Lehenengoz, umetan ikusi nuen  
eta, orain berriro, ikusten dut.  
Inork ez du zure berri  
baina nik ikusi egiten zaitut.

Gaua erortzen denean,  
atea txirtirekian utzi  
eta zirrikitutik so egiten didazu.  
Gauero ate atzean pausatzen diren begiek  
hasperen egiten dute,  
arreta eman nahian.  
Ni, ohartu egiten naiz  
baina beste inor ez.  
Gorputza teinkatu  
eta begiek ihes egiten didate.

Ordu txikietan begirada zirritura doakit.  
Zuk bertan jarraitzen duzu,  
niri zelatan,

kontrolatzen.  
Ezinegona datorkizu gibeletik.  
Nire gelako zaindaria zara.  
Orain, sekula baino gehiago  
zaitut nabaritzen.  
Izutu egiten nauzula  
dakizun arren,  
gauero ate atzean pausatuko zara.

### **GALARAZITAKO LOALDIA**

Maindire tanttodunak estu besarkatzen ninduen  
haren esku leunek aurpegia laztantzen zidatela.  
Pertsianak erdizka jaso eta leihoa zeharkatzen zuten izpiek  
itsututa uzten ninduten.  
Aurpegia oraindik handituta nuen arren,  
polit nengoela esaten zidan.  
Bitartean, lur azpiko sustraiek tira egiten zidaten,  
haien artean geldin nendin  
eta haiekin batera,  
amets goxoak izaten jarrai nezan.  
Lurpetik ihes egitea neketsua izan ohi zen.  
Burua gainazalera aterata nuela pentsatuz,  
begiak zabaldu ditut.

Segituan, kopeta azpiko zuloak ketu zaizkit,  
kiskalita, erremin konstantean.

Itsaspean murgildu naiz.

Itsasoaren handitasunean, arrain txikia;  
handitasunean txiki.

Begiak txirtirekian,  
ur azalean finkatu  
eta bere irudia ikusi dut,  
lausotuta oraingoan.

Dei egin dit haren kantuekin.

Benetan niri ari al zait deika?

Arrainontziko pareta gardenean,  
nire buruaren isla ikusi dut:  
maindire tanttodunaren beso artean;  
harrapatuta.

# **POESIA. B maila**

DBHko 3. eta 4. kurtsoak



# **Hamaika burutapen**

Andere Bouza Bengoetxea  
Arratia BHI  
Igorre

## **Ni**

Ile, begi, aho, bular, esku, alu, atzamar, hanka, behatz eta hileko.

Gorputz bat baino gehiago naiz.

Zenbaitetan ere huts eta depresio bat,

antsietatezko gau amaigabeak,

begirada maltzurak,

obsesio bat,

eta aldi berean desesperazio bat.

Baina hori baino gehiago ere banaiz,

gogoa,

borroka,

ausardia,

pasioz betetako izakia,

konstantzia,

eta erresistentzia.

Ikusten ez den hori guztia naiz,

eguneroko lezioz beteriko animalia izua.

Barru-barrukoa eta intentsoa.

## **Hasierak**

Eta harrapatu nazala bizitzak dantzan,

iraganeko bizipenengatik kopa eskuan.

Harrapatu nazala barrezka, lehertzeko zorian,

egun batean negarra eta mina eragin zidan horrengatik.

Harrapatu nazala gozatzen, koroa jantzita, goren-gorenean,

izarrei xuxurlaka, bizitzari hozkadaka.

Bazterrean utzi eta bigarren aukera izan nintzeneko egoera  
horiengatik topa,

kopak goi-goian eta inolako herra eta arrangura barik.

### **Odisea**

Odisea honetan ez da Penelope zintzorik.

Bizitzaren agintea hartu,

menderatu,

ulertu,

beldurrak harrapatu

eta nahiak bete,

soka askatu,

izkiriaturiko letrekin zama arindu,

etapak utzi

eta berriak hasi.

Izan, ikusi eta ikasi,

eta egonkortu.

### **Gazi-gozoek**

Ez diozu ezer, baina begirada horrekin begiratzen didazu,

gehiegi ikusi duten begi horiekin,

eta gehiegitan apurtu den jausitako bihotz horrekin,

berriz ere aguantatzeko kapaz ez denarekin.

Aukeratu behar izan nuen,

zu ez baizinen gauza,  
badakidalako ezin duzula.  
Orain joan zaitez korrika,  
eta harritu itzazu zugan konfiatarik izan ez dutenak.  
Batzuetan maitasuna dena ez delako,  
eta denarekin ezin duelako.  
Orriak pasatuz zabiltza,  
jauzika, behin eta berriz, atzera eta aurrera,  
amaiera berbera irakurtzen.  
“Maite zaitzaket eta, hala ere, joaten utzi”.

### **Ispiluaren isla**

Hamaika begirada,  
zentimetroak doaz gutxituz.  
Komentario eta berba zuhur eta azeriak,  
azala dabil estutzen.  
Argaltasunaren erruleta errusiarrean jolasean,  
funanbulista zalantziak bere jardunari ekiten dion era  
berean.  
Kontrako zelaian jokatuko da partida.  
Arerioak, zitalki, hamaika eraso eginak dizkit orain arte.  
Aspaldi ezagutzen dugu elkar.  
Gose grebaz erantzungo diot,  
oldarkor,  
salbazioa aurkitu nahian.

Gorputz perfektuaren desira.  
Obsesio bihurturiko beharrizana,  
edo beharrizan obsesiboa.  
Bata zein beste txanpon beraren alde bera.  
Baina argi dut azkenean ez naizela bilakatuko  
besteek nahi duten neurrira.

# **Concerto III OP. 3. NO2. IN G Major**

Irati Gallastegui Molero  
Txintxirri Ikastola  
Elorrio

s s s s s s  
e e e e e e  
i i i i i i  
s s s s s s  
e e e e e e  
i i i i i i

soka  
edo

I I I I  
a a a a  
u u u u  
I I I I  
a a a a  
u u u u  
jo ditzaket,  
baina

**pp** suabek ez du indar gabe esan nahi

**ff** FUERTEK EZ DU BIOLENTO ESAN NAHI

zer ot #<sup>e</sup> da ha b<sub>u</sub>, jolas bat b #<sup>e</sup> st<sup>e</sup>rik ez

u h i n a k

---

---

\_\_\_\_\_isi\_\_\_\_\_larazi\_\_\_\_\_dordoka\_\_\_\_\_





|   |  |  |  |
|---|--|--|--|
| Lasai<br>nengoen<br>etxean<br>telebista<br>ikusten: | Palestinan<br>beste<br>ospitale<br>bat erasotu<br>omen dute: | baina orduan<br>lagunak<br>deitu<br>zidan: | eta<br>txokolatea<br>txurroekin<br>hartzeko<br>geratu ginen. |
| I   | VI m   | IV   | V  |

beraz hartu arnasa ' eta aurrera

<gorantzagoazenheinean

>jaitsi gaitezkeberriro

rit. lasai laasaai laaasaai geratu

zaitez hooooooooooooor ·)

bukatu da berriro

hasierara

hasi berriro

:II

## **Ezetz asmatu**

Irati Gallastegui Molero  
Txintxirri Ikastola  
Elorrio

## LEGERIK GABEKO KAIOLA

*Musika daukat buruan  
night and day*

Ezagutzen nauen orok badaki  
letren ozeanoaren olatuetan  
bizi naizela  
ez nauela inork bertatik aterako  
inoiz ikasi ez dudana kanpoan dagoela  
eta hala ere irtengo ez naizela,  
nahiago dut nire kabuz pentsatu.  
Ez, ez naiz kanpora aterako,  
bertan jasanezin zaizkidan  
izate grisak baitaude.  
Noiz ulertuko dute  
beraiek tokia izan zuten bezala  
guk ere gurea behar dugula,  
ez daukala zentzurik  
horrelako etxe batek jabea izaterik?  
Agian ni naiz, ongi ikusten ez dudala edo,  
arazoa nirea izan daiteke,  
itsasoko gatzak begiak kaltetu ote dizkit...  
Hemen barruan saguzarrak  
ditut maitale,  
hotza ahaide,  
eta ez dut beste inor behar

bizirik mantentzen nauen haizeak  
kantatzen jarrai dezan,  
errimak,  
estimak,  
arimak,  
nirekin jarrai dezan.

## EGUNEROKO SEKRETUA

*Neguko gau guztiyak  
euripian zuri idazten*

Gogoratzen al duzu bakearen handitasuna,  
zein handia izan zen bakea,  
azkenean zure burua barkatzea lortu zenuenean?

Barkamena eskatu zenion zure buruari:  
mezu bat, beharra sentitzean idatzia,  
aitortza denak orri bakarrean elkarturik.

“Ene ni maitea,  
agertu al da denbora azkenaldi honetan?  
Etorri al da azken aldian bezain harro?  
Ez iezaiozu kasurik egin, ez du merezi.  
Errazagoa da atzokoa gogoratu  
etorkizunari nostalgiaz begiratzea,  
edo plaza erdian break dance-a dantzatzea  
eta arima monotonoen begiradak gainean sentitu arren  
zuk zurera jarraitzea inongo garrantzirik eman gabe.”

Zerura heltzeko infernutik pasa behar, gora  
igotzeko behean egon behar,  
ezin munduaren zabaltasunera heldu  
parkeko ziurtasuna ezagutu gabe.  
Bizirik mantentzeko modu bakarra da  
bakoitzak bere burua errespetatzea, ezta?

## XOXIK GABEKO GOXOKI LAPURRAK

*Goiz goizetan egunon eta  
gauetan baita*

I was born zure etxean,  
euskaraz ondo hitz egiten ez zenean.  
Gazte arrunt sentitu  
atentzio bila joan  
ta belarren artean aurkitu  
bilatzen zutena.  
Inork ez zien esan  
te estás pasando, bro  
eta orain ez dakigu  
noiz dauden hemen,  
noiz auskalo non.  
Molatzea al da  
botiloi ostean mozkor-mozkor  
kebab-aren bila joatea  
edo temazoa grabatzen ari zarela  
guztiz kolokatzea?  
Gero euskaldunak direla esateko.  
Gero gazteei euskarako klasean aipatzeko.  
Sortzaile ala hartzaile?  
Apologia hutsa,  
denok ezagutzen dugu amaiera,  
ez dago azaldu beharrik.

## ZORTE TXARRA

*Bizitzak besarkatzen nau  
pauso bakoitzean*

Behekoak beheko,  
goitik eroriak,  
ahaztuak,  
ezer ez garela dioten horientzat,  
izate urri eskasa.

Kontrola,

    Kontrola,

        Kontrola,

egin nahi duzuna,  
badago story-ak igotzea  
baino gauza produktiboagorik.  
Edo zainak intoxikatzea baino  
hobe borrokatzea

        idaztea konposatzea baino errazagoa da...

Galeraren mugak  
ongi ezagutuak jada,  
lagunak beti lagun direla,  
egon edo ez egon  
betirako argia  
eskeini behar zaie.  
Behintzat beti  
izango dugu eguzkilorea gurekin,

nondik gatozen oroitzeko,  
amaren etxea zaintzeko,  
seme-alabek irribarre egiteko,  
gure herria defendatzeko.



## **NIK ERE EZ DAKIT ZERGATIK JARRAITZEN DUDAN HEMEN**

*Ez duzu inoiz  
ezer ulertuko*

Nik ez nuen jaio nahi,  
ez nuen existitu nahi,  
behartu egin ninduten.  
Ez nuen hirian bizi nahi,  
ez nuen gizartean sartu nahi,  
ez nuen asanblean parte hartu nahi,  
ez nuen jaungoiko bat izan nahi,  
baina behartu egin ninduten.

Ez dut ulertzen  
zergatik nagoen oraindik  
zuen aho berotan.  
Ez al zen aspaldi amaitu  
nire urrezko garai preziatua?  
Badirudi ezetz.  
Kaka zuentzat,  
ez dut laguntzarik behar!

Sarri-sarri (oso sarri, sarriegi) galdetzen diot nire buruari  
ez ote nagoen hemen  
hala nahi dutelako soilik,  
eta ihes egiteko gogoia

izaten dut,  
hemendik urrun, oso urrun  
alde egiteko gogoa,  
musika barruan daramadala,  
nahiz eta nik musikaren barruan  
joan nahiko nukeen.  
Eskerrik asko, bihar arte.

## AMAIERAREN BELDUR

*Zure ezpainetan hil nahi duen  
poema nekatu bat naiz*

nork esango luke  
    nork pentsatuko luke  
        sinesgaitza dirudi  
        sinesgaitza da  
aspaldi da jada  
pausuak zenbatzen ez ditudala  
gehiegi agian  
denbora gehiegi  
zerbaiten esperoan  
    nik ere ez dakit zeren  
baina ene buruari  
promesa gehiago ez egitea  
prometatu diot ene buruari  
gezurra  
Japoniara joan beharra  
ote dago  
betidanik bilatzen ari garen  
harmonia kirastuna aurkitzeko?  
nik esango dizut  
e    z    e    t    z  
hiru arte kontatzen

pasatzen ditut egunak  
zifra magikoa jada jan dugun arren  
eta 2,99999999an  
hasierara bueltatzen naiz etengabe  
amaierara iristeko beldurrez

ig  
a a  
m b  
a e  
a  
k  
a d  
p i  
a r  
d u  
l d  
a i

# **Oroitzapenezko hari bat**

June Etxezarraga Yurrebaso  
Arratia BHI  
Igorre

Gure artean hari bat dago.  
Hari gorri bat.  
Zuregatik izango balitz,  
hari hori iragana baino ez litzateke izango.  
Egunero ari natzaio  
hari horri itsasgizonen korapilo bat egiten,  
aska ez dadin.  
Baina zuk zure muturra askatzen baduzu,  
ezin dut ondo lotu.  
Bihar berriro ere askatuko da, gutxika-gutxika.  
Agian, hori nahi duzu zuk...  
hari hori askatu  
eta berriro lotzen ez saiatu.  
Hor dago eta dabil,  
nire atzetik ihesean,  
hari izateari uzten, ezerezten.  
Abisatu gabe,  
agur esan gabe,  
nabarmendu gabe...  
hor doa  
nire oroitzapenen hari gorria.  
Dagoeneko agur esan diot hari gorriari.  
Egia esan,  
lasaitasun pixka bat nabaritu dut

nire atzeko korapilo iheskor horri eusteko  
indarrrik egin behar izan ez dudanean;  
nahiz eta  
ziurgabetasun pixka bat,  
beharra,  
edota bakardadea  
ere nabaritu ditudan.  
Zenbat sentsazio pasa daitezkeen bost atzamar inozenteren  
artetik.  
Ezustekoan,  
beste hari bat agertu da.  
Zuria,  
gogorra,  
latza...  
Erraz hausten ez den horietakoa.  
Xarma berezia duten horietakoa.  
Atzamar artean korapilatu...  
eta tan-ta-ta-txan, sorpresa!  
Tente eutsi dio berez, ez dut ia indarrrik egin behar izan.  
Begiak gora bildu  
eta hara non ikusi dudan  
esku bat,  
orain dela egun batzuk nik nekez egiten nuen indar bera  
egiten.  
Nekagarria zirudien

orduan.

Eskuko atzamarrak irmo jarri eta...

buala!

Biok indar bera egiten ari gara.

Ez da askorik,

oraindik beste hariak zuen zer hura falta zaio,

baina hor dago.

Nire oroitzapenen hari zuri berria.



# **The kuku revisited**

June Etxezarraga Yurrebaso  
Arratia BHI  
Igorre

Gaur

leihopetik ikusi dut alde egiten kukua.

Azkenean si-do omen zen

doinu misteriotso hura.

Edo hori da diotena.

Nik esango nuke

jendearen zurrumurru amaigabeak asetzeko esan zutela

hipotesi finko hura.

Gutxi gorabehera

sei ordu berandu heldu zen azken berria,

eguerdiko ordu biak eta laurden aldera.

Irratia piztu eta hura panorama!

Jakinezinaren kantua eten egin zen.

Nork esango luke

ehiztari baten re-mi batekin

gure jakin-min guztiak joango zirela.

Goizaldeko zortziak omen ziren.

Mundu guztia lotan,

ehiztariak,

ehizatuak

eta asteburuetan lan egiten duten koitaduak izan ezik.

Fabriketako zarata eta anabasa itzelarekin tiroa ez ei zen

urruti entzun.

Hala ere,

mendian nabaria zen gizakia zoramenera eraman zuen  
sinfonia

gelditu egin zela.

Mugimendu kirten eta krudel bat.

Zazpi eta erdiak aldera irten zen

betiko konfiantzazko bueltatxo osatzera.

Elizako kanpandorrea inguratuz

kanpaien hotsa behin eta berriz entzuten zuen bitartean.

Dilin-dalan,

dilin-dalan...

Abiatu zen herrirantz.

Ostiral arratsaldeetan umez beteta egoten den parkea ikusi  
zuen.

Bazirudien pozaren parke koloretsua

zuri-beltzean zegoela,

isiltasun sakon batez bildua.

Beraz,

betiko bidean aldaketa txiki bat egin

eta eskoletara joan zen,

pozaren jaiolekura.

Bertan zeuden

ikustea hainbeste gustatzen zitzaizkion

irribarre distiratsuak.

Haien gainean hegaz ikusi zutenean,

denak segika hasi zitzaizkion,

liluraturik.

Kuku...?

Kuku!

Esquarekin agur esan zioten pixkanaka urrunduz zihoan bitartean.

Zirrara hura atzean utzi  
eta betiko bideari ekin zion.

Eskolatik herriko plazara joateko aldatsa jaitsi zuen,  
bere gutizia gogokoenak ematen zizkion okindegira heldu arte.

Han zuen itxaroten  
bizi-bizi kantari jartzen zuen ogi puskatxoa.

Azkena izango zela jakin izan balu...

Zerbait aldatuko zatekeen?

Nik ez dut uste.

Eguneroko saria ahoan sartuta  
jo zuen habiarantz,  
baina etxera heldu orduko  
tiro huts eta soil batekin batera  
joan zitzaigun gure txori misteriotsua.

Batzuk

oso haserre zeuden ehiztariarekin.

Bazirudien urrezko txori bat akabatu zuela.

Beste batzuek

naturaren zikloa zela zioten;

badirudi eta  
bizitzak heriotzera kondenatzen gaituela.  
Bi ertzen arteko lehiaketa amaigabea.

Baina kukuak ez omen zuen gaizki hartu.  
Nahiz eta bizitzak lepoa eman,  
kukuak laztanak egin zizkion,  
bere azken mi-fa kantatuz.

# **Denboraren amildegia**

Aiora Jauregi Pagalday  
Beasain BHI  
Beasain

Denborak gaitu kondenaturik  
amildegiaren ertzean  
arrakaletan iltzaturik  
noraeezan.

Bizitzaren ibaiak zaitu eramana aurretik  
ibai oldarkorra, ustekabekoa.

Zu zinen nire negarren sosegu  
ene malkoen itsasoko marinel

zu

ni

bi arima hautsi.

Jada ez dut nor besarkatu,  
norekin hitz egin,  
nire ametsak nori kontatu.

Zu ez beste

nor oroituko da nitaz, bada?

Ahanztura

Ahanzturak gordeko ditu nire sekretuak  
ontzi batean irauli ene malkoen itsasoa  
ozeanoa.

Urpekaria murgildu da,  
ez du arrainik topatu, esperantza izpirik.  
Joanak dira jada azken arrain abisalak.

Ene ozeanoak ez du argirik,  
iluntasuna nagusi.  
Zure hutsunea  
eguzki printzen oztopo.

Ordulariko orratzen konpas amaigabea martxan da.

Tik-tak, tik-tak...  
Ahanzturak oroituko du naizena,  
izan nintzena eta izango naizena,  
nintzatekeena  
akaso.

Eguzkia ostentzear da,  
ortzi-mugan dabil balantzan, zalantzan  
ahitzen doan soka meharrean  
eroriko bailitzan.

Nire barneko lorea ihartu da,  
ihartu da jada nire barneko ausardia.  
Ahots kordak toteldu zaizkit, izoztu  
ene isiltasunaren oihartzun.

Ordulariko orratzen konpasa moteltzear.

Tik-tak, tik-tak...  
Denboren ahairea ez da isiltzen.

Ekaitza zait iritsi  
hutsa du nahasi



birrinduta nau utzi.  
Irekitako ebaki josiezin.

Erabaki dut.  
Erabaki eta egin.  
Hura izango zen nire azken hatsaldia.

Eta banoa  
banoa beheraka, lurrerantz, amaierarantz.  
Atzera bueltatu nahi baina ezin.  
Grabitatearen indarrak nauka harrapatu-  
rik.  
Segundoak aurrera doazelarik.

Sentitu ditut  
haizeak eramandako kantuak  
kantuak irentsitako hitzak  
hitzek islatutako pentsamenduak  
pentsamenduek gorderiko beldurrak,  
nire barneko ekaitzaren konplize.

Jabetu naiz zer den bizitzea  
unea aprobetxatzea  
bidegurutzeetan bidea hartzea  
(okerrekoa)  
Atzera bueltatu nahi izatea.  
Ezinezkoa dena zinezko bihurtzea.

Ordulariko orratzen konpas sendoa, izoztua.

Tiik-taak, tiik-taak...  
Denboraren argia ez da itzaltzen.  
Edo bai.

Denborak gaitu kondenaturik  
amildegiaren azpian  
arrakaletan iltzaturik  
irmo.

# **PROSA A maila**

Batxilergoak  
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# **Besarka zaitzadan**

June Aiestaran Iparragirre

Beasain BHI

Beasain

Begiak puztuta eta masailak gorri-gorri dituela atera da dutxatik. Xanpua sartu zaio begietan. Gaur ere xanpua, eta gaur ere masailak gorri. Logelako atea zeharkatu, arratsalde osoan zehar irentsi dituen apunteak karpetan gorde, eta AirPods-en kutxatxoa ireki du.

—Buelta bat ematera noa; afalordurako itzuliko naiz.

Nik ezer erantzuterako itxi du atea, eta haren danbatekoari begira geratu naiz, zutik, arnasa eztarrian saltoka sumatu dudan arte. Sukaldeko aulkian eseri, eta diafragmaren arnasketa sendagarri hori egiten saiatu naiz. Ez nau gehiegi lasaitu. Baina altxatu eta Starlux bat bota dut kazola bete uretara.

Ez dakit zer den gaizki egiten dudana; nahi nuke aldatu, dena zerotik eraiki; edo ezer ez eraiki, eta nire zilborrari begira bizi. Alabarentzat traba jasanezin bat naizela sentitzen dut egunero, aurpegira begiratzen didanero; are, begiratzen ez didanero. Sinetsi nahi izaten dut nerabe orok pasa behar izaten duen bolada zail hori dela hau, baina, aldiro-aldiro, ezinegonak hartzen nau. Ezinezkoa egiten zait berarekin hitz egitea; ordea, ez diot galdetzen lagundu beharrean traba egiten ote diodan. Eta galdetzen ez badiot, haren erantzunaren beldur naizelako da.

Gaur ez diot fideorik bota zopari.

—Hemen naiz, ama.

—Zatoz afaltzera.

Afalordua da Leirerekin hitz egiteko izaten dudan tarte bakarra eta, tamalez, sarritan min gehien egiten didana. Orbainak min gutxiago egiten baitu ikusten ez bada, ez ikusiarena egiten bazaio. Hitz aproposik topatzeko gauza izaten ez naizenez, beste behin ere, elkarrizketa automatikoa aktibatu dut.

—Zer moduz?

—Ondo, nekatuta.

—Eskolan ongi?

—Bai, *sin más*.

—Lan asko, ezta?

—Bai.

Isilunea. Beste galdera erretoriko bat. Imintzioka, baietz. Berriz ere isilunea. Oraingoan luzeagoa, deserosoagoa. Eta beste galdera bat, desesperazio ukitukoa. Begiak plateretik altxatu ere egin gabe erantzun dit, zopa beroan koilararekin arrantzan egitea munduko zereginik zailena izango balitz bezala. Berriz ere itolarria sentitu dut eztarrian, baina oraingoan uko egin diot diafragmaren arnasketa sendagarriari. Lepoko zainak lehertzeko zorian sentitu ditut, baina begiak itxi eta listua irentsi dut, garrasika ez hasteko. Berak nahiago izan du ez ikusiarena egin nire lepoko zainei

erreparatu baino. Platera harraskara hurbildu, eta logelara abiatu da betiko aitzakiarekin: “etxeko lanak amaitu behar ditut”.

*Mihiluzeri* begira geratu naiz ni, lehenago alabarekin deszifratu ohi nituen hieroglifoak askatu nahian, ezinezkoa egiten baitzait bestelako hieroglifoak askatzea; saiatzea bera egiten baitzait ezinezkoa. Esan nahi nioke esertzeko sofako bere aldean eta egingo diodala *kolakao* bat, umetan hain gogoko zituen *Digestive* gailetak janez lagunaren merendolako pasadizoak kontaktzen dizkidan bitartean. Baina sofako bere aldea bihurtu da hutsune, *Digestive* gailetak eta *kolakaoa*, *Starlux* zopa, eta lagunaren merendolak, arratsalde bete apunte.

Mahaia jaso eta ontziak garbitzen ari nintzela piztu da komuneko argia. Nik ezer entzun ez nezan ireki du ur-txorrota, baina kontrako efektua izan du, nire belarriak erne jartzea besterik ez baitu lortu: okada bakarra entzutea nahikoa izan da ate ondora korrika joan nendin. Komunontziaren ondoan ikusi dut, belauniko, malkoz estalitako begiak salto egiteko zorian zituela.

—Leire! Ondo zaude?

—Ama! Lasai! Ez dakit... zezerk kalte egingo zidan.

Bere behatz bustiek salatu dute ezkutatu nahi izan duena. Komunaren tapan jarri du eskua, belaunei lurretik altxatzen laguntzeko. Nire begiek laurogeita hamar urteko amonaxto baten belaun hauskorak ikusi dituzte. Inoiz baino ahulagoak iruditu zaizkit. Eta, parez pare zeukan aurpegi asalatuari begiratu ere egin gabe, oherantz abiatu da. Nik ere muzin

egin diot aurpegi asaldatu hori erakutsi nahian zebilen ispiluari, ur-txorrota ixten ari nintzela.

Sofan eseri behar izan dut, nire belaunak ere ahul sumatu baititut buruan kolpeka hasi zaidan mailukada bortitz bakoitzari eusteko. Oroitzapenak oldean heltzen hasi zaizkit, puzzle-zatiak bailiran. Orain oroitzen dut nola bi hilabete daramaten sukaldeko armairuan Leirek egunero-egunero gosaritan hartu ohi zituen txokolatezko gailetek; nola, goizero kafesnearen ondoan jartzen dizkiodan arren, berriro armairuko baldan txukun-txukun kokatu behar izaten ditudan. Orain oroitzen dut nola komunera alde egin behar izan zuen, hunkituta, Nerearen Lemoako bertsoaldi gogoangarri hartan; nola saihestu zuen “*arren sartu atzamarrak ta atera iezazkidazu berbak*” puntuaren ondorengo nire begirada. Orain oroitzen dut nola abisatu zidan baskula gaizki zebilela, nola nik azken urtean ukitu ere egin ez dudan baskula izorratu eta hurrengo egunean ohartu zen horretaz.

Sofaren ertzari heldu diot, eta indarra egin dut bi eskuekin, begiak itxita eta hortzak estututa. Ez dut lortu eskuin eskua erabat ixtea: nire hatzek Leireren koaderno gorriarekin egin dute topo. Eskuetan daukat egunero-egunero burko azpian gordetzen duen koaderno misterioitsua. Parez pare gaude nire alabaren barrenak tatuatuta dituen koaderno eta ni, puzzlea osatu nahian dabilen ama.

Ez. Hori ez da egin behar. Ezin duzu koaderno ireki. Hori ez da ama on batek egingo lukeena.

Bai. Hori egin behar duzu. Zer gertatzen zaion jakin behar duzu, lagun diezaiozun. Bere arazoa ulertu behar duzu, nola jokatu jakiteko. Hori bada ama on batek



egingo lukeena. Ez da horrenbesterako. Bera ez da enteratuko...

Barkatu, aldez aurretik. Barkatu, benetan.

*“Norbaitek besarka  
nazan behar dut.  
Nire bi sorbaldek  
elkar ukitzen dutela  
sentiarazten didan besarkada bat behar dut;  
besarkada bat,  
non gorputza  
utz dezakedan...  
hilda.  
Gorputza hilda utzi,  
eta berpitz nazan  
behar dut  
besarkada bat.*

*Komunontzian hustu ohi  
dudana eztarriaren beste  
aldean gorde eta malkotan  
hustu nahi nuke norbaiten besarkadan.  
Hustu ahala bete nazan  
besarkada batek.*

*Besarkada horixe bera  
bustiko duten malkoak  
kolorete  
bihurtuko dituen  
besarkada behar dut.  
Eutsiko nauena.  
Eutsiko duenik  
behar baitu  
erortzear dagoenak.*

*Baina ‘Zer moduz?’ orori  
erantzungo diot:  
‘Ondo, eta zu?’.  
Automatikoki.*

*Hau guztia  
fikzioa baita.  
Izan ere,  
dramak idaztea  
gustatzen zaigula diogu  
bizi ditugula  
ez esatearren.”*

Bi malko potolo iritsi dira nire ezpainetara. Batak minaren zaporea du; besteak, erruduntasunarena. Ez ditut ezpainak garbitu. Malkoak dastatu ditut, ez diezaiedan ez ikusiarena egin, orain arte egin diedan bezala. Minez errudun sentituko naiz, horrek arazoari benetan aurre egiten lagunduko badit.

Nik izan nahi nuke nire alaba berpiztuko duen besarkada, malkoak kolorete bihurtuko dizkion sorbalda. Nik izan nahi nuke nire alaba eutsiko duena. Esan nahi nioke nik ere badakidala zer den sorbaldarik ez izatea inguruan, negar lasai egiteko. Emango nioke besarkada bat, elkarren kolkoak bustitzeraino. Izan lezakeen babesik handiena izan nahi nuke, baina, beste behin ere, ama txarra sentitu naiz.

Ez dut telebistarik itzali. Ez dut infusioa mahai gainetik jaso.

—*Alexa*, jarri alarma 8:00etan.

Burkoak irentsi ditu ondorengo malko guztiak. Burkoak irentsi ditu negar-zotinak. Ez nuen gaur ere horrekin amets egin nahi, baina berriro ere bihar afalorduan zer esango diodan pentsatzen hartu nau loak.

# **Ousmane Traore**

Haizene Merino Pérez

Ander Deuna Ikastola

Sopela

Amak erakutsi zidan lehenengo aldiz itsasoa.

Narrasti bat bezalakoa sentitu nintzen lehendabiziko aldiz topo egin nuenean oinak hozten zizkidan gatzarekin. Narrasti lehorra, beroa, basamortuan bizitzera ohiturikoa, seguruenik harea koloreko musker txikia.

Buztanak lotzen ninduen basamortura, musker izanda edukitako buztan fin eta luzeak.

Baina itsasoaren aurrean, oinak uretan sartzearen erabakia hartzeko unean, ez nintzen ez musker, ez gizaki, bizitzaren eta heriotzaren arteko zerumuga baizik.

Heriotzak erakutsi zidan lehenengo aldiz itsasoa.

Oraindik oroitzen dut haren bortizkeria.

Hain urrunetik ikusi eta miresten nuen itsaso zabal eta urdina inbutu bat besterik ez zen orain, noizbehinka bizitzak irensten zituena.

Heriotzaren mezulari zen itsasoa.

Eta gu, “etorkin” hitzez etiketatutako iheslariak, olatu bat besterik ez ginen.

Olatu bakar batek ezaba zezakeen gure arrastoa. Gure ondarea, maitasuna, bizitakoa eta bizitzekoa.

Ez nago ziur zer izan zen kautxuzko txaluparen ehundura ukitu nuen lehenengo aldian sentitu nuena, itsaso zabalean behin sartuta, pentsatzeari uzten diozu, sentitzeari uzten diozulako. Ez baitago zure esku nor zaren jitoan zaudenean. Ez dago zure esku zer zaren ere. Ez baitzara ezer, itsasoa beti ateratzen delako garaile.

Lehenengo eguna, 7 hildako.

Ez nituen ezagutzen bidean gelditu ziren lehen familia haiek. Hasieran, hildakoen artean bidaiatzeak hesteak nahasten dizkizu, baina denborak erakusten dizu itsasoaren erdian, hilda zein bizirik, patu berdina izaten buka dezakezula. Zapatek, eta, are gehiago, oinek ematen zidaten atentziona. Ezagutu ez duzun hildako batekin izan dezakezun azken elkarrizketa haren zangoen bidez soilik egin dezakezula irakatsi zidan nire amonak.

7 pertsona haietatik hiru haurrak ziren: bi mutil eta neska bat. Mutil gazteenak oin borobilak zituen, azazkal txiki-txikiekin. Ezkerreko oineko behatz txikiak zauri txiki baten arrastoa zuen, txokolate-koloreko azalaren gainean argia ateratzen uzten zuen zirrikitu bat zirudiena. Seguruenik, pilotan jolasten egindakoa izango zen zauri hura, edo eskolarako bidean harri zati bat zapaltzean sortutakoa agian. Ez zeraman ez zapatarik ez galtzerdirik. Hala moduz eta presaka jantzitakoa zirudien zira urdin iluna zeraman mutikoak bere gorputz

hotz eta txikiaren gainean, seguruenik ihes egiteko momentuan ahalik eta modu onenean jantzitakoa. Garraiatua izan den umearen oinak zituen: leunak, txikiak eta ukitu gabekoak.

Mutil ertainak, aldiz, oin handiagoak zituen, gorputzarekin alderatuta gehiegizkoak. Igerilari ona izan zitekeela pentsatu nuen, nahiz eta Ginean inork ez jakin igerian, ez bazen bizirauteko. Iletsuagoak zituen oinak mutil nagusiak, baina artean gazteak. Hiru haurretatik helduena zen, eta bere zangoen itxura indartsu eta gogorrek erakusten zuen, seguraski, hiruretatik gehien ibiltzen zena eta korrika egiten zuena zela. Bere oinak bizimodu eta zoru latzari egokituta zituela.

Neskaren kasuan, berriz, ezin izan nizkion oinak ikusi. Ez nuen ausardia nahikorik izan hari zapatak erantzeko, arnas egiteari uztean lor zezakeen bakea oztopatzeko beldurrez. Bere eskuak begiratu nituen; momentu hartan sentitu nuen lehen aldiz hunkidura itsasoak nire oinak ukitu zituenetik. Esku leunak zituen, neska gazte batenak, mundu osoa deskubritzeko denbora zeukan neska gazte baten eskuak; baina, aldi berean, bere bizitzaren arrastoen mapa zeukan irudikatuta eskuetan. Nahiz eta ama ez izan, emakume izatearen arrastoak zituen eskuetan: sendotasuna, emakume gazte iheslaria izateko ezinbestekoa dena, harea ekaitz bat bezain arriskutsua eta itogarria den mundu honetan. Humanitate eta borrokaren arteko balantza zeukan neska hark bere atzamarretan.

Ez nago ziur zenbat egun igaro ziren lehenengo heriotzak gertatu zirenetik. Egunak ez dira egun, linboan igarotako denbora tarteak baizik. Ur-masa erraldoi horren erdian, denbora, ura eta zu zarete ardatz bakarrak.

Sarritan galdetzen diot neure buruari nolakoa izango ote zen nire bizitza orain nire herritik alde egin izan ez banu. Iheslariok egitura finkorik gabeko usain bat gara, egitura finkorik gabeko hautsa, argi-itzala, zeharkatu behar dugun basamortua gure gorputzetako poro guztietatik iragazi izan bagenu bezala. Inorena ez den lurraldetik gatoz eta ez gara inor, kaleko txakur etxegabeak bezala, edo gutxienez, horrela ikusten gaitu jendeak. Etorkin batek herrialde berri bat aurkitu dezake bertan bizitzeko, etxe berri bat topatu, familia bat osatu, lan duin bat izan; baina, inoiz ez du atzean utziko bere lurraldea, ez ditu inoiz bere erroak askatuko, eta itsasoan igarotako denbora eta isuritako malkoak bere oinen gaineko herdoildutako aingura bihurtuko dira, bizitza osoan lurrera lotuta mantenduko dutenak. Eta aingura horietatik aske gelditu nahi badu ere, ezin izango du, barne-barnean finkatuta dituelako, hildako ume txikienak ezkerreko oinean zuen orbainaren antzera. Aingura horien pisua korrika egin behar duenean nabarituko du gehien, etorkinak biziraule baino, beti izango direlako iheslari, nahiz eta bizitza normal eta lasai bat lortu, ez direlako inon bertako sentituko. Beti izango dira arrotz, modu batera edo bestera.

Oso ezberdina da txalupara igo baino lehen itsasoa lehenbiziko aldiz laztantzea eta bertatik jaistean topatzen duzun ur gazia. Bederatzi egun eman genituen ontzi hartan. Nik hamabi urte eskas nituen orduan, eta nire amak hogeita hamabost, bi aste lehenago beteak. Itsasoratu nintzenean, haurra nintzen. Beldurra sentitzen nuen, amaren babesa premiazkoa egiten zitzaidan. Ez nuen inolako ziurtasunik ur-masa erraldoi haren beste aldera salbu iritsiko nintzenik.

Espainiako harea ezberdina zen. Finagoa, argiagoa eta gerran ez dagoen herrialde baten harea bezalakoa zen: geldoa, lasaia eta beroa. Hura zapaldu nuen lehenengo aldian,



jada ez nintzen ume. Ez zitzaidan oraindik bizar ilerik atera, eta ez nintzen bat-batean asko hazi ere egin. Barneko zer edo zer izan zen. Mundua haur baten begietatik ikusteari utzi nion. Ez nuke mundua tristuratik ikusten hasi nintzela esango, ez baita horrela. Hondartzara heltzean, nahiz eta arriskua heriotza bezala oraindik ere zure atzetik ibili, bidearen zatirik kritikoa jada eginda daukazu, baina ez duzu zeure burua berdin ikusten. Katu-zulo batean nahi gabe sartu den sagu baten antzerakoa zara. Goizago edo beranduago, harrapakin bihurtuko zara.

Gaur egun, bi seme ditut: Marko eta Emille. Ezkonduta nago, Sandra izeneko emakume gazte eta ilehori batekin. Nolabait, oinetan daramatzadan aingurak arindu egiten dizkit. Lurralde hurbil baina aldi berean ezezagun batean, etxetik hurbilen sentiarazten nauen pertsona da, nire amarekin batera.

Niretzat ama da benetako borrokalaria. Emakume eta ama diren iheslari eta etorkin beltzak bortxatzen, jazartzen, akabatzen eta baztertzen diren mundu honetan, amak arriskuari aurre egin zion, niregatik. Itsasoa zeharkatu zuen emakumea, inoiz haren beldurra erakutsi ez zidana, bazekielako bera zela nire babesleku bakarra. Ez legoke mundu honetan etorkinon amek izan duten garrantzia behar bezala aitortuko lukeen eskertzarik, eta egin dezakedan bakarra, nireari eskerrak emateko, etorkina izatearen atzean dauden ezkutuko sufrimenduak gordintasunez plazaratzea da. Noizbait, etorkizun hurbil batean ahal bada, ihes egiteko beharra izateari uztea da nire desioa, azken finean, etorkin edo ez, guztiok daukagulako *etxea izateko eskubidea, etxean sentitzea eskubidea*.

# **Polaroid bat paperen artean**

Lucia Garmendia Arbizu  
J.M. Iparragirre BHI  
Urretxu

Beste egun kaotiko bat bulegoan. Ilea motots baxu batean lotu nuen oztopo egin ez ziezadan, behingoz kontzentratzeko. Oso urduri nengoen, eskuak izerditan nituen. Dagoeneko oso larria zen egoera.

Udako gau bero bat zen. Leioa irekita nuen, kanpoan urrutiko autoen igaroa, kilkerren kantua eta isiltasun burrunbatsuaren soinua ziren nagusi. Jaka erantzi eta zurrupada txiki bat eman nion nire laguntzailea zen Martinek egin berri zidan kafeari. Oso mikatza zegoen, gehiegi akaso. Keinu bat egin nuen. Hamaika aldiz esana nion kafea esnearekin eta karameluarekin dudala gustuko.

—Ez du zentzurik... —xuxurlatu nuen neure artean, argazki, dokumentu eta *post-it* guztien artean pistaren bat aurkitu nahian.

Bat-batean, telefonoak jo zuen. Presaka hurbildu nintzaion, ia lurrera jausiz aulkitik jaikitzerakoan, deiaren beste aldean espero nuen erantzuna entzuteko irrikaz. Iritsi zen garaia.

Akabo.

—Noiz itzuliko zara etxera? Ez al genuen gaur elkarrekin afaldu behar gure urteurrena ospatzeko? —

galdetu zidan Miguelek suminduta eta lehor, munduko krimen okerreana burutu izan banu bezala. Kafea bezain mikatza izan zen esaldi hura. Ordularira begiratu nuen, eta orratz txikiak hamaikak zirela adierazten zuela ikusi nuen. Eskuak burura eramane eta hasperen egin nuen, erabat ahaztuta neukan.

—Laztana, sentitzen dut... lan handia daukat eta... —  
soinu txiki labur bat entzun zen telefonoan. Miguelek deia moztu zuen.

Haserre, mahaiari ukabilkada bat eman, eta mugikorra bere lekuan utzi nuen. Nire aulkian eseri eta lanari ekin nion berriz ere. Leher eginda nengoen, apur bat zorabiatuta. Ezin nuen gehiago, kasu hau gehiegi zen niretzat. Gaindituta nengoen. Mahai gaineko paper pila desordenatura begiratu nuen, eta beste behin hartu nuen argazkia; hamaikagarren aldia izango zen egun hartan.

—Libe.

Hotzikara batek zeharkatu zidan gorputz osoa lau letra horiek entzutean. Arnasa hartu eta bortizki aterantz jiratu nintzen. Hantxe zegoen Martin, serio. Nekea igarri nezakeen gaztearen begiradan. Neure buruari galdetu nion ea inoiz pentsatu zuen kriminologo-praktikak hain gogorrak izan zitezkeenik.

—Esadazu, Martin —bota nion zakarki.

—Hasteko, lasaitu zaitez —egotzi zidan gazteak, nabarmen minduta—. Bestalde, Antonio Leizarragaren kasuari buruzko hainbat informazio iritsi zait. Dei bat jaso dut Euskal Laborategi Forentsetik emaitzen inguruan.

Momentu labur batez, isildu egin zen. Bihotza indartsu hasi zitzaidan taupadaka, bularretik aterako zitzaidala sentitu nuen. Martinek irribarre bihurri eta misteriotsu batekin begiratu zidan, eta horrek are gehiago haserretu ninduen. Segundo batzuk geroago, isiltasuna haustea erabaki zuen.

—Zuzen zeunden. Cristina, Antonio Leizarragaren arreba, izan zen haren borrhora.

Hori entzunda, nire bihotza, ordura arte odola indarrez zeriola zebilena, brastakoan gelditu zen. Nahastuta nengoen. Nire bulegoko lau hormak gero eta gehiago ixten ari zirela sentitu nuen, ixten eta ixten, azkenean itotzen nindutelako sentazioa izan arte. Min handia sentitu nuen bularrean. Gero eta zorabiatuago nengoen.

—Ez al duzu ezer esango? Ez al dugu ospatuko? —bota zidan Martinek.

—Harritzen nau laborategitik zuri deitu izanak.

—Emakumea, Antonio Leizarragaren hiltzailea aurkitu duzu. Duela hilabete batzuetatik hona erotu zaituen kasua da, eta gehien kezkatzen zaituena lehenengo zuri abisatu ez izana da? Emakumeak... zailak zarete benetan, joer! Ez dago zuek ulertzerik!

—Ez, ez, ez da posible. Entzun, Martin, gaur goizean berriro aztertu dut Cristinaren testigantza eta... —Martinek begiak txilotu zituen— ezin da izan. Cristina bere ahizpa Mariarenean zegoen hilketaren orduan, bere alaba Iratirekin. Ezin izan da bera izan.

—Jainkoarren, Libe! Zergatik zaildu behar duzu dena? Ez da hain zaila, misterioa argitu da eta kito.

Telefonoak jo zuen berriz ere. Miguel zen. Astuna zen, gero! Ez nion jaramonik egin. Orain hori ez zen garrantzitsuena. Eseri egin nintzen. Gaizki sentitzen nintzen, eta ez nuen nahi Martin horretaz ohartzea. Kafearen zapore mikatza ahora itzuli zitzaidan.

Han zegoen Martin, sartu zenean utzi nuen lekuan, Leizarraga familiari buruzko milaka paper, dokumentu eta artxibo judizial mahai gainean zabalduta.

Berriro hartu nuen argazkia. Argazki txikia zen, polaroid bat, apur bat hondatua. Cristinak, Antonioren arrebak, negar zotinka eman zidan bi hilabete lehenago, mesedez justizia egin eta nebaren hiltzailea aurkitzeko erregutuz. Argazkian bestelako begirada bat zeukan Cristinak, ez suntsitua eta zauritua, edota gorrotoz, beldurrez, etsipenez, larriduraz eta mesprezuz beterikoa, susmagarrien artean zegoela esan nionean zuena bezalakoa. Haren aurrean biluzik sentitu nintzen hori jakinarazi nionean, txiki. Eta gainera ni neu nintzen egoera kontrolatzen zuena. Edo hala egiten nuela uste nuen, beti egoten baita norbait hariak mugiarazten dituen, bere gogara manipulaten gaituena txotxongilo soil eta alferrikakoen antzera, gu horretaz jabetu gabe, eta hori zen, argi eta garbi, nire kasua. Hala ere, une hartan hipotesi guztiek erruduna bera zela adierazten zuten arren, segidan ulertu nuen Cristina Etxebarria ez zela erruduna.

Antonio Leizarraga, nafar aberats eta diruduna, burdina saltzen zuen nazioarteko enpresa handi baten jabea zen. Haren hilketaren kasua esleitu zidatenean, mafiako kasuren bat izango zela pentsatu nuen. Ideia hori baztertu egin behar

izan nuen, ordea, gorpuaren DNA hondarretan enpresariaren senide baten hatz-markak aurkitu zituztenean. Horrek buruan nituen ideia eta teoria guztiak suntsitu zizkidan. Ezerk ez zuen zentzurik. Zergatik hil behar zuen senide batek? Familian oso maitatua omen zen. Leizarragatarren zuhaitz genealogikoa aztertzen hasi nintzen, eta konturatu nintzen Antoniok eta Cristinak ez zutela aita bera. Jakina, hortik abizen desberdina izatearena. Horrek emakumearenganako susmoak piztu zizkidan.

Orain denak zentzua zuen. Begirada zorrotz batez begiratu nion Martini, eta telefonoa hartu nuen, polaroidaren ondoan zegoen telefonoa, segundo bakar batez ere argazkia bistatik galdu gabe. Pantaila piztu eta dei galdu bat nuela adierazi zidan: Euskal Laborategi Forentsetik jasotakoa.

Kaka.

Orduan kafe zaporea itzuli zitzaidan, inoiz baino mikatzagoa.

Pantailatik polaroidera begiratu nuen. Martinek tinko begiratzen zidan eta kontu handiz aztertzen zuen egiten nuen edozein mugimendu, espresio edo imintzio, buruan zer nerabilen igarri nahiko balu bezala. Hotzikara gorputz osoan zehar zabaldu zitzaidan. Eskuak hotz nituen, gehiegi, akaso.

Kaka, kaka.

Argazkian bost pertsona ikusi nituen. Erdian, Antoniok, hildako enpresariak, irribarre zintzoa zuen. Betaurreko gorriek eta ile beltzak begiak estaltzen zizkioten. Jadanik bere aurpegiarekin amesten nuen eta betidanik ezagutu izan banu bezala sentitzen nuen. Ondoan, Carmen zuen, bere ama

zena. Emakume lodi samarra, baina begirada gozo eta alaikoa. Nire azterketen bidez jakin nuen duela zazpi urte hil zela. Bakean atsedean har dezala. Carmenen ondoan, Cristina eta Maria zeuden, Carmenen bigarren senarraren bi alabak. Bi emakume garai, ile luze kizkurrekoak eta oso deigarriak, une hartan euforiko. Argazkia gerturatu nuen, eta nire begiek ordura erreparatu ez zioten norbait ikusi nuen. Besteak baino gazteagoa eta altueraz nahiko txikia. Ume bat zen, 11 urte ingurukoa. Kontuan izanda argazki hura nahiko zaharra zela, dagoeneko haur horrek 26 bat urte izango zituen. Inoiz ez nion jaramon handirik egin argazkiko pertsona hari; izan ere, Mariaren lau semeetako bat izango zela pentsatu nuen.

—Martin Etxebarria...

Martinek irribarre batekin begiratu zidan.

—Cristina Etxebarriaren semea, Antonio Leizarragaren iloba, hain zuzen ere.

—Ez niri errua bota, gizon hark ez zuen ez emazterik ez seme-alabarik. Kaskagogor samarra zen, isila eta hotza izateaz gain. Dirua behar nuen.

—Zergatik?

Martin isilik gelditu zen. Bere begirada sakon eta ilunean argi distira bat ikusi nuen. Niregana hurbiltzen hasi zen poliki-poliki, pauso bakoitza ematea aurrekoa ematea baino gehiago kostatuko balitzaio bezala.

—Ez... ez...



Presaka jaiki nintzen aulkitik handik korrika irteteko, baina lurrera erori nintzen. Kafearen zapore mikatza sentituen gorputz osoan zehar.

—Sentitzen dut —xuxurlatu zidan eztiki belarrira, nire gorputz osoa paralizatua zegoela lurrean.

Orduan begiak itxi nituen.

Kafea heriotza baino mikatzago zegoen.

## **Bihar ...**

Naia Urtaran Bilbao  
Egibide-Jesús Obrero  
Vitoria-Gasteiz

*100 metro eskas ez dira ezer; ezta minutu bat ere, zer dira  
60 segundo 17 urteren aurrean, ezer ere ez; bizitza oso bat  
baino ez.*

Bizitza osoa daramat dantzan. Erritmo arritmiko bati jarraika milaka buelta eman dizkiot bizitzari. Beharbada milaka ez baina hamaika bai; beti berdin, bi pauso aurrera bat atzera, eta orain, beheranzko bidea hartuta, ez dago atzera pausorik.

Mendebaldeko haizeak laztantzen nau, Zefiro hurbil ibiliko balitz bezala; agian nire erorikoa gelditu nahian, agian bizkortu nahian; dena dela ere, grabitateak ez dit inoiz huts egin, eta badakit gaur ez dela lehen aldia izango, azkena izanda ere.

90 metro eta betierekoa den momentu batean murgilduta sentitu naiz. Txantxangorri batek, aurrez aurre, begietara begiratu dit eta gorantz jo du. Segundo batez jarraitu nahi izan diot, nire egoeraren saihetsezinaren aurrean, besoak astindu ditudalarik bere hegoen mugimendua imitatuz; nire azaletik eguzkirantz igotzeko gai diren lumak aterako balira bezala. Tamalez, astindu ala ez, Ikaroren bidean jarraitu dut.

Ur-jauzian behera erortzen den uraren burrunba gero eta handiagoa da. Uraren oihartzunak aitaren esanen forma hartu du, duela ez gehiegi kontatutakoen oroimena, mendeetan zehar familian kontatutako horietako bat.

— Adi Geazi, hondoan entzuten duzun burrunba lamien aieneak dira, ertzera gehiegi hurbilduko bazina erorraraziko zintuzketen berberak —kontatu zidan behin begi zimurrekin begiratzen zidan gizonak, bion arteko sekretu bat balitz bezala, nire eskuari eusten zion bitartean.

— Eta zer gertatuko litzaidake orduan? —galdetu nion nik bueltan.

—Lamien malkoetan itoko zinatekeela, laztana —niri eskutik heldu eta bideari ekin zion begiradarekin txantxangorri baten hegaldiari jarraitzen zion bitartean—. Saiatu zaitez hurrengo gorpu itoa ez izaten, ados?

Ziur naiz momentu hartan baietza eman niola. Nahiz eta berak niri begiratu ez, burua astindu eta bere eskuari gogor eutsi nion. Ze lastima sei urteko neskato hura, bi urte geroago, abenduaren 26an, aitarekin batera hil izana bihotzekoak jota; atzean, berez, arnasten zuen oskol huts bat besterik utzi ez zuela.

Sarritan pentsatzen dut neskato harengan; bitxia da, ispilu hautsi batean begiratzea bezain bitxia. Dagoeneko ez naiz gai neure burua haur harengan aurkitzeko, eta, hala ere, neguko gau batzuetan oraindik haren zantzuak sumatu izan ditut; noizean behin bere malkoek masailak erre dizkirate. Behin baino gehiagotan, haren oinek amaren gelako ateraino eramán izan naute, eta, eskutokiari tira egiteko indarrrik inoiz izan ez dudán arren, atearen aurrean ordu erdi baino

gehiago pasatzera iritsi naiz, inoiz bakarrik irekitzera joango balitz bezala... inoiz gertatu ez dena.

Batzuetan, aitortzen dut, denboran atzera egiteko nahia sentitu izan dut. Gustatuko litzaidake denboran atzera egitea. Beharbada, atea irekitzeko indarra topatu, amari begietara begiratu eta behingoz barkatzeko modua aurkitu, liskar guztietan esandakoak eta esan gabekoak barkatzeko modua. Agian horrela neure buruari ere barkatuko nion. Lurretik 50 metrora, amaren bakardadea inoiz baino pisutsuago nabaritzen dut; zenbat gustatuko litzaidakeen idatzitako mezuari azkenengo lerro bat eranstea: “edozeren gainera, ama, geure buruari barkatzen diot”.

Bizkarra ematen diet zoruko harriei azkenengo metroetan; esku batez eusten diot bihotzari, azkeneko momentuan ihes egin ez dezan. Damuak nire birrikak estutzen ditu eta nire barruko oihartzunek uraren burrunba estali dute. Heriotzarekin dantzatzeko prest etorri naiz, baina, momentu batez, bizitzarekin dantzatu ohi dudana bals arritmikoaren amaierak ikaratu nau; bizitzari eutsi nahian besoa altxatu dut eta hurrengo segundoan lamien malkoetan hondoratu naiz.

100 metro eskas, 60 segundo besterik ez, Oiardo ibaiko urak gorritz tindatzeko.

\*\*\*

Iluntzear dago etxera heltzea lortzen duenean. 5 minutu behar ditu guztira bere burua konbentzitzeko kotxetik atera behar duela, beste bi minutu etxera sartzeko gai denerako. Erabateko bakardadean aurkitzen da gela ezberdinak igarota. Geazik heltzear egon behar duelakoan dago, eta, mezuei

erreparatu gabe, mugikorra kargatzen uzten du, egongelarako bidean kopa bat ardo eskuratzen duelarik.

Ardoa esku batean eta telebistaren kontrola bestean, sofan botatzen du bere burua. Telebistaren soinuei ez die erreparatzen, baina nahikoa dira bere barruko zarata amatatzeko. Azken egun hauetan bere gorputzetik kanpo sentitu da, denboran trabatutako mamua bezala: lanetik etxera eta etxetik lanera ibiltzen da, berarekin pixkanaka-pixkanaka akabatzen duen errutina gogaikarria. Gustatuko litzaioke guztia pikutara bidaltzea: pikutara nagusia, lankideak, eta pikutara bere bizitza infernu bat bilakatzen duten bezeroak.

Ardoari trago bat emanaz, telebistaren ondoan dagoen erretratu bati erreparatzen dio; bertan, Gujuli ur-jauziaren aurrean, Geazi ageri da Iñakiren sorbalda gainean. Ez dago ziur noiz ateratako argazkia den baina, segundo batez, denboran izozturik dagoen une horretan murgilduta geratzen da; bien irribarrean murgilduta.

Ez da gai gogoratzeko zein izan zen bere alaba irribarre egiten ikusi zuen azken aldia. Ez du gogoratzen benetan gelditu eta berarekin hitz egin duen azken aldia edota biak elkarrekin paseatzera atera direnekoa. Ez da gai gogoratzeko begietara begiratu dion azken aldia; Geaziren begiak urdinak ala berdeak ziren? Ez dago ziur... eta horrek benetan beldurtzen du; azken urteak piloto automatikoan eman ote dituen beldur da.

Zurrutada batez amaitzen du ardoa eta, erabakitasunez agintzen dio bere buruari bihar dena pikutara bidaliko duela behingoz, bihar bere bizitza ordenatuko duela eta mamu izateari utziko diola. Bihar alabari besotik heldu eta

Iñakirekin Gujuliko ur-jauziraino egin ohi zuten bidea egitera eramango duela beste behin, eta, goraino igoko ez badira ere, Geazi Oiardo ibaiko ur garbietan bainatzera eramango duela agintzen du; bihar...

**Aio**

Elaia Garcia Aizpurua  
Oteitza Lizeo Politeknikoa  
Zarautz



Berriz biratu da, oraingoan leihoari bizkarra emanda eta begiak itxi ditu gelako argitasuna saihestu nahian, baina ez da posible izan. Hurrengoan, parrandara irten baino lehen, pertsiana jaitsiko duela zin egin dio bere buruari. Hil honetan soilik, hitz ematen duen hirugarren aldia da, baina oraindik ez du behin ere bete. Beti berdin; ez da horren eginkinzun konplikatua... Indar apurrak bildu ditu eta ohetik jaikitzen saiatu da. Burua biraka dauka eta inguruko guztia mugitzen zaio. Ez dago ziur ajea den edo oraindik mozkortuta jarraitzen duen. Sukaldera zuzendu da, korridoreko paretez baliatuz bertaraino iristeko. Paracetamol bat atera du kabinatik eta hozkailuan begiratu du gero: hiru garagardo lata, limoi erdika bat eta iraungitako bi jogurt. Danbateko batez itxi du hozkailuko atea eta paracetamol pilula irentsi du, aurretik ezer jan gabe eta urik edan gabe. Dagoeneko erraztasuna du pilulak irensten.

Ahal izan duen moduan gelara itzuli eta berriz ere ohean sartu da, baina etzan baino lehen, kortinak itxi eta pertsiana jaitsi ditu. Bere burua zoriondu du, bere ohean esnatu delako, eta ez bart gauean ezagututako edozeinenean. Norberaren oheko goxotasuna bezalakorik ez dago, aitortu behar bada ere, guztiok egin behar dugula geroago damutuko zaigun zerbait noizbehinka. Hala dio berak behintzat.

Telefonoaren hotsak iratzarri du, ametsetan murgildu denetik hiru ordu eskasera. Laura da, “*Zer ostia beharko du honek orain?*”. Bart gaueko argazkiak bidaltzeko mesedez, horixe behar du Laurak. Mugikorreko galerian sartu da eta bere lagunari bidaliko dizkion argazkien aukeraketa egiteari ekin dio: noski, ez dio bidaliko gaizki irteten den argazkirik. Argazkiak miatzen dabilela, ohartu da ez dela oroitzen irudiek adierazten dutenaren erdiaz, ezta laurdenaz ere agian. Nor ote da ile gorri hori? “*Zer? Ni atzo taberna honetan egon nintzen? Beno, berdin dio*”. Argazkiak aukeratu eta Laurari bidali dizkio. Orain bai, lo egin dezake lasai asko. Nolanahi ere, aje glamurosoagoa gogoratzen zuen joan den larunbatetik.

Alarmak iratzarri du. Lo-kuluxka ederra bota du eta orain, atzo egin zuen moduan, parrandara irteteko prestatzea dagokio. Sukaldera joan da, oraingoan nahiko zuzen, eta Laurari deitu dio jarraian, zer jantziko duten zehazteko. Laurak, ordea, gaur ez dela irtengo esan dio, nekatuta dagoela. Deia eskegi eta garagardo bat atera du hozkailutik; urrupada bitan irentsi ondoren, dutxan sartu da.

Laura ez irteteak ez dizkio Janireri gaueko asmoak izorratuko, eta, bakarrik bada ere, erdialdeko tabernaren batera joango da.

Ez dakit autobusera iritsiko ote naizen, bizpahiru minutu berandu baldin badator: trafikiko apur bat edo aurreko bi semaforoak gorrian, bai, iritsiko naiz, espero... Itxaron, horko hori ez al da Intz? Begira daukat, ezta? Luzeegia egin zuten bere garaian kale hau. “*Aio, Intz, gero ar-*” Ah, beno... agian ez, agian ez gara gero ikusiko, agian nahiago zenuen “*Bihar arte*” edo “*Aupa*” edo ezer ez, nahiago zenuke nire ahotsik ez entzun beharra. Txantxa dirudi, duela

urtebete hau esan bazidaten, ezingo nuen sinistu, barrez lehertuko nintzen. Beno, berak jakingo du zertan ari den.

Bat, bi, hiru... Dozena erdi bat lagun inguru ikus ditzaket autobus geltokian. Bikain! Autobusa oraindik iritsi ez den seinale.

*“Pipipipipi” “Ostia! Alarma!”* Zamarraren ezker patrikan daukat mugikorra, beti bezala, baina joder... kremlera trabatu behar! Parean dudan atso zaharrak ez dit begirik kenduko zarata isilarazten dudan arte. Banoa, banoa! Ez da horrenbesterako! Hortxe, ‘stop’. Oso ondo, begiratu beste aldera orain, gero gazteok hau, gazteok bestea, baina zaharrak baino gaitz kutsakorragorik ez dago, horiek bai ez diotela gutxieneko ez begirune ez errespeturik inori. ‘Pilula’ zioen alarmak, ez dakit poltsan sartu ote ditudan. Hala ere, egun asko dira hartzen ez ditudala, bospasei edo. Egunean bi hartu beharko nituzke eta, alarma espresuki horretarako jarrita izan arren, oso gutxitan betetzen dut aginduarekin. Pilula horiek dakarten isiltasuna gehiegi da niretzat. Egia esan, maite ditut nire buruko hamaika ahotsak, baten bat besteak baino gehiago, baina tira. Azken finean, bizikidetzaz errazagoa da ahots horiekin, isiltasunarekin baino, edo beste norbaiten ahotsak, haien xuxurla edo marmaren durundiarekin baino.

Bazen garaia, hasieran eskatu ditudan bizpahiru minutuak hamar bilakatu beharrik ez zegoen. Zain egoteko ibiltzen naiz beti korrika eta presaka, hurrengoan lasaixeago hartuko dut kontua. Ea badagoen eserlekurik leiho alboan... Primeran! Aurikularrak aterako ditut musika apur batekin bidaia arintzeko. Ea... pizgailua, txikleak, paperak... belarra... Hara! Pilulak hartu ditut, beno, baliteke aurrekoan

sartu izana ere. Beno, berdin dio, nik orain entzungailuak nahi ditut. Ezpainetako kakaoa, errimela... Hementxe!

*“I used to rule the world / Seas would rise when I gave the word / Now in the morning I sleep alone / ... ”*

Abesti horrek ez du zerikusirik tabernan entzuten dituenekin, horiek txunba-txunba-txunba dira guztiak. Ez du musika hori atsegin, hala ere, hori entzungo du asteko lau gauetan gutxienez. Lau gau horietan lerdo gehiegi gerturatu ohi zaizkio, hor doa gaur gaueko bigarrena.

—Aizu, polit hori, surik bai?

—Ez –gezurra esan dio.

—Beraz, ez duzu erretzen? Ondo, ondo. Benetan, ez zaitez hasi, gero uztea ezinezkoa da

—mutilaren ahotsa tabernako txunba-txunbak jaten du, bost axola kontaktzen ari zaiona Janireri, hortik alde egin besterik ez du egin nahi.

—Komunera joan beharra daukat—moztu dio.

—Laguntzea nahi?

Zerriaren azken hitzei jaramonik egin gabe zuzendu da komunera. Bertan, neska bat botaka egiten eta beste bi negarrez topatu ditu, bata bestea kontsolatzen. Laurarekin antzeko eszena mordoia izan ditu Janirek, batez ere Intzenaren ondoren. Poltsa ireki du txikleak ateratzeko intentzior, baina pilulekin egin du topo lehenago, eta hiru irentsi ditu bulkada batez. Komunetik irten da eta barrara doa orain. Bi vodka redbull eskatu ditu, biak berarentzat. Gero berriz barrara

gerturatu beharrik ez izateko eskatzen ditu aldi berean eskuetan har ditzakeen bezainbeste trago.

Denbora aurrera doa, eta gaueko ordu txikiak ez dira inolaz fidagarriak. Txunba-txunba bortitz hori entzuteko gauza ere ez da dagoeneko Janire, eta tabernako argi koloretsu zoroek zorabiatu egiten dute. Paretaren kontra jarri du gorputza eta begiak itxi ditu, piano-piano, astiro-astiro.

Zalantzarik gabe, denborak aurrera egin du, eta Janire bigarrenkoz biratu da, oraingoan leihoari bizkarra emanaz eta begiak itxiz gelako argitasunari iskin egin nahian, baina ez du lortu. Begiak ireki ditu berriro, eta konturatu da, gorputza estaltzen dioten maindireak ez direla bere ohekoak eta horman eskegita dauden margolanak ere ez direla berak egindakoak. Ez du gogoan nola iritsi den horra, noren etxera joana zen bart. Ezin da libratu mundua alderantziz dagoela sentitzetik; hala ere, ziztu bizian jaiki da ohetik, eta bere gauzak bilatzeari ekin dio: mugikorra, oinetakoak, diruzorroa... Hainbesterakoa da Janirek bere gauzen bilaketan jarritako arreta, ez baita ohartu norbait sartu dela gelara.

—Egun on! Zer zabilta, poltsa eta gainontzeko gauzen bila? Sarreran utzi zenituen atzo. Kafea prestatu dut, nahi izanez gero, sukaldean daukazu.

Zer esan ez dakiela geratu da Janire. Bere ideia eta pentsamendu guziak antolatu ditu une batez eta gero eskerrak eman dizkio eta ordua galdetu, lanera garaiz iritsiko ote den edo aitzakiaren bat bilatu behar duen jakiteko. Zorionez, ia-ia bi ordu ditu oraindik lanera ailegatzeko, etxera joan eta dutxatzeko denbora ere badu.

—Beno, mila esker guztiagatik, ni banoa!

—Ez da ezer. Barkatu, baina badaukat galdera bat egitea, joan baino lehen?

—Bai, noski, bota.

—Zer gertatu zen Intz eta zure artean?

Nor ostia izango ote da gizon hori eta zergatik jakingo ote du nor den Intz. Janire ez da ausartu bere izena edo gauean gertatutakoari buruz galdetzera eta astapetro hau Intzen inguruan galdezka dator!

Ziurtasun osoz, Janirek ajearen oroitzapen glamurosoagoa gordetzen zuen joan den astetik.

Bada garaia Intzen kontua gainditzeko; azken finean, zenbat denbora igaro da? Noiztik? Ez dakigu, ez gara oroitu ere egiten, baina, zertaz oroitu behar dugu? Melankoliaren lainoek oztopatzen digute ikusmena, lausotuz gure oroitzapena. Zer oroitzapen? Zer “gure”? Neure buruaz gain, nor gehiagoz ari naizen jakingo banu! Nork osatzen du “gu” hipotetiko hori? Nik, zuk, zuek eta haiek. Haiek, oraindik ezagutzeko ditugunak; ditudanak, barkatu, nire inguruko pertsonak jada ez baitira zure inguruko pertsonak, jada ez daukagu gure inguru bat, ez daukagu pertsonarik amankomunean; bakoitzak du bere ingurua, ditu bere lagunak, eta batenak ez dira bestearenak. Zuek, zu barne, huts egindakoak, joandakoak, agian, neronek botatakoak. Sentitzen dudala soilik aitortuko dizuet, gainontzekoak berdin du-eta uneotan; sentitzen dudala baino, dugula esan nahiko nuke. Zuri bereziki ez dizut ezer aitortuko, gainontzekoen mezu berberak nahikoa behar luke, aitortu bainizkizun derrigorrezkoak baino gehiago “gu” definitzeko gaitasuna galdu aurretik.

Zenbat denbora igaro da “gu”aren esanahia lurrundu zenetik? Zenbat denbora igaro da azkenekoz nire itzala zure ametsetan irten zenetik? Zenbat denbora igaro da? Zenbatetan entzun duzu grabatu genuen abestia? Zure akorde, nire hitz. Zenbatetan aditu duzu nire ahotsaren oihartzuna? Zenbatetan entzun nauzu? Zenbat ibilbide aldatu dituzu espaloi berean topatu ez gaitzen? Zenbat kale kantoitan egin dugu topo? Zenbat galdera ote ditut zuretzat, nehoiz erantzunik jasoko ez dutenak.

Gizon ezezagunarenetik bere etxerako bidea oinez egin du Janirek, eta iristear dela Intz somatu du. Zorigaiztoz, betiko kale kantoian gurutzatu dira. Ahopeka egin dio kasu batek eta ez du bestearen erantzunik jaso. Harridura izpirik ez bere bisaian. Noizbehinka elkar agurtuko dute, beste batzuetan elkar ikusi edo elkar ezagutuko ez balute bezala jarduten dute, eta gehienetan, ez dira ados jartzen aurreko taktiketako zein erabili. Janirek ez luke sekula pentsatuko horrela agurtuko zuela Intz, ahopeka, xuxurlatuz, isilpean. Argitara irten ezin daitekeen sekretu handi bat da “aio”.

# **Barkamen eske**

Amets Aranguren Arrizabalaga  
Lauaxeta Ikastola  
Amorebieta-Etxano



*Ganbarara igo nintzen; urteak ziren ez nintzela han egon.*

Urteak, bai, lauwpabost, bospasei, zazpi, agian. Nork daki. Kontatzea aspaldi ahaztu zitzaidan.

Bost egun eta gero lehena, zazpi aldi eta gero, bigarrenez, min gutxiago egiten du hala.

GORROTOA bihurtzen da amorrua, eta MINA bihurtzen da zauria. Edo alderantziz zen?

Aurkituko ez nituela nekien erantzun batzuen bila igo nintzen ganbarara. Erantzunak.

Traste zaharrak bertara erbesteratu ondoren, ez nuen atea berriro irekitzeko ausardiarik izan. Koldarra izan naiz askotan. Ausarta ez inoiz.

Oraindik ere ez naiz. Atea erori zen, horregatik igo nintzen. Igo behar izan nuen.

Eta goian motxila gris bat topatu nuen, garairen batean urdina izan zena. Urdina marrazkiekin, gogoratzen? Baina orain hautsak estalita zegoen, sitsek janda, eta asko garbitu

arren, ez zen lehengora itzuli. Motxila barruan paper-zati horixkak topatu nituen. Horiek ez dituzu gogoratuko. Zuretzat ziren, bai, baina ez nizekizun inoiz mahai gainean utzi. Ez nintzen inoiz ausartu. .

Eta ahaztua nuela uste nuen, ganbaran giltzapetuta geratu zela, eta sitsek jango zutela, baina atea erori zen, beti heltzen delako ilunpean dagoena begiratzeko garaia. Inork ikusi nahi ez duelako ikusezina denari aurrez aurre begiratzekoa. Ausardia apur bat erakustekoa. Beti heltzen da. Edo heltzen zait. Eta beste horrenbestetan egiten dut huts. Huts, hutsa, zero. Ezer ez.

*Nola jakin behar nuen ezingo nuela ondorioekin bizi?*  
Inork ez zidan deus esan. Edo bai.

Entzun nahi ez duena baino gorragorik ez dago. Eta hitz hutsez betetzen nituen nik nire belarriak bla bla bla bla, jakina delako soinua ez dela hutsean hedatzen. Negar-zotinek, malkoen erortzeek, erregu isilek eta “*barkatu*” ahulek ezin zuten harresi hura zeharkatu.

Laguntasunaren izenean etsai bilakatu nintzen.

Baina malda eskasa du

areriotasuneranzko bideak,

konturatu ere ez nintzen egin

itzultzten saiatu eta

sabaia jo nuen arte.

*Edo lurra. Nork daki. Hain arraroak dira (i)norabideak.*

“Beno” batekin hasten da guztia, “ez da horrenbesterako”. Ez da, baina beti hobe bestea bada hartzailea. Beti hobe ez bagaitu zipriztintzen.

Baina nola e z naute zipriztinduko zure malkoen itsasoko olatuek,

l

euritakorik gabe, aterkia etxean utzita, a

b

eta gauez nik sortzen badut a

r ertzean

pasatzen badut eguna,

malkoekin laku bat?

Aurkitu nuen azkenean aterkia, eta ahaztu nuen ni nintzela zure euritakoa. Ahaztu nuen mina ematen zidana, eta zu nire laguna zinela. Hala egin behar nuela errepikatu nuen nire baitan, sinetsi nuen arte.

Adreiluzko pareta eraiki nuen, h a r r e s i a, eta kanpoan geratzeko eskatu nizun. Agindu nizun.

“*Barkatu*” esan zenidan. Hain ohituta zeunden barkamen eske belaunikatu beharko litzaizkizukeenei erregutzera, erdipurdiko gizaseme horiek <sup>zapaldua</sup> izatera...

Ez nuen haietako bat izan nahi, benetan. Baina ez dut aitzakiarik.

Ni ere gure malkoek sortutako itsasoan itotzeko zorian egon nintzen, irteteko saiakerarik egin gabe.

Eskua luzatu nahi nizun, tiraka bada ere putzu sakon hartatik ateratzeko, eta besarkada bat eman, zure arnasestua sentitu lepoan, zure bizkar mindu hori laztandu, eta hemen nagoela esan.

Lotzen zintuzten ~~k a t e a k~~ apurtu nahi nituen, preso mantentzen zintuen kaiola *suntsitu*. Labarrean gora eskilara bat eraiki eta itsasargi bat piztu. Su txiki baten beroarekin lehortzen lagundu, eta nire buruari ere aitortu ezin niona kontatu.

Baina itsaslabar baten altuerak banantzen gintuen; zauritan neurtuta bost mila bat izango ziren, segundotan, hiru urte, pausotan, infinitua.

Abiatuta ere, ez nintzen inoiz iritsiko.

Edo hori diot orain, erruak barrenak jan dizkidanean, damuak atzera begiratzen uzten ez didanean.

Barkamen eske nator gaurkoan, ganbarara igo nintzenetik lehenengoz ordu pare bat lo egin ondoren.

Barkamen eske nator aspaldiko traizioagatik, salduta utzi izanagatik, lagunak ginela nahita ahazteagatik.

Barkamen eske nator, baina ezer gutxirako balio du orain, eta gainera ez dakit zer helbidetara bidali. Zure etxearena zen portalera joan nintzen lorik egin ezin nuen gau haietakoren batean,

z e r u r a      b e g i r a      n i n d o a n,

*horrenbeste aldiz korrika igaro  
zenuen kale hartatik, motxila bizkarrean  
zenuela*

lurrera begira zeharkatzen zenuen  
kaletik,

hasieran zure alboan pasatzen nuen kaletik. Lehen bezala zegoen. Berdin-berdin. Bazirudien zuhaitzxoak ere ez zirela hazi, zure zain zeudela. Bizia zuk emango bazenie bezala. Ez ziren horretan bakarrak izango.

Ez dakit zertarako joan nintzen. Ireki zaizkidan zauriak ixteko eskatzera agian, MIN hau gainetik kentzeko, arren. Urte batzuk pasatu eta gero zauriak josteko erabili nuen haria apurtu zaidalako, edo ulertu dudalako zugatik sentitzen nuenak *maite* baino gehiago zekarrela mina.

Baina apurtu den kristala konpontzerik ez dago, ukitutako bakoitzean zatitxoak erortzen dira, eta lurraren kontra *klink* ahul bat egiten dute, edo plop bat agian, malkoen antzera. Jakin nahiko nuke zure zatitxoek zer zarata egiten zuten, edo zer forma zuten, zer kolore, zer usain. Jakin nahiko nuke ea inoiz kaletik zindoazela inor geratu zen jausi zitzaizun zatitxoren bat itzultzeko. Nik izan behar nuen, badakit, baina hasi baino lehen dimititu nuen. Beldurra.

Eta orduan niri ere erortzen zitzaizkidan zatitxoak, ganbarako atea erori zen bezalaxe, eta lurreko arrakaletatik irristatzen ziren, eta ezin nituen berreskuratu, joanak zeuden, zu bezalaxe.

Mesedez, esadazu barkatu didazula, edonork egin dezakeela halako hanka sartzerik.

Mesedez, esadazu ez duzula gorrotorik hor barruan gordeta.

Esadazu orain nik beti esaten nizuna:

*ez da horrenbesterako.*

Edo ez.

Edo esan aurkakoa. Esan arrazoia dudala. Galdetu zertan ari nintzen, zer nuen buruan. Galdetu zer pentsatzen nuen lo egiten saiatzen nintzen bakoitzean.

Esadazu edozer, nahi duzuna, baina zeozer. Zure ahotsa berriro entzun behar dut, zure begietara berriro begiratu. Halabeharrak (hala deitu nahi baitiot) kendu zizkigun irribarreak berreskuratu nahi ditut, berriro garaiezinak garela sentitu, eta mundu handi honi aurrez aurre begiratu, zure alboan.

Baina suposatzen dut hau ere inoiz emango ez dizudan gutun horietakoa izango dela; azkena.

Suposatzen dut oraingoan ere aitzakiaren bat topatuko dudala, “ez dakit zure helbidea” edo “urteak pasa dira”, halako zerbait, eta urdina zen motxilan sartuko dudala hau ere, eta han geratuko dela, halabeharrak beste kolpe bat eman arte.

Ohitura zaharrak.

# **Oroitzapen ohartezinak**

Uxue Davalillo Pardo  
Urbi BHI  
Basauri

Zelako hasiera 1947ko uda hartarako. Ikasturtea amaitu berri nuen; beraz, jada ez nuen Fray Basilioaren mehatxuen menpe egon behar zatiketak nola egiten ziren ikastearren. 10 urteko mutikoa nintzen, oraindik praka laburrekin ibiltzen zena, eta nire buruan egun amaigabeak nituen aurretik kaniketan eta olgetan ibiltzeko lagunekin. Horregatik, nire aitonaren heriotzak eta Galizian egin beharreko ehorzketak nire planak segundu gutxitan hautsi zizkidan. Ez dezala inork txarto ulertu: pena ematen zidan aitona hil izanak, nahiz eta gutxitan egon izan nintzen berarekin distantzia dela eta. Hala ere, nire haurtzaroko mentalitateak ikusten zuen bakarra zen inoiz ikusi ez nituen familiakideekin igaro beharko nituela nire egun libre eta preziatu haietako batzuk.

Ez naiz gogoratzen zein egunetan joan ginen Bilbotik, baina bai San Juan gaua baino lehen izan zela. Horrek asko mindu ninduen, oso gau berezia izateaz aparte, asteak generamatzalako auzoko gazteok sua egiteko materialak biltzen, egur multzo erraldoia osatu genuen arte. Nola ez, etxekoekin eztabaidatzeko beste arrazoi bat izan zen. Dena konpondu zen, ordea, amaren bronka amaigabearekin eta nire osabak gerrikoarekin eman zidan kolpearekin. Aita gerran hil zenean, amaren neba txiki eta ezkongabea arduratu zen familian bere lekua betetzeaz. Bere seme-alabak bagina



bezala tratatzen gintuen arren, gogorra zen gero! Zigorra zela medio, protestarik gabe egin nuen bidaia osoa, hori bai, martir aurpegiarekin eta leihotik paisaia begiratzen nuen bakoitzean hasperen eginez.

Azkenean, ia egun osoa bidaia nekagarri eta bukaezin hartan eman eta gero, aitonaren herrixkara heldu ginen. Lur jota banengoen ere, Galiziako herrixka hura ikustean sentitu nuen agian ez zela hain txarra izango, bereziki aita bertan jaio zela pentsatzeak harekin konexio bitxiren bat izateko itxaropena pizten zidalako. Bizilagunen batekin topo egitean, amak Pardo familiakoak ginela esaten zien eta haiek niri begiratu eta aita bezalakoxea nintzela esaten zuten. Batzuek modu inuzentean zioten, baina beste batzuek begirada arraro bat botatzen zidaten. Hala ere, ni oso lanpetuta nenbilen harriei ostikoak ematen edo geroago igo nintekeen zuhaitzak behatzen.

Gurutzatzen genituen herritar guztiak gurekin hitz egitera gelditzen ziren eta, formula errepikakor horretaz aspertuta nengoela konturatu orduko, aitonaren baserriaren aurrean geunden. Sartu bezain pronto, nire aitaren senide guztiak gugana etorri ziren eta musuz zein besarkadaz josi gintuzten. Afaria baino lehen, nagusiak hitz egiten gelditu ziren. Bai, berriz ere. Orduan, konturatu nintzen izango nuen arazo larriaz: ume bakarra nintzen. Aitaren lehengusina batek bazuen ume jaioberri bat, kitto. Nire arrebak nagusiak ziren eta txirikordak egiten edo jaioberria zaintzen zeuden, eta jada ez zuten jolastu nahi. Nire lehengusuek jada bizarra zuten eta, hasiera batean nirekin txantxetan ibili ziren arren, edaten hasi zirenean, azkar aspertu nintzen haietaz.

Burutazio horiekin nenbilela, norbait niri begira zegoelako sentazioa izan nuen. Buelta eman eta begi urdin izugarri

handi eta argiekin gurutzatu nintzen. Niri adi-adi zeuden eta ez zuten nire gorpuzkeraren xehetasunik galdu. Banekien 45 urte inguru zituela; beste batek, ordea, urte gehiago bota ziezazkiokeen nekea adierazten zuen aurpegi hari. Nahiz eta zimurdura gutxi eta gorputz sendoa izan, bere betzuloek salatu egiten zuten bere egoera latza. Amak aurkeztu egin zidan sartu bezain laster: nire osaba Joaquín zen.

Amak esana zidan gerran senperrenak ikusi zituela eta gai hori ez ateratzeko eskatu zidan. Justu jakin-min gehien pizten zidanari buruz ezin nuen galdetu! Beregan arreta jarri nuela jabetu zenean, hurbiltzeko keinu lehor bat egin zidan Joaquinek. Oharkabean hurbildu nintzaion gonbidatuen artetik, ulertzen ez nuen bulkada misteriotsua zela eta. Lehenengo begirada batean arraroa egin zitzaidan gertutasun batekin agurtu ninduen. Erretzen ari zen zigarroari azken zupada eman, itzali eta bere ondoan esertzera gonbidatu ninduen. Horren ondoren, ziurrenik mahaitik lapurtu zituen oliba batzuk eman zizkidan eta nik, konplizitate-irribarre batekin, eskertu egin nion. Isilean minutu bat igaro ondoren, galdera bat egitera ausartu zen: “Zelan doakizue guztia Bilbon?”.

Nik nire bizitza osoa kontatu nion; eskerrak ez zela oso luzea! Ume bat izanik, batzuetan helduen munduan garrantzirik ez zuten gaietan sakontzen nuen, filtrorik gabe. Berak arretaz eta isilean entzuten zituen ematen nituen zehaztasun guztiak, baita irakurtzen nituen aldizkariak buruzkoak ere. Hala ere, agerikoa zen benetan axola zitzaiona familiako bizitza-maila zela, hau da zer jaten genuen, zenbatean behin eros genezakeen arropa berria, ea zeozer falta zitzaigun, eskolara zenbatetan joaten nintzen... Ume gehienak bezala pixka bat apetatsua banintzen ere, amak betidanik gogorarazi zidan zelako zortea genuen. Bere nebak

administrazioan lan ona zuen eta bera jostun lanetan molda zitekeen. Hortaz, Bilbon ikustea ohikoa zen oinutsik ibiltzen ziren umeek eta eskaleek ez bezala, “denetarik” geneukala esan zitekeen. Horrek osaba lasaitu egin zuen eta afaldu arte nirekin solasean aritu zen, nik bonba baten eztandak eskuan utzitako orbainak laztantzen nizkion bitartean.

Afaria ikaragarria izan zen; izan ere, okela ere jan genuen (luxu bat garai hartarako). Helduen betiko galderei eta lehengusu nagusiek edanda zeudela egiten zituzten txantxei erantzuten nien. Nire begirada, ordea, osabagan iltzatuta neukan, baita berak nigan ere. Konplizitatea zirudiena (hein batean hala zen), benetan zerbait guretzako gorde genuelako ziurtasuna zen. Berak bazekien ez niola nahi beste galdetu eta nik banekien mina egiten zion zerbait kontatu nahi zidala, ziur aski, bizitzeko gogorik gabeko aurpegi horren atzean zegoen istorioa.

Horrela izan zen. Afaldu ostean, herrixkan bizi zirenak haien etxeetara bueltatu ziren eta gu baserrian gelditu ginen, osaba lez. Nik, familiako mutiko bakarra nintzenez, nire logela propioa izango nuen. Txikia, bai, baina nirea. Ama agurtu nuen, goitik begiratu ninduten arreba nagusiei “gabon” esan nien eta logelara abiatu nintzen. Osaba han egongo zela aurreikus nezakeen arren, ezustekoan harrapatu ninduen osabaren presentziak pasilloaren erdian. Ez dakit, agian somatzen nuen kontatu ezin zidan zerbait partekatuko zuela nirekin. Edo agian ez, gauza horietaz konturatzeko ume moko bat nintzen eta. “Zatoz txiki, zerbait erakutsi nahi dizut” bota zidan baxu baina irmo.

Egurrezko eskailera zahar batzuk igo genituen isilpean, inork ez entzuteko eta salatu gintzakeen soinutxorik ez ateratzeko. Ibiltarte luzea ez bazen ere, amaiezina iruditu

zitzaidan. Orduan, pentsatzen hasi nintzen ea ideia ona zen egun hartan bertan ezagutu nuen gizon misteriotsu hari jarraitzea eta zer pentsatuko zukeen amak ikusten baninduen. Azkenean, osabari oso ahul galdetu nion: “Nora goaz?”. Berak samurtasun begirada bat eskaini eta aurrean geneukan atea zabaldu zuen. Sartzera gonbidatu ninduen keinu lasai batez eta, normaltasunez, “hona” erantzun zidan. Kontua izan zen jakiak gordetzeko baino traste zaharrak zituen ganbara zahar batean amaitu genuela.

Osabak gelan barrena egin zuen eta inori atentziorik emango ez liokeen kutxa baten aurrean gelditu zen. Hurbiltzeko beste keinu bat egin zidan, beldurrik ez izateko esateaz aparte. Kutxari begira gelditu nintzen eta hain jarrera hotza izan ohi zuen gizon hark eskuak sorbaldetan jarri zizkidan maitasunez: “Inoiz erakutsi al dizute zure aitaren argazkirik?”.

Erantzuna ondo pentsatu nuen, eta atera nuen ondorioa izan zen ezetz, ez zidatela inoiz erakutsi. Bai, betidanik galdetu izan nion amari nolakoa zen nire aita. Hala ere, hain hautsita ikusten nuen azaltzen zidan bakoitzean, non momenturen batean utzi egin nion galdetzeari. Hortaz, ez nuen inoiz aitaren argazkirik faltan bota. Izan zitekeen ez zitzaizkiola argazkiak gustatzen, edo ez ziotela uzten oso garestia zelako, edo gerran galdu ziren... Ez, ziur nengoen nire inguruko guztiak aitaren zati bat burutik kendu zidatela, nahiz eta bihotzean gordeta izan. Guztiari osabak irribarre ia igartezin batekin erantzuten zion. Garrantzia kendu zion eskuarekin eta nik guztia kontatzen nion bitartean kutxatik hartu zuen papertxo bat erakutsi zidan.

Ezin nuen sinetsi begi aurrean neukana aita zenik. Gizon gazte eta alai zirudien, baita guapoa ere. Nik heredatuko

nuen ile kizkurra zuen, labur moztuta baina nahiko nahasia, baita irribarre pikaro samarra ere. Soldaduskan baino, baserri-inguruan lanean zebilela ikus zitekeen. Azken hori, argazkian haren ondoan zegoen Joaquín gazteak konfirmatu zidan. A zer nolako ezberdintasuna! Begi argi eta sakon haiek berdinak ziren arren, distira berezia igortzen zuten, gaztaroko poztasunaren eraginez ziur aski. Gainera, jarrera arduragabea zuen eta arreta kamaran izan beharrean, aitagan zeukan.

Denbora luzean ezin izan nuen argazkitik begirada aldendu. Osaba niganantz gerturatu zen eta larritasun ia oharkabea gordetzen zuen komentarioa egin zuen:

—Ez dago dudarik, aitaren parekoa zara.

Esan zuenak zeukan bigarren esanahi horretaz konturatu gabe, irribarrea eskaini nion eta, egoeraz liluratuta, hanka sartu nuen. Tonu jostalariarekin galdetu nion ea ez al zegoen aita gerran egon zeneko argazkirik. Bat-batean, osabaren begiradak, ipar haizea bezain hotza, errealitatera hurbildu ninduen berriz.

—Gerrak bizitza zapuztu zigun—bota zuen altuan esandako hausnarketa moduan.

Orduan, nire jarrera guztiz aldatu zen. Burua makurtu nuen eta ahopean barkamena eskatu eta gero, isilik gelditu ginen berriz. Beldurtu egin ninduela ohartuta eskuak sorbaldetan jarri zizkidan berriz, eta eskutik helduta kaxa baterantz eramanez ninduen. Kaxatik medaila moduko bat zuen alkandora marroi zahar bat atera zuen, txapela batekin batera. Ez nuen ulertzen zergatia. Osabak argitu zidan:

—Gerran eraman zuen uniformeak izan zen.

—Hori? Ez dirudi soldadu baten uniformeak! Nire testu liburuetan agertzen direnak berdeak edo urdinak dira, eleganteagoak eta korda gorriko txanoarekin—kommentatu nuen kuriositate moduan.

—Zuk ikusi dituzunak... —hasi zen kontatzen, mina igortzen zuten begi haiek nigana zuzendu baino lehen—.Zuk ikusitakoak ez dira aitak erabilitakoak.

—Zergatik ez?

—Aita ez zelako soldadu arrunta. Bera...gudaria izan zen.

—Gudaria? —irribarre egin nuen ezjakintasunaren aurrean —horrek boteretsua dirudi.

—Ez hainbeste, txiki. Ez, ez hainbeste—hausnartu zuen burumakur.

Azkenean, aspertu zen hainbeste buelta emateaz. Berarekin hitz egitean arruntak ziren geldialdi horietako batean, konturatu nintzen bere barne-borrokaz. Barruko korapiloak ez zion gizon atsekabetu hari egia esaten uzten, baina bazekien noizbait aitortu beharko zidala. Gutxienez ni babesteko ardura zuela sentitzen zuen.

—Ez hainbeste... —jarraitu zuen hirugarren aldiz errepikatuz— zure aitak bere familia eta berea zena defendatzeko arima zuen. Izena eman zuen bertako ejertzito bateratu eta behar bezala antolatuta zegoen bakarrean. Ez zuen uste gerrak gloria ematen zuenik.

Bolondresak ziren guztiak; baina, kosta ahala kosta, mendian erresistentzia egin nahi zuten, beren lurrak inbasiotik babesteko.

Erresistentzia hitza entzun orduko, bihotzean bulkada garratza nabaritu nuen:

—Aita gorria zen?

Ez dakit nondik atera nuen galdera egiteko irmotasuna, ziurrenik momentu hartan sentitu nuen min sentsaziotik. Nola azaldu aita heroia zela uste zuen 10 urteko ume batek momentu hartan pentsatu zuena? Pentsatzeak soilik mina egiten bazidan ere, guztiak zentzua zuen: aitari buruz inoiz ez hitz egiteak, argazkirik ikusi ez izanak, ezezagunek botatzen zizkidaten gorroto begiradak... Propaganda karteletan ikus nezakeen suge gorria nintzela uste zuten, aita bezalakoa izatera kondenatuta nengoela behar bezalako hezkuntzarik jaso ezean. Hortik zetorren helduek nire bihurrikerien aurrean sentitzen zuten beldurra, zainetan nuela uste zuten. Eta nik ez nekien zer pentsatu. Buruarekin urduri ezetz esaten nuela ikusita, osabak besarkatu egin ninduen.

—Zure aitak ez zion politikari kasu handirik egiten, baina “maketoa” izan arren, bazuen euskalduna izatearen nortasuna. Guztiaren gaintetik, ordea, jaiotzear zegoen umea babestea zuen buruan—esan zidan begia kliskatuz—. Berak bazuen bidegabekeriaren kontra borrokatzeko gogo hori, baina ez zela bueltatuko jakin izan balu, ez zen joango bere etxea inbaditzen zutela ikusita ere. Ez beldurragatik, gehiegizko ausardia dela eta hil baitzen, baizik eta jaio aurretik ere, zu zinelako bizitzeko arrazoi nagusia.

—Ni?—galdetu nuen hunkituta—. Baina zergatik borrokatu behar izan zuen kontrako bandoan? Zu Legiokoa zinen, ezta? Zergatik ez zen zurekin joan?

—Ez dakit—xuxurlatu zidan—. Agian, nik ez bezala, arrazoi bat zuelako borrokatzeko. Zuek eta bere herria babesteko determinazioa zuen; sufrimenduak merezi zuela uste zuen. Nik, ordea, ez. Legioak dirua ematen zuen eta kitto. Uste zenuen benetako aberria eta idealak defendatzearren sartu nintzela, ezta? Ba, ez. 18 urterekin dirua behar nuen eta soldaduska egin beharrean Legioan sartu nintzen. Gaztetan nik ere baneukan familia defendatu beharra, baina dena amaitu zen...

—Familia?—galdetu nion entzundakoa sinetsi ezinda.

—Bai, zu baino 2 urte lehenago zure lehengusu zaharra jaio zen, nire semea. Gogoratzen dut, 1934ko martxoaren 6an izan zen. Beno, eta Helena ere bazegoen, noski. Maitatzea labur gelditzen da beragatik sentitzen nuena adierazteko. Gure bizitza osoa imajinatzen nuen, nola izango zen batera zahartzea eta gure txikitxoak hazten ikustea. Gerraren lehenengo urtea pasa zenerako, soilik ni geratzen nintzen. Aurrera jarraitzeko nuen arrazoiak errausak eraman zuen. Gauza bat esango dizut: gerrak gaitza dakar guztiontzat, buruzagia ez bazara. Sufrimenduak eta heriotzak ez du alderdiez ulertzen. Har nazazu adibide moduan, ez dakit nork bota zuen nire bizitza guztia suntsitu zuen bonba, eta ez du axola.

—Zergatik kontatzen didazu?—galdetu nion nahastuta eta pixka bat erronka joz.

—Lehenengo eta behin, errudun sentitzen naizelako — bota zuen, eta nire harridura aurpegia ikusita azaltzen jarraitu zuen—. Zure aita hil zen bataila berean egon nintzen eta...



—Zuk hil zenuen?

—Ez, nola egingo nuen, ba? Baina pentsatzen dut, hein batean, hiltzailea bezain erruduna naizela. Nire presentziak batailan ez zuen pisu handirik izan, baina agian egon izan ez banintz, ez ginen honetaz hitz egiten ariko.

—Agian zeu ere hilda egongo zinen...

—Agian, baina ez zait axola jada —hausnartu zuen begiak horman finkatuz.

— Zuk ez duzu errurik... —lasaitu nuen ahots inuzentearekin.

—Bestalde, ez dut zuri berdina gertatzerik nahi. Zin eginiezadazu ez zarela arazotan sartuko.

—Baina batzuetan hori ezin da saihestu, aitak demostratu zuen lez.

—Benetan ari naiz. Egunen batean hau guztia amets gaiztoa besterik ez da izango eta, denbora asko behar izango badugu ere, itzuliko da askatasuna. Bitartean, ixo, etorkizuna axola bazaizu behintzat.

—Ados, baina egunen batean aita gogoratu ahal izango dut.

—Hori beti, txiki. Memoria bizirik mantentzen da itzaltzen den arte.

# **Katuaren marmarra**

Asier Castro Correa  
Armentia Ikastola  
Vitoria-Gasteiz

Begiak zabaldu nituen. «Zer ordu da?» —galdetu nion nire buruari. «Goizeko zortziak» erlojuaren erantzuna. Ohetik altxatu eta nagiak atera nituen. Alboko ohean nire anaia zegoen. Lo jarraitzen zuen oraindik. Esnatu nahi ez nuenez, zaratarik atera gabe joan nintzen komunera. Ondoren, kaleko arropak jantzi eta sukaldera jaitsi nintzen. Egunero hartzen dudak kafea prestatu eta edan egin nuen, begirada leihoan galduta.

Kanpoko eguraldiak ez zirudien atsegina, baina erosketak egitera irten behar nuen. Hortaz, gosaria bukatu nuenean, giltzak hartu, berokia jantzi eta kalera irten nintzen. Hotz egiten zuen kanpoan, eta zerua lainotuta zegoen. Ez zegoen argi askorik kalean, nahiz eta goizeko bederatziak izan.

Frutategira bidean, espaloian zeuden ur-putzuak saihesten nindoan. Gauean euria egin zuen, antza denez. Begirada lurrean neramanez, ia emakume batekin egin nuen estropezu. Beraz, begirada altxatu eta hiriko paisaia erreparatuz joan nintzen; errepidean zehar zihoazen autoak, hamar edo hamabi pisuko eraikinak, pertsona gutxi batzuk lanera bidean...Oso grisa iruditu zitzaidan guztia.

Azkenean, frutategira heldu eta nire errekaduak egin nituen. Gero, beste denda batzuetatik pasa eta hamarrak

aldean itzuli nintzen etxera. Atarira iristear nintzela, giltzak poltsikotik atera nituen. Sarrailan sartu, biratu eta...

MIAU

Instant batez ikaratu egin nintzen. Atzera begiratu nuen, handik baitzeturren zarata, baina ez nuen ezer ikusi. «Tira, katu bat besterik ez da izan» esanez lasaitu nuen nire burua.

Momentu hartan ez nintzen kezkatu. Azken batean, nor kezkatzen da katu batengatik! Egun horretatik aurrera, ordea, zarata errepikatzen hasi zen. Egunero, erosketak egitetik itzuli eta atea irekitzera nindoala, MIAU!

Hasieran, norbait ni zirikatzen ari zela pentsatu nuen. Horregatik, “probak” egiten hasi nintzen. Egun batean, normalean baino bi ordu beranduago itzuli nintzen etxera. Beste batean, giltza sarrailan sartu nuen baina ez nion bueltarik eman, ate aurrean gelditu nintzen itxaroten. Hala ere, giltzari buelta eman eta atea irekitzera nindoan bakoitzean, katuaren hotsa errepikatzen zen. Azkenean, hainbat hilabeteren ostean, marmarraren atzean norbait zegoelako hipotesia baztertu nuen.

Zarata atek berak egiten zuela ere bururatu zitzaidan. Dena den, oso arraroa zen soilik etxean sartzen nintzenean egitea soinua, eta kalera irteten nintzenean ez. Mila buelta eman nizkion, mila hipotesi bururatu zitzaizkidan. Baina, azkenean, erantzunik lortzen ez nuela ikusita, amore eman nuen. Jada ohituta nengoen katuaren marmar horretara.

Gaur ere zortziak aldera jaiki naiz. Egunero legez, kafea edan dut kikara hustu arte. Gaurkoan ere berokia jantzi dut, hotz baitago kalean. Fruta-dendara abiatu naiz lehenengo.

Haizea zakar dabil, eta esfortzua egin behar izan dut oinez normal ibiltzeko. Halere, horrek ez dit nire pentsamenduetan murgiltzea galarazten. Erosi behar dudana buruz erreparatzen ari naizela, katu batekin gurutzatu naiz. Horrek, egunero entzuten dudan katuaren marmarra ekarri dit gogora. Bi urte pasatu dira lehen aldiz aditu nuenetik, eta jada ez naiz ikaratzen.

Erosketak bukatutakoan, etxera itzuli naiz. Atarian nagoela, giltza sarrailan sartu dut, bira eman diot, eta...

Ezer ez.

«Zer?» harritu naiz. «Ez al da suposatzen miau bat entzun behar dudala?». Ingurura begiratu dut, baina ez dut ezer lekuz kanpo topatu. Atea itxi eta berriro irekitzen saiatu naiz. Zaratarik ez, ordea. Eskumuturrean daramadan erlojuari begiratu diot, goizegi den ikusteko. Hamar eta erdiak dira, betiko antzera. Alde batetik bestera ibiltzen hasi naiz atalondo aurrean, zergatik gertatu den (edo hobe esanda, zergatik gertatu ez den) hausnartzen. Agian, zantzu txar bat izan daiteke, zoritxarren bat gertatuko den seinale.

Horrela aritu naiz minutu batzuk, harik eta bizilagun bat ataritik irten den arte.

— Egun on —esan dit. Segituan utzi diot bueltak emateari.

— Egun on —erantzun diot.

— Zerbait gertatzen zaizu? Giltzak ahaztu zaizkizu?

— Ez, ez. Lasai —ihardetsi diot eta berehala sartu naiz, aurpegi gorritua ikus ez diezadan.

«Ergela dirudizu» pentsatu dut, etxean sartzearekin batera. «Ez naiz zoratuta egongo, ezta? Agian katuaren hotsa nire buruan bakarrik dago... Tira, ez eman buelta gehiago, ez du merezi.»

Sukaldera joan naiz, kalean erosi dudana poltsetatik atera eta gauza bakoitza bere lekuan jartzeko. Ondoren, bazkaria prestatzen hasi naiz. Etxea oso isilik dago. Haizeak leihoetako zirrikituetatik pasatzean egiten duen txistua baino ez da entzuten. Zarata oso desatsegina iruditzen zaidanez, irratia piztea erabaki dut, giroa pixka bat alaitzeko asmoarekin.

Indabak kozinatzen bukatu dudanean, mahaia jarri eta bazkaltzen hasi naiz. Irratia piztuta badago ere, bakardadea astun sentitzen dut airean. Bakarrik pasatzen dut ia egun guztia. Ama hil zenetik, anaia da munduan gelditzen zaidan pertsona bakarra. Dena den, ez dut harekin denbora askorik igarotzen, iluntzean itzultzen baita lanetik.

Indabak bukatu ditut. Mahaia jaso eta etxea pixka bat txukundu dut. Gero, automatikoki, sofan eseri naiz. Telebista piztu dut, ezer interesgarririk topatuko ez dudala badakidan arren. Horrela pasatu ditut arratsaldeko orduak, ia kasurik egiten ez diodan pantaila baten aurrean eserita. Azkenean, aurten hirugarren aldiz *ematera* zihozen pelikula bat hasi denean, itzali egin dut aparatua. Horren orde, egongelako mahaian dagoen liburua hartu dut. *Edgar Allan Poeren ipuinak*. Irakurtzen hasi naiz.

*Erretratu obala, katu beltza, bihotz salataria...* Gutxika-gutxika, leihotik geroz eta argi gutxiago sartzen da. Iluntzen

ari du. Anaiak, honezkero, etxean egon behar luke. Arduratu beharrean irakurtzen jarraitu dut, geroz eta argi gutxiagorekin. Alabaina, irakurtzen dudana hitz bakoitzeko geroz eta urduriago jartzen naiz. Inoiz ez da hain berandu itzultzen. «Zerbait gertatu zaio... ez, ez, laster itzuliko da etxera» esanez lasaitu dut neure burua.

Argia piztu dut irakurtzen jarraitzeko. Ezin naiz kontzentratu, ordea. Sofatik jaiki naiz, afaria prestatzen hasteko. Eta, orduan...

MIAU

Hotzikara batek gorputz osoa zeharkatu dit. Zutik gelditu naiz egongelaren erdian, zer egin ez dakidala. «Zorutzen hasia zaude» ahoskatu dut, baxu. «Zure irudimena izango zen...

MIAU

Ez da posible. Ez da nire irudimena. Soinua goiko solairutik dator. Ez dakit zer egin. Igo beharko nuke?

Azkenean, igotzea erabaki dut. Posible da leihotik katuren bat sartu izana, besterik ez. Eskailerak astiro igo ditut, pauso bakoitza zentzuz emanez. Belarria zorroztu dut, ea zerbait entzuten dudana. Ez da ia ezer entzuten, kanpoko haizea eta egurrezko eskaileraren kirrizka ahula baino ez. Gora heldu naizenean, bihotz taupadak azkartu zaizkit. Logelako ate aurrean paratu naiz momentu batez, nire urduritasuna ulertu gabe. Eskua heldulekuan jarri eta ireki egin dut.

Bertan topatu dut anaia. Lurrean botata. Hilda.

Zer egin jakin gabe gelditu naiz momentu batez. Eta,  
bat-batean

MIAU

Nire atzean entzun dut.



## **PROSA. B maila**

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

**Sara**

Joanes Plazaola Ricondo  
Urretxu-Zumarraga Ikastola  
Urretxu

## Paris, 1925

Ohiko moduan, goiza *La Jonquille* okindegian hasi nuen, gosaltzen nuen bitartean egunkaria irakurtzen: “Le voleur d’enfants frappe encore”<sup>1</sup>, zioen lerroburuak. Ume ebaslearen aferak lanez lepo gintuen polizia-etxean, eta hedabideen sensazionalismoa nazkagarria iruditzen zitzaidan.

Egia zen gai hura oso mamitsua zela; izan ere, Sylvie LaSalle gauetz desagertu zen, bere etxean, gurasoak eta zerbitzariak lo zeudela. Horixe bera gertatu zen 4 urte aurretik, konpongaitza izan zen Dupont kasuarekin. Kasu hartan, Brigitte txikia ere arrastorik gabe desagertu zen. Litekeena da hilketa kasu bat izana, aste batzuk geroago umetxoaren hainbat jantzi odolez estalita topatu baitzituzten familiaren txaletetik gertu.

Aitzitik, hauek horiek ez ziren lotura bakarrak: biak Pariseko familia aberats eta ezagunen alabak ziren, Gerra Handian izugarri dirutsu bihurtu ziren arma saltzaileen ondorengoak.

---

1 “Ume ebasleak berriro ere egin du eraso”

Polizia-etxera joan nintzen azkar batean, eta sartzean, zur eta lur utzi ninduen mezu bat jaso nuen:

—Etchegaray, zatoz! Eginkizun oso garrantzitsua daukagu zuretzat! —egin zidan oihu LeMaire komisarioak.  
—Sylvie LaSalleren aferari buruzko gutun bat jaso dugu. Bilera bat egitea proposatzen dute, Sylvie txikia 2.500 frankoren truke askatzeko. Gainera, zu zeu joatea eskatzen dute espresuki.

—Nolatan nahi dute ni joatea? Nire izena agertzen al da?  
—ihardetsi nuen, nahastuta.

—Ez, baina euskaldunaz galdetzen dute. Ikusten al duzu zure herrikiderik hemen, Etchegaray?

—Ez, *monsieur le commissaire* —erantzun nuen, zegokidan betebeharraz konturatzean.

—Tira, zer diozu?

—Non elkartzea proposatzen du ebasleak?

—*Dussoubs* kalean bildu nahi du, arratsaldeko bostetan.

—Kale zikin hartan?— esan nuen, karrikaren ospea gogoratzean—. Soldata igoera bat mereziko dut hau eta gero!

—Dena ondo badoa, ikusiko dugu. Gogoratu Sylvie txikiaren aurpegiko marka, litekeena baita urdangaren batek sasikume batekin engainatu nahi izatea.

Polizia-etxetik Dussoubs kalera ordu erdi inguru zegoen oinez. Kale hura ezaguna zen, eta ez zuen batere izen onik prostituzioarekin lotuta zegoelako. Plana sinplea zen: zaku

batean neramatzan 2.500 frankoak eman eta umea ondo zegoela egiaztatu ondoren, polizia-etxera itzuli.

Egin beharrekoa garbi nuela, kale lohi hartan sartu nintzen, eta segituan aurpegia estalita zuen neska gazte bat ikusi nuen. Ume txiki bat zuen eskuetan, eta aurpegian zeukan marka begiratu ondoren, Sylvie LaSalle zela baieztatu nuen.

Zakua ematean, une batez —ez zen kliskada batek baino luzeagoa izan— begirada gurutzatu nuen emakumearekin. Begi urdin haietan ezaguna zitzaidan zerbait ikusi nuen, arrazoa ulergaitza bazitzaidan ere.

—À *bientôt*<sup>2</sup>— xuxurlatu zidan, jendetzaren artean desagertu baino lehen.

Azkar batean itzuli nintzen polizia-etxera. Beldur nintzen ea txikia gehiegi hoztuko zen. Aurpegia tapakiarekin hobeto estaltzen saiatzean, paper zati txiki bat aurkitu nuen. Irakurri ondoren, poltsikoan gorde eta nire bidean jarraitu nuen. Orduan ulertu nuen zergatik esan zidan *laster arte* neska misteriotsu hark.

Iristean, LeMaire komisarioari eman nion umea, eta etxera joan nintzen. Bidean, umearen mantan aurkitutako oharra irakurri nuen berriro ere:

*Tu t'en rappelles?*

---

2 “Laster arte”

*Reviens, 21:00*<sup>3</sup>

Orduan bai, gogoratu nuen. Gogora etorri zitzaidan neska hura nor zen; topatu nuen, azkenean, begi urdin liluragarri haien jabea.

Etxera iristean, zuzenean nire ohean etzan nintzen, lasaitzeko lo-kuluxka baten beharrean nengoelako. Pisu kideari zortzietan esnatzeko eskatu nion, eta atoan lo hartu nuen. Ordua iristean, Arnaud nire gelan sartu eta oihu eginez iratzarri ninduen. Instant batez, Colmarren sentitu nintzen, gauean etsaiaren erasoek esnarazten gintuztenean bezala.

Segituan abiatu nintzen, eta *Dussoubs* kalera iristerako, begi urdineko neska jada han zegoen. Ez zeraman aurpegia estalita, eta berehala ezagutu ninduen:

—Kaixo, Jean. Gogoratzen al nauzu?

## **Colmar, 1918**

Azkenean, amaitu zen. Urtebeteko amesgaiztoaren ondoren, libre nintzen behingoz. Bukatu zen, azkenean, nirea ez zen herrialde baten alde bizitza arriskatzea, oraindik erabat ulertzen ez nuen hizkuntza batean etengabe aginduak jasotzea, inoiz ahantziko ez nituen basakeriak ikustea.

Halere, bazegoen egun haiek erabat pairaezinak izatea eragotzi zuen zerbait: Anja. Neska harengatik izan ez balitz, arma hartu eta nire buruaz beste egingo nukeen, beste askok bezala.

---

3 “Gogoratzen al duzu?  
It zuli, 21:00”

Alabaina, jada ez zuen zentzurik han gehiago geratzeak. Anjari esan behar nion Parisera, aukera berrien hirira, joan nahi nuela. Hortaz, betirako agurtu behar nuen. Bere aitaren farmaziara gerturatzea erabaki nuen, berarekin hitz egiteko:

—Egun on, Anja. Zurekin hitz egin behar dut— esan nion. Ikusi ninduenean, aurpegia erabat zuritu zitzaion.

—Kaixo, Jean. Nik ere badut zuri esateko zerbait.

—Kontua da gerra amaitu denez, jada ez duela zentzurik hemen egoteak.

—Sarara itzuli nahi al duzu? — galdetu zidan larriturik.

—Ez, Anja. Parisera joatea gustatuko litzaidake. Bizitza berri bat hasi nahi dut, ez atzera itzuli. Aukera berriak behar ditut, hau guztia ahazteko.

—Ahaztu egin nahi al nauzu?

—Inola ere ez, Anja. Ez dago zu ahazterik— erantzun nuen, eta berak ezer esan aurretik, musu eman nion.

—Zer esan behar zenidan?— galdetu nion muxua eta gero.

—Ez du axola— ihardetsi zidan, farmaziara sartu baino lehen. Inoiz ez nuen berriro ikusiko, edo hala pentsatzen nuen.

## **Paris, 1925**

—Kontua da haurdun nengoela, baina zuk joan egin nahi zenuenez, ezer ez esatea erabaki nuen— esan zidan—. Erditu ondoren, Parisera etorri nintzen, egunen batean zu aurkitzeko

itxaropenez. *Moulin Rouge* kabaretean hasi nintzen lanean, dantzari. HanJulienne ezagutu nuen, eta oso lagun handiak egin ginen.

Nik isilik entzuten jarraitzen nuen, aita nintzela sinetsi ezinda. Halere, oraindik bazeuden ulergaitzak zitzaizkidan kontu asko, biziki larritzen nindutenak.

—Kabareteko lehenengo ilaretan Pariseko jenderik dotoreenak izan ohi ziren beti. Egun batean, Émile eta Amélie Dupont etorri ziren, Dupont arma-fabrikaren jabeen oinordekoak. Gure Sara txikiak ihes egin zuen aldagelatik, eta une batez eszenatokian azaldu zen.

“Nagusiak izugarrizko errieta eman zidan, eta antzerkiaren amaieran kamerinora itzultzean, Sara jada ez zegoen han. Ez nekien zer gertatzen zen, eta hilabeteak pasa nituen auzoan zehar Sararen bila. Denbora igaro ahala, itxaropena galdu nuen. Depresioan erori nintzen, eta *Moulin Rouge*-etik kaleratu ninduten.”

“Azkenean, kale honetan amaitu nuen. Hilabete batzuen ondoren, aldizkari batean irakurri nuen Dupontarrek alaba bat izan zutela: Brigitte. Segituan ezagutu nuen, Sara baitzen zalantzarik gabe.”

“Orduan, dena ulertu nuen. Zurrumurru bat zebilen aspalditik Émile Duponti buruz: antzua omen zen. Umerik eduki ezinda zebiltzanez, lapurtzea erabaki zuten. Segur aski, kabaretaren jabeari diru-sorta ona emango zioten, ni dantzan ari nintzen bitartean umea hartzeagatik.”

“Sara berreskuratzeko plan bat egin nuen, eta beraien *txaletean* sartu nintzen. Umea negarrez hastean, dena



pikutara bidaliko zuela pentsatu nuen, baina zerbait otu zitzaidan: *Moulin Rouge*-en nirekin zegoenean abesten nion kanta belarrira xuxurlatu nion, zuk erakutsi zenidan hura: *Haurtxo txikia negarrez dago*... Aste batzuen buruan, jantzita zeramatzan arropa guztiak erantzi eta txerri odoletan zikindu ondoren, *txaleteko* belardian utzi nituen.”

“Duela 2 hilabete Julieneren bisita jaso nuen. Alaba bat izan zuen aurreko urtean, eta desagertu egin zen Sararen modu berdinean. Sara nirekin zegoela ikustean, arren eskatu zidan bere alaba txikia ere salbatzeko. Esan zidan bazekiela LaSalletarrek bahitu zutela, nik bezala egunkari batean bere alaba familia horren argazki batean ikusi zuelako.”

“Julienne oso gaixo zegoen sifilia baitzuen. Bere alaba egun batez baino ezin izan zuen ikusi. Ondoren konortea galdu eta egun batzuen buruan hil egin zen. Orduan, polizia-etxera gerturatu nintzen, Sylvie eskuetan nuela. Nire asmoa umea izkina batean uztea zen, poliziaren batek jaso zezan. Txikiak ere sifilia dauka, eta LaSalletarrekin behintzat medikuen arreta jasoko zuen. Baina zu ikusi zintudan.”

“Beti nahi izan dut berriro ere hirurok batzea, eta orduan plan hau otu zitzaidan. Dirua eskatu nuen Sylvieren truke, hirurok ihes egin genezan. Gainera, zu etortzea eskatu nuen, zurekin biltzeko.”

—Ikusi nahi al duzu? —galdetu zidan bat-batean—. Gelatxo txiki batean egiten dugu lo.

Ez nuen erantzuteko denborarik izan, Anja ziztu bizian korrika hasi zen eta. Jarraitu egin nion eta burdel baten gainean kokatuta zegoen ostatu ziztrin batean sartu nintzen. Gelatxo batean —ez zen espetxeko zelda bat baino askoz

handiagoa izango— sartu, eta bertan ikusi nuen Sara, ene alaba.

Behin huts egin nion, eta ez nuen inoiz gehiago gertatzerik nahi. Paristik urrun egingo genuen ihes, Sarara. Gerra handia eta gero, etxe ugari hutsik zeuden, eta baten bat berritu eta bertan lasai bizitzeko aukera izango genuen.

Sara lotan ikustean, Anjak eta biok elkarri begiratu genion, eta sehaska kanta hura kantatzen hasi ginen:

*... Eskerrak zuri, lore polita*

*Alaitzen dezu etxia...*

# **Hil da rock erradikala**

Irati Gallastegui Molero  
Txintxirri Ikastola  
Elorrio

*“Hil da rock erradikala  
ta gu hemen geratu gara  
ergel ta pijoz inguratuta”*

### **Gili, Rotten XIII**

Denbora kontua zen. Denok genekien azkenean gertatuko zela, eta egia esan beti bizi izan ginen mugan.. Bagenekien edozein momentutan dena lehertu zitekeela. Ekaitzaren osteko bakea etorri behar, askatasunaren osteko kateak, zarataren osteko isiltasuna.

Lehen ez zegoen erresistentziarik. Denok ginen erresistentzia. Bakoitza bere erara, baina gehienok antzera. Orain erresistentziak behar dira, borrokatzeko gogoa dutenak; baina, benetan, hitzetatik haratago.

Horrela jarraitzen dut nik; bizirauten.

### **Nola aldatzen diren gauzak, kamarada**

—Hara, aspaldiko, motel! Orain dela zenbat ez duzula ordutxo bat niretzat gordetzen?

—Benetan sentitzen dut Manu, oso lanpetuta ibili naiz. Badakizu, ikasketak, lana...

—Bai, bai, parrandak, neskak... ez duzu esan beharrik. Tira, eser zaitez. Kafea prestatuko dut.

Beti bezala irribarre bat ateratzen dio, eta ohiko egurrezko eserlekuan esertzen da.

Manu eskuan bi katilurekin etortzen denean bat hartu eta, astean lehen aldiz, lasaitu egiten da. Zaharrak soberan igartzen dio, baina ez dio ezer esango. Esana dio behin baino gehiagotan eta ez du ezertarako balio.

Denbora asko pasatu da, eta inork ez daki oso ondo zabalik edo itxita dagoen kale izkinan kartel erdi jausia duen denda.

—Gehiagotan etorri behar duzu, Aritz.

—Badakit, baina...

Isiltasuna.

Zer esan, izan nahi ez duen norbaiten itxura hartzen ari dela? Gehiegi inporta zaio besteen iritzia.

—Ez, arrazoi duzu, gehiagotan etorri beharko nuke. Baina utz dezagun hori alde batera. Ba al duzu entzuteko ezer berririk? Beno, ulertzen nauzu.

Biek irribarre egin dute, eta segituan geratzen dira atzean bata bestearen berri izan gabe pasatako aste horiek guztiak.

## Gazte bat drogaz hiltzen da

—Gogoratzen Eskorbuto?

—“Los anti-todo”? Bai horixe. Ba, atzo bertan beraien kasete zahar bat aurkitu nuen etxeko ganbaran. Martxan jartzen saiatu nintzen eta miraria izan zen; hainbeste buelta eman ostean, ez dakit nola jarraitzen duen bizirik.

Disko-dendako biltegian sartzen dira. 6 m<sup>2</sup>-ko gela txiki-txiki bat da, are txikiagoa disko, kasete eta CDek betetzen dituzten apalak kontuan hartzen baditugu. Manu zuzenean lurrean dagoen plastikozko poltsa batera joaten da; makurtu eta, une batez barruan begira ibili ostean, kasete kaxa zaharkitu bat ateratzen du. Aritzek ezin du marrazkia zer den ulertu, kolore ausentziak oztopatzen dio, baina letra gorritz idatzitako hitza irakurtzea lortzen du.

—“Kalaña, Eskorbuto”. Benetan oraindik badabilela? Nire aititaren garaikoa ematen du...

—Hala da, mutil! Oraindik ez al duzu ulertu denda honen helburua? Gaur egungo trap zikina ahaztu eta iraganera bidaiatzeko da denda hau, kaka zaharra! Ni bezala gizarte honetaz aspertuta daudenentzat, gutxieneko kontzientzia bat dutenentzat...

—Bai, bai, badakit, barkatu. Eramango dut etxera eta botako diot entzunalditxo bat.

Dendariak irribarre egiten du. Beti bezala nahi duena lortu du, nahiz eta Aritzek gustora entzungo duela badakien. Baina ez du oraindik amaitu.

—Ba al dakizu nor zen Eskorbutoko abeslaria?

Gaztea unetxo batez pentsakor geratzen da, erantzuna gogoratu nahi izango balu bezala.

—Ez, ideiarik ere ez –errenditzen da azkenean.

—Iosu Exposito, Santurtzikoa. Tipo ona, oso-oso aspaldi elkarrekin ibiltzen ginen. Baina drogek bizitza zapuztu zioten, ez zuen kontrolatzen jakin. Bere bizitza zaborretara bota zuen zorientasuna ekartzen ez duen gauza batekin.

Aritzek berehala harrapatzen du gaia.

—Orain desberdina da, ez da hainbeste ikusten kalean, ez begi bistan behintzat. Lehen ordea, izkina guztietan zeuden: xiringak partekatzen zituzten, diru guztia uzten zuten horretan, familiei lapurtzen zieten... Oso gogorra zen ikustea, baina zeharo zaila ezetz esatea. Desberdina izan behar zenuen. Gutxi ziren garai hartan behintzat probatu ez zutenak. Eta alkoholarekin zer esanik ez. Zenbat soldata utzi genituen barran!

Manuk irribarre egiten du, gaztaroko oroitzapenetan galduta. Gaztea isilik geratzen da, istorioaren jarraipenaren esperoan.

—Hala ere, ezin dira guztiz konparatu, jonki haiek kontsumitzen zutenak ez du izenik. Beldurra ematen zuten beraien aurpegiek diru eske hurbiltzen zitzaizkizunean. Gutako zenbat geratu ziren urte haietan. Eta gutako zenbatek jarraitu duten aurrera burua jiratuta. Ez, ez zenuen hil beharrik, baina zerbaitek *klik* eginez gero, ez zegoen atzera bueltarik.

Bien bitartean, mutila buruarekin baietz eginez ibili da, dena ulertu duela adierazteko.

—Beraz, Aritz, ez dizut betiko hitzalditxo bota nahi, “drogak txarrak dira, ez hartu eta bla, bla, bla”, baina benetan bizi izan dugun gauza bat da, eta kriston putakeria da. Kriston putakeria da lagunak zo ratzen eta musikariak zurbiltzen ikustea. Zeren diskoa entzungo duzu eta pentsatuko duzu “Joder, super ona da, hauek aurrera jarraitzeko gai ziren!”, baina ez.

Gazteak eskuan duen kasete zaharra laztantzen du, erlikia preziatu bat izango balitz bezala.

—Entzungo dut. Entzungo dut esan didazun horretan pentsatuz. Agian gauzak hobeto baloratzen ikasiko dut.

Zaharrak buruaz baietz egiten du, mentalitate gazte batengan eragin duelako pozik.

### **Egin ezazu behar duzuna**

Beste hiru gazterekin batera alokatua duen pisura heldu bezain laster jartzen du kasetea martxan. Pisukideetako bat ere ez da etxean, eta hasieran duda egiten du kasetea martxan jarri edo zuzenean Spotifyn entzun. Norbait sartu eta tramankulu horrekin ikusten badu... Baina ez, nahikoa huts egin dio Manuri.

Mesanotxeko kajoian dauka aitak utzi zion erreproduzitzaila, disko-dendaria hainbeste tematu eta gero eskatu behar izan ziona. Txikia zen orduan, ez zen ezberdintasunaren beldur. Aita, inoiz oso musikazalea izan gabea, txunditu



egin zuen semearen eskakizunak, baina egongelako kaxei hautsa kendu eta oparitu egin zion.

—Zertarako behar duzu?

—Ez dut behar, nahi dut.

Erantzunak oraindik gehiago harritu zuen aita.

—Noiztik dakizu zuk kasete bat zer den?

—E, hain tontoa ez naiz. Gainera, amak piloa zituen.

Aitak semea mindu zuen bezala mindu zuen semeak aita. Amaren aipamen hutsak mintzen zuen egun haietan, eta umeak ondo zekien hori.

—Baten bat utzi zuen? Hala denak eraman zituen? Zer eraman zuen amak, aita? Eta zer utzi zuen? Baduzu oraindik bere ezer? Nik ikusi egin nahi dut!

Txikia zen, bai, baina soberan zekizkien erantzun guztiak. Amak ez zuen deus ere utzi. Egun hartan aitak ez zion berba gehiago egin. Eta biharamunean ez zion begietara begiratu ere egin.

Horrelakoa zen aita, pentsatzen du bizpahiru akorde arinek belarriak estaltzen dizkiotelarik. Horrelakoa zen behintzat ama joan zenetik. Inoiz guztiz gainditu ez duela sumatu izan du beti Aritzek, eta horregatik isildu izan dela gai bat gustatu izan ez zaion bakoitzean. Eta horregatik alde egin zuen berak etxetik ahal bezain laster, aitagandik urruntzeko.

Amak beti esaten zion desberdina izateko. Berez denok garelako desberdinak eta jendea rol batean sartzen dela begira ez dezaten.

“Ez egin kasurik, zuk zurearekin jarraitu”.

Zenbat aldiz oroitu den amesgaiztoak desagertzen ziren gau horietako esaldi horietaz, zenbat aldiz egin nahi izan dion kasu eta zenbat aldiz utzi dituen alde batera.

Ondo dago diskoa, baina ez dio gauza handirik esaten. Beste garai batekoa delako agian, makarregia... Ez du, egia esan, inoiz jakin zein den bere musika estiloa: beti ibili da hemendik hara, handik hona, eta bidean aurkitzen duena probatzen. Izan ditu ska garaiak, punkekoak, rock & rollekoak, jazzekoak, popekoak. Denetik. Kantu zerrenda luze bat du, 50 ordu ingurukoa, eta bertan biltzen ditu bizitza osoan bidelagun izan dituen kantuak.

Inguruak ere baldintzatu dio dena. Beti ez da bere musika propioa entzuteko gai sentitu, eta ingurukoek ezarritako presiopean entzun izan ditu kaka hutsa iruditzen zitzaizkion artistak. Gero eta askeago sentitzen da zentzu horretan, baina badira oraindik deserosoak egiten zaizkion egoerak.

—Aritz! Iluntzean poteoan irtetekoak gara, animatuko zara?

Segituan aurikularrak kendu eta atean dagoen neska altuari begira geratzen zaio.

—Ba, gustatuko litzaidake Kattalin, baina lana daukat.

—Zer diozu? Kafetegian?

—Bai, eta berandu arte geratu beharko dut.

Lagunak sorbaldak altxatzen ditu.

—Ados. Ba, hurrengo batean.

Atea itxi eta berriz bakarrik uzten du mutila. Aurikularretatik irteten diren uhinak belarrietara heltzen zaizkio, baina ez du berriz musikan barneratzeko gogorik. Aspaldiko partez, nahiago du isiltasuna.

19:00etan amaitzen du lana, baina ez du irteteko gogorik. Disko-dendara joango da bestela, eta Manuri esango dio kaseteak ez diola ezer esan eta ez zaiola asko axola abeslaria hil izana.

*Ring rinnng...*

### **Nork ez du maite askatasuna**

—Zenbat da?

—Zenbat emateko prest zaude zu?

Beti bezala, harridura aurpegia.

—Ez al du prezio jakin bat?

—Ez, egia esan ez.

Eroslea pentsakor geratzen da, eta azkenean 50eko bat uzten du erakusmahaiian.

—Mila esker, hurrengo arte!

Hasperen.

Bat gehiago.

Bat gutxiago.

Manu eserlekutik altxatu eta disko-jogailura hurbiltzen da, *Cicatriz* taldearen diskoari buelta emateko. Batzuetan alde egiteko gogoia du, baina ez daki nora. Dendatik ibiltzen da, pausuak musikaren erritmora emanez. Aitonarena zen, eta txikitatik pasatu ditu arratsaldeak binilo eta kaseteak etengabe entzuten. Aldatzeko garaia iritsi ote da? Ez al dira 64 urte nahikoa?

*Pop, rock, punk, reggae, ska, jazz, eta metal*, karteltxoek banatzen dituzte denda guztian zehar dauden kartoizko kaxak. Disko-denda beti izan da erosoan sentitu den lekua, baina azken asteotan dena beste ikuspuntu batetik ikusten du.

Zer ari zaio gertatzen? Zergatik sentitzen du bat-batean askatasun grina? Zer askatasun mota da? Ez al da musika izan beti bere askatasuna? Baina betikoa aldatu egiten da, ezta? ...*Lola, ¿por qué estás sola?*

*La gente le critica...*

Zer gertatuko litzateke denda utziko balu? Azken finean jubilatzeke adina du, pentsioa kobratu lezake. Hasieran, aitonak denda testamentuan utzi zionean, beragatik ez ezik bezeroengatik ere jarraitu zuen komertzioarekin, baina urteekin konturatu da hiritar nagiek nahiago dutela Internet bidez erosi eta horrela denbora, energia eta, batez ere, dirua aurreztu.

Errealitate bortitz eta ustela iruditu zitzaion, eta orduan ulertu zuen bere lanak ez zuela ezertarako balio eta egiten bazuen bere buruari atsegin emateko besterik ez zela.

Beraz, ondorio bakar gisa: “desagertzen banaiz inork ez du nire falta somatuko”.

Aritzengan pentsatzen du orduan. Nola eman duen hiruhilabeteko oso bat dendatik agertu barik. Neurri batean normala iruditzen zaio eta ulertzekoa da: 21 urte bete berri ditu eta badu disko-denda zahar batera joatea baino egiteko hoberik, nahiago du bere adineko gazteekin egon gizon zahar batekin baino. “Jada ez da ume bat” esan dio bere buruari askotan Manuk.

*...pero a ella le da igual*

*Lola, ¿por qué estás sola?...*

Orduan zer? Denda utzi eta Mexikora bizitzera joan?

### **Bizi nahi dut, ahal baldin bada**

—Zelan zabilta Bilbotik? Dena ondo? Pisukide atseginak dituzu? Zaila al da unibertsitatea?

Dei asko espero zitzakeen Aritzek egunean zehar, baina ez hori. Askotan amaren deiak jasotzen dituela imajinatzen du. Unibertsitateko kontuak kontatuko lizkioke, kafetegiko lana, zein handia den Bilbo eta zenbat jende biltzen den goizetan metroan.

Baina ez. Horren ordeztu, aitarekin hitz egin behar.

—Ondo, ondo.

Azken urteotan hain ohikoa bihurtu den isiltasun deserosoa sortzen da berriz.

—Aita, zer nahi duzu? Zergatik deitzen duzu hain bat-batean? Argi dago distantziak bioi mesede egin digula, ez dago telefono deirik egin beharrik.

—Ba zuretzat izango da mesedegarri, ez baitakit nola bete hemen utzi duzun isiltasuna.

Faltan botatzen dira zure diskoak eta biniloak, zure gitarra entseguak.

—Jada ez dut gitarra jotzen, aita. Hori aspaldi geratu zen atzean.

Gizonak ez daki nola erantzun semeari, eta berriz ere isilik geratzen da.

—Noiztik hitz egiten duzu hainbeste? Poesia irakurtzen hasi zara edo zer?

—Ba bai, poesiarekin hasi naiz. Hilean behin joaten naiz irakurketa klubera. Han jende berria ezagutu dut. Aurrekoan denok zerbait hartzera joan ginen herriko tabernara.

—Bale aita, pozten naiz, baina onartu behingoz: zugandik urrundu nahi nuen. Orain ondo nago, etxetik urrun.

—Zer nahi duzu, inoiz gehiago ez hitz egitea eta gu biok ezezagun bihurtzea?

Oihuka bota du azken esaldi hori, eta Aritz apur bat beldurtzen da.

—Denboraldi batez, bai.

Boga-boga, horrela da bizitza

Bai, horrelakoa da bizitza, pertsonak sortu eta desagertu, urrundu eta gerturatu egiten dira.

Manu Mexikoko kostaldera joan zen bizitzera azkenean, aurreztuta zuen dirua bankutik atera ostean. Bertan da geroztik, ez da oraindik bisitan etorri eta ez du horretarako asmorik. Zoriontsu da, hori zer den guztiz ondo ez dakien arren.

Aritz, berriz, bere bidea egiten ari da. Eskua emanda egin zituen bizitzako bi hamarkada, eta independente bihurtzen hasteko unea iritsi zitzaion. Manuk, aitik zein amak zer dagoen erakutsi zioten, eta orain berari dagokio hautu propioak egitea.

Noizean behin, Manu teknologia berriak pazientziaz hartzeko prest esnatzen denean batez ere, bideodeia egiten dute biek. Gazteak kontatu ohi dio disko-denda zaharreko negozio berria nola doan: kuadrillako batek alokatu zuen beti jarri nahi izan zuen liburu denda zabaltzeko. “Ez du galdu lehen zuen esentzia, oraindik zu bertan egon zaitezkeela dirudi” esaten dio. “Hori ona da, gogotsu zatozte gazteok” erantzuten dio. “Badator erresistentzia”.

# **Yamila**

Mara Albistur Gurrutxaga  
Orereta Ikastola  
Errenteria



Bonba batek iratzarri du. Eztandak, ordea, espero ez zituen galderak xuxurlatu dizkio: nor naiz ni? Non nago? Zergatik? Ez naiz ezertaz gogoratzen. Zer egingo dut?

Horrela hasi da dena, galdera asko ditu buruan. Ez daki nor den. Oso arraro sentitzen da neska gazte hau. Galdera horien erantzuna bilatzen ari den bitartean, bere alboan mediku bat agertu da:

—Kaixo! Galdera guztiak ezingo dizkizut erantzun, baina baten bat bai —erantzun dio eskutik helduta lasai zedin.

—Non nago?

—Gazan zaude. Gerraren erdian...

—Eta zer egiten dut hemen? Eta are galdera garrantzitsuagoa. Nor naiz ni?

—Hori ez dakit.

—Nola iritsi naiz hona? Eta, eta...

—Lasai zaitetz. Gaur bonbardaketa bat egon da. Han zauritutakoekin etorri zara eta, antza denez, oroimena galdu duzu.

—Ez da posible! Nola itzuliko naiz etxera?

—Pausoz pauso joango gara. Lehenik osatu eta, gero nahi baduzu, hobeto zaudenean, lagun diezadakezu hemen. Gainera, nire etxera etor zintezke bizitzera.

Gure neska gaztea, una batez, mutu geratu da, zur eta lur, ezin erantzun. Dena zaio arrotz, bere burua ere bai. Baina ezjakintasun horri irtenbidea bilatzea erabaki du:

—Nor zara?

—Bushra naiz, 28 urte ditut eta izugarri gustatzen zait behar dutenei laguntzea. Gerra hasi baino lehen, haur, gazte eta ez hain gazteei klaseak ematen nizkien —esan dio ezteki, bien arteko harremana ehundu nahian.

—Pozten naiz zu ezagutzeaz. Nik nire berri eman nahi nizuke —erantzun dio negar-zotinka.

Bushrarekin hitz egin ondoren, ospitalean buelta bat ematera joan da eta, ingurua behatzeaz gain, jendea ezagutu du. Halako batean, anbulantzien soinua eta jendearen oihuak besterik ez ditu entzuten. Bat-batean, egoera hori oso ezaguna egin zaio, *déjà vu*-a balitz bezala.

Hala, bere senari kasu eginez, anbulantzien ingurura gerturatu da eta, urteetako esperientzia izango balu bezala, laguntzen hasi da.

Sei bat ordu igaro dira azken anbulantzia iritsi denetik eta gaztea deskantsu beharrean dago. Bushrarekin elkartu da. Alabaina, Bushra ez dago bakarrik:

—Kaixo, Bushra! Nor da neskatila hau?

—Kaixo. Hau Amira duzu. 16 urte ditu.

—Kaixo, Amira! Nik oroimena galdu dut. Ez dut nire benetako izena gogoratzen. Izen bat jarriko zenidake?

—Ados! Utzi pentsatzen... Badakit! Yamila, nire amaren izena zen —esan dio, begiak diz-diz dituela.

—Asko gustatzen zait izena! Asko sentitzen dut zure amarena. Ohore bat izango da bere izena nire egitea.

Hirurak hitz egiten aritu dira, beste bonbardaketa baten abisua jaso duten arte.

Horrela igaro dute gaua: sirena hotsen abisua, bonben burrunba, amaiera gabeko lan orduak, zeinetan jendearen garrasiak izugarriak diren. Baina, azkenik, atsedean apur bat. Ohartzerako, ordea, hegazkinen orroak berpiztu dira. Hauxe izan da lehen gaua. Esperantza bakarra goiza lasaiagoa izatea (eta lo apur bat egin ahal izatea) da.

Hurrengo goizean, hainbat boluntario iritsi dira ospitalera. Horregatik, Bushra, Amira eta Yamila, Bushraren etxera joan dira. Bidean, Amirak kontatu die etxe gabe gelditu dela bonbardaketen ondorioz. Bushrak, apalki, bere etxea eskaini dio. Bertan beti ongi etorria izango dela azpimarratu dio.

Busharen etxera iritsi direnean, bakoitzaren oheak atondu eta lo egiten saiatu dira. Lo hartu eta apur batera, beste behin ere, enegarren bonbardaketak iratzarri ditu hiru neskak:

—Beste bat ez! Berriro ez! —hasi da oihukatzen Amira, negarrari ezin eutsi eta erabat etsita.

—Lasai, Amira, dena ongi aterako da —esan dio Bushrak erabat beldurtuta.

—Ezin naiz etxean gelditu! Kalera aterako naiz laguntzera! —esan du Yamilak amorruez.

—Gu ere bagoaz. Herrikideek behar gaituzte! —esan dio Amirak ausart.

Horrela, hiru neskatilak kalera atera dira lanerako prest, beldur izan arren.

Halako batean, tiroak entzun dira eta auto artetik neska gazte baten burua ikusi dute. Bertara hurbildu eta odolusten ari dela ohartu dira. Birritan pentsatu gabe, tornikete bat egin diote eta ospitalera eraman dute. Bertan, odoljarioa etetea lortu dute, baina neskak kordea galdu du.

Gaua iristean, esnatu da neska eta ikusi duen lehen pertsona Yamila izan da:

—Kaixo, nor zara? Eta zergatik lagundu didazu? —galdetu dio minari eutsi ezinik.

—Ni Yamila naiz. Gazara etorri nintzen laguntzera eta bonbardaketa batean oroimena galdu nuen.

—Ba, oroimena galtzeko, gogoratzen zara zein den zure izena eta zergatik zauden hemen!

—Nire benetako izena ez dut gogoratzen, baina lagundu zizun beste neska batek, Amirak, jarri zidan izena, bere ama zenaren omenez. Hemen zergatik nagoen gogoratzen dudan lehenengo aldia da.

—Zerbaitetan lagundu dizut, orduan! —esan dio begia kliskatuz.

—Eta zu nor zara? —galdetu dio txanda hartuz.

—Ni Fahira naiz, 19 urte ditut eta izugarri gustatzen zait igeri egitea. Nire ametsa joko olinpikoetara joatea da, baina ez edozein herrialde ordezkatzuz: Palestina ordezkatu nahiko nuke.

—Amets ederra, benetan. Pozten naiz zu ezagutzeaz!

—Baita ni ere.

Yamila eta Fahira hitz egiten ari diren bitartean, Bushra eta Amira etxera joan dira, beste ohe bat prestatzera. Gerora, ospitalera itzuli eta Fahira eta Yamilarengana gerturatu dira:

—Kaixo, Bushra eta Amira. Hau Fahira duzue.

—Kaixo! —esan dute Bushrak eta Amirak, aldi berean, gogotsu.

—Kaixo!

—Badakit ez dela galderarik samurrena, Fahira; baina, baduzu aterperik edo gaua igarotzeko tokirik?

—Ez. Ez dut familiakorik bizirik —erantzun du aholpeka.

—Lasai, zatoz nirera. Bertan egingo dugu lo laurok. Ez zaitugu kalean utziko —erantzun dio Bushrak ziurtasun osoz.

—Bushra, gainera, ospitalean laguntza beharko duzue, ezta? —galdetu du Fahirak.

—Bai, oso ondo letorkiguke beste pertsona bat; baina, noski, sendatzen zarenean —erantzun dio Bushrak irribarre eginez.

—Ados, baina ni ez naiz medikua —erantsi du Fahirak, badaezpada ere.

—Lasai, Fahira, sukaldariak eta garbitzaileak ere behar ditugu. Lanerako prest egotea nahikoa da!

—Ados, mila esker hainbeste laguntzeagatik.

—Gu beti prest! —erantzun dute Bushrak, Yamilak eta Amirak, ia aldi berean.

Yamilak eta Bushrak bakarrik utzi dituzte bi gazteak; izan ere, beste abisu bat egon da. Inoiz baino lan gehiago eduki dute. Jende asko egoera kritikoan iritsi da. Garrasiak jasanezinak dira.

Hurrengo goizean, lau neskak Bushraren etxera joan dira lo apur bat egin asmoz. Yamilak, tamalez, ezin du lorik egin eta pentsatzen hasi da. Zein da bere familia? Eta zergatik ez dago beraiekin? Eta badakite bizirik dagoela? Badakite non dagoen?

Mugikorra begiratu du. Pasahitza ez du gogoratzen, baina ahalegina egin eta, mugikorra aurpegi parean jarrita, Whatsappera sartu da. Bere gurasoei bidalitako azken mezua honako hau izan zen: “Utzi bakean, ederki erakutsi didazue ez nauzuela maite!”. Eta gurasoek honako hau erantzun zioten: “Zure erabakia Israelen aurkakoa izan da. Zure etxearen kontrakoa. Dagoeneko ez zara gure familiakoa”.

Mezu horiek duela hilabetekoak dira. Irakurri ahala, Yamila negarrez hasi da eta bere buruari galdera gehiago egin dizkio: nik beraiek ahazteak beraiek ni ahaztea ekarriko du? Nora joango naiz? Hemen geldituko naiz? Nire benetako etxea zein da? Eta nire familia? Nor naiz? Zer da israeldar izatea Palestina zaurituan?

Beste bonba bat lehertu da. Eztandak, ordea, ez du galderen erantzunik xuxurlatu.

# **Gure zizelkadaz egindako abestia**

Mikel Salazar Cifuentes  
Mungia BHI  
Mungia



*7:00. Alarma. Jaiki beharra. Ohetik altxatu eta komunera. Egunero berdina, baina orain begipe handiekin. Dutxa hartu eta jantzi. Egun guztietako errutina, baina orain ezer egiteko gogorik gabe. Dena gehiago kostatzen zait. Gosaldu eta etxetik alde egiteko beharra dut. Jateko gogoia ere galdu egin dut.*

*Kaletik noa, institutura, eta herriko leku guztiak ezagutzen ditut, baina orain ezin ditut berdin ikusi. Esaten dute lekuek bertan egondako pertsonaren marka dutela, eta agian egia da. Agian horregatik dirudi orain leku guztiak hain hutsik daudela, kolorerik gabe, soinurik gabe, eta ia bizirik gabe. Kaletik jarraitzen dut AirPods-etan abesti hori daramadala, "Fiebre". Institutura heldu naiz, suposatzen da hemen nire bizitzako momentu hoberenak pasatu behar ditudala, baina hemen egotea gehiegi kostatzen zait orain. Denak begira ditut, betiko moduan, baina lehen miresmenez begiratzeko zidaten, eta orain ez dakit ondo zer deritzoten. Haien begiek zerbait esan nahi didate. Badirudi tristura adierazi nahi dutela, edo agian barkamena eskatu nahi didate. Hipokritak. Sakonean nire klasea ikus dezaket, hainbeste eman didana eta, aldi berean, hainbeste kendu didana. Azken finean, denak berdin jarraitzen du, baina ezer ez da berdina izango.*

*Korridoretik noan bitartean, guztia berriro burura etortzen zait, baita ahaztua nuena ere.*

Ikasturte hartako klasea berria zen, eta jende askorekin ez nuen inoiz hitz egin. Gehienekin ondo konpontzen nintzenez, lagun asko nituen, baina batzuekin ez nuen aurretik sekula hitz egin. Nire taldea nahiko popularra zen; txarto dago nik esatea, baina institutuko ezagunenak ginen. Guztiek gurekin atera nahi zuten, eta hori gustatu egiten zitzaidan. Nolanahi ere, guztiakin atsegina izaten saiatzen nintzen, eta ez nuen jendea epaitzen ezagutu gabe.

Klasera sartu nintzen Aroa eta Ekaitzekin, bi lagun on. Haiekin egoten nintzen ia beti. Klasean aulkiak binaka jarrita zeudenez, Ekaitz eta biok batera jarri ginen eta Aroa beste lagun batekin jarri zen. Tutoreak klasera sartu eta urteroko txapa bota zigun. Irakasgaiei, ikasleei, araei eta beste gauza askori buruz hitz egin zigun. Egia esan, ez nuen gehiegirik entzun, denbora guztian Ekaitzekin hitz egiten egon bainintzen.

Horrek ez zion irakasleari graziarik egin, eta hurrengo egunean banandu egin gintuen. Beste mutil batekin jarri ninduen; Danel deitzen zen. Ez nekien asko berari buruz, bakarrik ez zuela lagun askorik eta ez zuela askorik hitz egiten. Ez nuen berarekin inoiz hitz egin, horregatik pentsatu nuen lagun berri bat egiteko aukera ona izan zitekeela. Beraz, bere ondoan eseri eta elkarrizketa bat hasten saiatu nintzen:

—Kaixo.

Begirada arraro bat baino ez nuen lortu. Baina hiruhileko oso batean egon beharko genuen batera, horregatik bere

laguna egitea zen aukera hoberena. Nahiko itxia zen, baina ni pertsonekin oso trebea nintzen eta elkarrizketa laburrekin hasi nintzen. Eta laster bere kolore gustukoena berdea zela, ezkertia zela eta bere lagun mina Maia zela jakin nuen. Ingeleseko klasean irakasleak zera esan zuen:

—Errezeta baten bideo bat egin beharko duzue, bikoteka —momentu horretan Aroari begiratu nion, berarekin jartzeko, baina segituan irakasleak jarraitu zuen —ondoan daukazuen pertsonarekin—. Orduan, albora begiratu eta Danel ikusi nuen, ez zirudien oso gogotsu, baina ez geneukan beste aukerarik; hortaz, ostegunean geratu ginen lana egiteko.

Nire etxera etorri zen, eta gailetak egitea erabaki genuen. Nirekin egon nahi ez zuela zirudien, eta ulertzen nuen, ez baininduen asko ezagutzen. Hori dela eta, arratsalde horretan gehiago ezagutu nahi nuela erabaki nuen. Askotan ez zen erraza berarekin elkarrizketa bat hastea, baina jatorra zela zirudien. Hala ere, gehiago ezagutu behar nuen benetan nolakoa zen jakiteko, eta gaileten oreka egiten genuen bitartean hainbat gauza kontatu zizkidan. Benetan oso pertsona interesgarria zen eta zergatik ez nuen ezagutzen galdetzen nion nire buruari.

—Zergatik ez dut zurekin inoiz hitz egin? —galdetu nion.

—Egia esan, ez nau jende askok ezagutzen —aitortu zidan, bere betiko seriotasunarekin—. Ez dut lagun askorik. Lagun min bat baino ez.

Benetan arraroa iruditu zitzaidan, nik lagun asko baintuen eta beti bainean norbait geratzeko, baina konturatu nintzen pertsona askorentzat hori ez zela ohikoena. Bere familiari buruz ere hitz egin genuen: bere gurasoekin

bizi zela kontatu zidan, baina haiekin arazo asko zituela, eta askotan haiekin eztabaidatzen zuela. Horretaz hitz egiten zuen bitartean bere begiak guztiz aldatu ziren. Orain ez ziren desatseginak, beste zeozer adierazten zuten, tristura agian. Arraroa egiten zitzaidan guzti hori niri kontatzea, baina esan zidan Maia izan ezik, ez zuela beste inor bere gauzak kontatzeko.

Orduan, oreka irabiatzeko momentua heldu zen; beraz, irabiatzailea pasatu nion eta pizteko eskatu nion. Botoiari eman, eta bira azkarrak ematen hasi zen. Segundu gutxi batzuetan sukalde guztiak orez estalita bukatu zuen, Danel eta biok barne. Momentu horretan oihuka hasi zen:

—Aimar! Joder. Zergatik ez didazu esan potentzia maximoan zegoela?!

Baina barrezka hasi nintzen eta berdina egin zuen. Hor ikusi nuen bere irribarrea lehenengoz. Ez nintzen okertu, bere laguna egitea oso ideia ona zen. Hilabeteak ziren ez nuela hain ondo pasatzen.

Hurrengo egunean, gauean lotan nengoela, mugikorra dardara egiten hasi zen. Dei bat. Zenbaki ezezagun bat.

—Bai?

—Aimar? —ahotsak dardar egiten zion, negarrez zegoela zirudien.

—Danel? Ondo zaude?

—Nire gurasoek iskanbila handia izan dute. Zure etxera joan naiteke?

—Noski. Etorri eta kontatuko didazu dena.

Nire gurasoei ez zitzaien inportako, eta nire laguntza behar zuen. Etxera heldu eta dena kontatu zidan. Maiari ere deitu zion, baina ez zion erantzun; beraz, ni nintzen geratzen zitzaion aukera bakarra. Lo egiteko arropa utzi nion eta jertsea kendu zuen. Orduan Ikusi nuen bere gorputza, bere besoak. Orbain haiek. Berarekin hitz egin behar nuen, baina agian ez zen momentu egokia. Lo egin genuen eta aste bat pasatu zen normal, betiko errutinan.

Aste horretan, jaiak ziren, larunbatean. Eta ez zen beste ezertaz hitz egiten. Daneli gaia atera nion, baina ez zela joango esan zidan. Ez zuela norekin joan adierazi zidan; beraz, nirekin joateko proposatu nion. Ez zegoen oso konbentzituta, baina azkenean baietz esan zuen.

Eguna heldu eta festarako janzten ari nintzela, “berandu noa” pentsatu nuen. Horregatik giltzak hartu eta kalera atera nintzen. Portalera jaitsi eta han zegoen, bere ile kizkur horiarekin, ondo orraztuta, eta bere begi berdeekin niri begira-begira. Kaletik gindoazela, oso pozik nengoen, baina berak kezkatuta zegoela zirudien.

—Zer duzu? —galdetu nion—. Zergatik zaude kezkatuta?

—Ez nago kezkatuta —esan zidan, baina begirada serio bat bota nion—. Bale, agian bai. Baina zuretzat erreza da, guztien laguna zara eta ez dute zutaz txarto hitz egiten edota gauzak asmatzen.

Momentu horretan konturatu nintzen zenbat inporta zitzaion besteek esaten zutena. Baina horrek ez zigun gaua izorratu. Gaua izan arren, haize beroa musikarekin nahasten

zen eta iluntasunari kolorea ematen zion. Dj-ak denetarik jartzen zuen arren, abesti guztiak nekizkien. Abesti bat bestearen atzetik jarri zituen.

Bat-batean, Dj-ak beste kantutik bat jarri zuen: intro hori, nota horiek, abesti hori. Abesti guztiak nekizkien, baina hau bereziki altu abestuko nuen. Abesti hau. Orduan Daneli begiratu nion. Han zegoen, niri begira, abestia oihukatzen zuen bitartean, “Fiebre”. Orduan, lehenago ikusi ez nituen gauzak ikusi nituen: irri egiterakoan jartzen zitzaizkion begiak, hitz egiterakoan besoekin egiten zuena, masailak uzkuertzeko era, eta musika entzutean aldakekin egiten zuen mugimendua.

Jende asko zegoen, baina ez zirudien. Hobeto esanda, gu biok bakarrik geundela ematen zuen. Gero eta hurbilago, gero eta altuago. Musikak zegoen argi apurrarekin eta haize beroarekin bat egin zuen. Eta segundu luze batzuez, Danel eta biok ere bai.

“Fiebre” entzuten nengoela ulertu nuen: begi berde horiek betirako niri begiratzea nahi nuen, eta ahal nuen guztia egingo nuen haien distira mantentzeko.

Handik aurrera gero eta gehiago geratzen ginen, gero eta gehiago partekatzen genuen, eta gero eta gehiago ikusten nuen Danel begiratzean. Gauza zoragarri asko, baina hain zoragarriak ez ziren batzuk ere bai. Ordura arte ez nuen ikusi, baina izugarri kostatzen zitzaion lagunak egitea, jende askok berataz barre egiten baitzuen. Askok kostatzen zitzaion jatea, txikitatik sentitu baitzuen argal ez bazegoen inork ez zuela maiteko. Baina ni bera zen modukoa nuen gustoko, eta horregatik askotan hitz egin genuen sentitzen zuenari buruz. Berarekin egon nahi nuen beti, momentu on

eta txarretan, ez baitzen bidezkoa batera barre egitea eta gero berak bakarrik negar egitea.

Egun batean, betiko moduan deitu egin nion. Eta berriro entzun nuen, negarrez zegoen, betikoagatik. Ezin nuen ulertu, ezin nintzen bere buruan sartu, baina behar ninduen eta berarentzat egon behar nuen. Berarekin berba egiten nuen bitartean bururatu zitzaidan: motxila bat prestatu, patata pakete bat eta ur botila bi hartu eta bere etxerantz joan nintzen. Berarekin elkartu eta autobusa hartu genuen. Mungiatik Bilbora 15 minututan heldu ginen. Han metroa hartu eta gaiari buruz hitz egin genuen, metrotik paisaia ikusten genuen bitartean. Gero eta amatatuagoa ikusten nuen, eta txarrena zen ez nekiela nola lagundu. Metroan ordubete eman ondoren, Sopelara heldu ginen. Labarra igo eta belarretan jesarri ginen. Nire bizitzako ilunabar politena izan zen. Ez dut gogoratzen benetan polita izan zen, edo berarekin nengoelako ikusi nuen polit. Han esan zidan maite ninduela. Eta han adostu genuen bata bestearentzat egongo ginela, eta txarto bageunden hara joango ginela. Gure lekua bihurtu zen.

Urtebete pasatu da. Ezer ez da berdina. Dena aldatu da. Metroan nabil, abestia entzuten, abesti hori, gure abestia, “Fiebre”. Guztia oroitzen: gailetak, batera lo egin genuen gaua, abesti hori gure abesti bihurtu zen gaua eta, noski, gure leku kuttunera joan ginen arrats guztiak. Orain bakarrik nago, nire pentsamenduekin. Sopelara heldu, labarra igo. Hona etortzen naiz bakarrik sentitzen naizenean, hau gure leku berezia zen eta. Pentsatzen dut: “Hemen hasi zen gurea, eta hemen bukatu zenuen guztiarekin”.

# **Artasoroa**

Malen Urkizu Arrozpide  
Hernani BHI  
Hernani



1795. urteko Euskal Herriko herri batean, Gabirian, bazen emakume bat bertako baserri batean bizi zena: Iñaxi. Baserria berea zen; anaia hil zitzaionez, bera geratu zen baserriaren oinordeko. Bertan senarrarekin eta bi seme-alaba bikirekin bizi zen.

Seme-alabek hamar urte zituzten eta Maria eta Joanes izena zuten. Maria bakartia, ixila, baina oso azkarra zen. Bere anaia berriz ausarta, abenturazalea eta jakin-nahi handikoa. Antoniok, Iñaxiren senarrak, merkataria zenez, ez zuen denbora askorik pasatzen etxean: egunero goizeko seietan ateratzen zen etxetik eta gaueko ordu txikietan bueltatzen zen. Iñaxi, berriz, garai hartako emakume askoren moduan, baserriko lanez eta umeak hazteaz arduratzen zen. Txikitan eskolara joan zenez, idazten eta irakurtzen erraz moldatzen zen Iñaxi. Betidanik gustatu izan zitzaion ikastea, gauza berriak deskubritzea eta jendeari irakastea; hori dela eta, bere seme-alabei txikitatik berak zekien guztia irakasten saiatzen zen. Gauero-gauero baserriak gordetako kondairak kontatzen zizkien. Koaderno handi eta lodi batean bilduta zituen Gabiria herriko kondaira guztiak. Koaderno hori Mariak edo Joanesek jasoko zuten handitzen zirenean.

Gau ilun eta euritsu batean Iñaxi kondaira bat kontatzen hasi zen. Logelako atea itxita zegoen baina hala ere entzun zitekeen nola jotzen zuen haizeak horma zaharkituen kontra. Iñaxi horrela hasi zen: “Bazen behin Aretxederra baserrian 16 urteko gazte bat altxor bat aurkitu zuena, baina gorde beharrean dena galdu zuena bere lagunekin musean apustuak eginez. Urte batzuen ostean, bere familia lanik gabe eta diru gutxiarekin geratu zen. Orduan baserria saldu behar izan zuten eta kale gorrian geratu ziren”. Ondoren azaldu zien bazitekeela gazteak aurkitutako altxorra dirua ez izatea, baizik eta balio handiko zerbait, akaso. Mariak ez zion jaramon handirik egin amak esandakoari; Joanesek, aldiz, adi-adi entzun zion.

—Ama, kondaira horrek dioena benetan gertatu al zen?  
—galdetu zion Joanesek amari erantzuna zein izango zen jakiteko amorratzen.

—Baliteke seme, baina ez pentsatu kondaira guztiek egia esaten dutenik. Batzuk benetan gertatutakoak izango dira, beste batzuk asmatutakoak, eta azkenik kondaira batzuek zerbait aldatuta izan dezakete—erantzun zion Iñaxik ez arduratzeko keinua eginez.

Hurrengo goizean, egunero bezala behiak jetzi ondoren, Maria eta Joanes Tomaxen baserrira joan ziren Tomaxen aitonari esnea saltzeko asmoz. Joanesen eta Mariaren txikitako laguna zen Tomax. Beti hartu izan zuten anaia izango balitz bezala, eta alderantziz. Hirurak batera ibiltzen ziren beti, elkarrekin jolasean. Tomax mutil irekia eta bihurri xamarra zen. Gazteago zela ardien gainean jartzen zen, ardia zaldia izango balitz bezala.

Udaberriko lore usain goxoak usaintzen zituzten bitartean, aurreko gauean amak kontatutako kondaira kontatu zuen Joanesek. Esan zuen ez zuela guztiz sinesten istorio osoa, zerbait ezkututzen zuela iruditzen zitzaiola. Mariari eta Tomaxi ere halaxe iruditu zitzaien.

—Eta herrian baserriz baserri joaten bagara aiton- amonei galdetuz istorioa ezagutzen duten? —proposatu zuen Tomaxek Mariari begiraturaz.

—Bai, eta horrela agian informazio gehiago lor dezakegu—gehitu zuen Mariak.

Arratsaldean Tomaxek baserrira gonbidatu zituen anai- arrebak, bazkaldu ostean berehala ikerketarekin hasteko.

Lehen geldialdia Bidaurreta baserrian izan zen. Han bi heldu bizi ziren. Kondaira kontatzeko asmoz joan ziren umeak baserrira eta heldu haiek beso zabalik hartu zituzten eta sukaldera gonbidatu zituzten meriendatzera. Joanesek kondaira kontatu ondoren, ez zutela ezagutzen esan zieten biek.

Bigarren geldialdia Iturriaga baserrian izan zen. Bertan adineko senar-emazteak bizi ziren. Lehen txakur bat ere izan zuten, Kaxkur izenekoa. Zoritxarrez, aurreko urtean traktore batek istripuz txakurra zapaldu eta hil egin zen. Gainera, emazteak gaixotasun bat zuen eta gauza askorekin ez zen gogoratzen. Horren ondorioz, batzuetan frustratu egiten zen bere buruarekin. Eskerrak bere senarra ondoan zuela! Tomaxen aitak jakinarazi zien hori guztia Iturriaga baserrira joaterako; hala ere, bixitan joatea erabaki zuen hirukoteak. Bertan zeudela, emakumeak gailetak eta tea prestatu zituen hirurentzat, nahiz eta lehenago meriendatuta zeuden.

Lagunek asko eskertu zioten emandakoa eta kondaira kontatzen hasi ziren. Bat-batean, emakumea negarrez hasi zen, eta gizonak etxetik alde egiteko esan zien oihuka. Umeez korrika alde egin zuten eta zuhaitzez inguratutako baso batean amaitu zuten.

Iluntasuna eta hodeiak hurbiltzen hasi ziren eta euria hasiko zuela ematen zuen. Orduan etxera bueltatzea erabaki zuten. Arratsaldean gertatutakoari bueltak ematen hasi zen Maria gauean. Hurrengo goizean, igandea zenez, mezetara joan ondoren, bi mutilei ezer esan gabe Iturriaga baserrira berriz joatea erabaki zuen barkamena eskatzeko asmoarekin, etxeko oiloek egin berri zituzten arrautza kutxa batekin. Iturriaga senar-emazteek ere barkamena eskatu eta esplikazio zentzudun bat eman nahi ziotela esan zioten.

—Barkatu atzo oihukatzeagatik eta etxetik modu horretan bidaltzeagatik. Nire emaztea ez dago momentu onenean eta horrela erreakzionatu genuen. Asko sentitzen dugu. Nahi baduzu nik dakidan moduan kontatuko dizut kondaira—esan zuen gizonak Mariari eskua sorbaldan jarrita.

Mariak buruarekin baiezko keinua egin zion.

—Duela urte asko, Aretxederra baserrian, 16 urteko gazte batek altxor bat aurkitu zuen. Ez dakit bertan zer zegoen baina nire logelan gordeta daukat duela 20 urteko mapa bat. Nahi baduzu erakutsiko dizut.

Logelan zeudela, gizonak ohearen azpian zegoen kaxa txuri eta zahar bat hartu zuen; ondo ezkutatuta zuen, manta edo bestelako gauzekin bilduta. Kutxan gizonak aipatutako mapa zegoen. Aretxederra baserriaren eta Maria eta Joanes

bizi ziren baserriaren arteko distantzia kolore gorritz markatuta zegoen eta erdibidean “X” bat marraztuta. Horrela jarraitu zuten hizketan:

—Utziko zenidake mapa etxera eramaten, mesedez?  
—erregutu zion Mariak gizonari.

—Zer uste duzu ume, mapa hau etxera hain erraz eraman dezakezula? —erantzun zion harro gizonak.

—Zin egiten dizut bihar lehenengo ordurako ekarriko dizudala, ezer hautsi gabe—erantzun zion Mariak txakurkume abandonatu batek jartzen duen aurpegi berbera jarritz. Nahiz eta neska ixila izan, askotan nahi zuena lortzen zuen.

—Ondo da. Bihar Gabiriako plazan elkartuko gara, goizeko 8:00etan. Tori kaxa ere, baliagarri izango zaizu. Baina ireki ezazu etxean, zu bakarrik zaudela—begiratu zion umeari irribarre bat ahotik ateratzeko moduan.

—Ados, bihar ikusiko dugu elkar. Zaindu ondo zure emaztea. Bihar arte. Elkar besarkatu eta Maria etxera bueltatu zen.

Arratsaldean Maria frontoian geratua zen bere anaiarekin eta Tomaxekin. Bi mutilak konturatu ziren Mariak kaxa bat eta paper zahar bat zekartzala eskuetan. Gertatutakoa azaldu zien bi mutilei eta kaxa ireki zuten. Bertan giltza bat eta amodiozko esaldi bat zeuden: “ni berriz ikusi nahi banauzu, lehenik altxorra bilatu beharko duzu”. Hiru neska-mutilak berehala hasi ziren mapa begiratzen eta harrিতuta geratu ziren ikusitakoarekin: bi baserri borobilduta zeuden eta bien

artean “x” hizkiz toki bat zegoen markatuta. Orduan erabaki zuten “x”-z markatutako lekura joatea.

Bertan artasoro bat aurkitu zuten, baina ez zuten ezer arrarorik somatu. Pentsakor geratu ziren hirurak eta etxera bueltatzea erabaki zuten. Bidean, mendiko aldapak igotzean, eguzkiak artasoroa geroz eta indar handiagoz argitzen zuela ikusi zuten, eta puntu batean itzala zegoela. Oso deigarria iruditu zitzaien itzala, ez baitzegoen ez zuhaitzik ez lainorik itzal hori sortuko zuenik. Orduan bi anai-arreben baserrira joan ziren aitzur batzuen bila. Azkar ibili behar zuten, eguzkia sartu aurretik.

Iritsi zirenean ez zuten itzalik ikusi, baina bai eguzkia. Orduan Maria korrika hasi zen maldara ahalik eta azkarren iristeko. Han zegoela, itzala ikusi zuen. Orduan bi mutilei oihuka hasi zitzaien esanez non egin behar zuten zuloa. Nekagarria egin zitzaien zuloa egitea baina azkenean lortu zuten. Bertan beste kutxa bat aurkitu zuten, kate batez lotuta. Joanes gogoratu zen Mariak ekarritako kaxan aurkitutako giltzarekin eta pentsatu zuen baliagarria izan zitekeela bigarren kutxa hura irekitzeko. Eta halaxe izan zen. Kutxa ireki zutenean, beste mezu bat aurkitu zuten: “gaueko 12tako azkeneko kanpaikada ematean ilargiak islatzen duen argiak esango du non nagoen”.

Joanesek eta Mariak etxera gonbidatu zuten Tomax, afaltzera eta lotara. Gaueko hamaikak aldera plazara joatea erabaki zuten; han itxoin zuten hamabiak jo arte. Kanpaikadak hastean, eskutik helduta zeuden zer gertatuko zen esperoan. Hamabigarren kanpaikada jo ondoren, aspaldi erabiltzen ez zen harrizko ur putzua argitu zuen ilargiak plazan. Bertara joan ziren eta putzuak zuen sokatik tira egin

zuten indar handiz. Azkenean lortu zuten zerbait ateratzea: urrezko bitxiz betetako kubo bat zen!

Ondoren, bakoitza bere etxera joan zen eta gertatutako guztia kontatu zieten gurasoei. Oso harro zeuden gurasoak beraien seme-alabez, eta denen artean erabaki zuten herritar guztiak biltzea hurrengo arratsaldean Gabiriako frontoian.

Hurrengo eguneko goizeko zortziak azkar jo zuten eta hirurak plazara joan ziren. Iturriaga baserriko gizona banku batean zegoen Mariaren zain, baina harrituta geratu zen hirurak azaldu zirenean:

—Zer egiten duzue zuek hirurok hemen? Maria, ez esan zure laguntxoei kontatu diezula guztia —esan zuen gizonak haserre. Mariak buruarekin baietz esan zion hitz egiten jarraitzen zuen bitartean.

—Baina sorpresatxo batekin gatozkizu—erantzun zion bitxi batzuk eskainiz. Gizona negarrez hasi zen eskerrak emanez, eta bitxi horiekin lortutako dirua ez zuela alferrik gastatuko zin egin zien.

Arratsaldean herritar guztiak bildu ziren frontoian eta umeez hartu zuten hitza. Gertatutakoa kontatu eta altxorra guztien artean banatzea erabaki zutela azaldu zuten. Han zeuden guztiak pozik eta saltoka hasi ziren, eskerrak emanez. Handik aurrera ez zuten goserik berriz pasatu Gabiriako herritarrek.

**URRUZUNOTARRAK**  
**1986-2024**



| ABIZENAK                     | IZENA   | IZENBURUA                                   | URTEA | ARLOA  |
|------------------------------|---------|---|-------|--------|
| Abaunza<br>Urionabarrenetxea | Sara    | Ametsen bila                                | 2013  | Prosa  |
| Aboitiz Correa               | Xabier  | Ikaro                                       | 2010  | Prosa  |
| Aginaga Etxebarria           | Leire   | Anbotoko dama                               | 2017  | Prosa  |
| Agirre Aranguren             | Iraitz  | Ohore Galdua                                | 1998  | Prosa  |
| Agirre Aranguren             | Iraitz  | Buruva tente mutilak!                       | 1999  | Prosa  |
| Agirre Aranguren             | Iraitz  | Maite duen orok...                          | 2000  | Prosa  |
| Agirre Aranguren             | Iraitz  | Gorrotorearen mendekua                      | 2000  | Prosa  |
| Agirre Aranguren             | Iraitz  | La dolce vendetta                           | 2001  | Prosa  |
| Agirre Arriolabengoa         | Manex   | Aitona                                      | 1997  | Prosa  |
| Agirre Elgarresta            | Martin  | Idazmakina bakarti baten azken<br>narrazioa | 1986  | Prosa  |
| Agirre Epelde                | Maddi   | Sugea eta zu                                | 2020  | Prosa  |
| Agirre Epelde                | Maddi   | Portzelanazko panpina                       | 2021  | Poesia |
| Agirre Epelde                | Maddi   | Errefusilatua                               | 2022  | Poesia |
| Agirre Epelde                | Maddi   | Otsoen Larrea                               | 2022  | Prosa  |
| Agirre Garmendia             | Alaine  | Pausoak                                     | 2006  | Poesia |
| Agirre Garmendia             | Alaine  | Ikararen korridorean gaindi                 | 2007  | Prosa  |
| Agirre Garmendia             | Alaine  | Agian                                       | 2007  | Prosa  |
| Agirre Garmendia             | Alaine  | Insomnio gauetan idatzitako<br>zirriborrea  | 2007  | Poesia |
| Agirre Garmendia             | Alaine  | Hiru segundo eta erdi                       | 2007  | Poesia |
| Agirre Garmendia             | Alaine  | Azkeneko bidaian                            | 2008  | Prosa  |
| Agirre Garmendia             | Alaine  | Denbora zer den                             | 2008  | Poesia |
| Agirre Gonzalez              | Amaia   | Zenbakaitzaren mugagabetasuna               | 2006  | Prosa  |
| Agirre Gonzalez              | Amaia   | Gatibu                                      | 2007  | Prosa  |
| Agirre Gonzalez              | Amaia   | Zeruertzaren bila                           | 2008  | Prosa  |
| Agirre Gonzalez              | Amaia   | Tximeleten jolasa                           | 2008  | Poesia |
| Agirre Larrea                | Antziñe | Irrati baten gora-beherak                   | 1986  | Prosa  |
| Agirre Lazkanoiturburu       | Mikel   | Zergatik?                                   | 1989  | Poesia |
| Agirre Madariaga             | Uxue    | Oroitzapenen ziega                          | 2010  | Prosa  |
| Agirre Martija               | Elena   | Instagram                                   | 2020  | Poesia |

| ABIZENAK                  | IZENA    | IZENBURUA                            | URTEA | ARLOA  |
|---------------------------|----------|--------------------------------------|-------|--------|
| Agirre Mosquera           | Uxue     | Espero ez nuena                      | 2010  | Poesia |
| Agirre Zapirain           | Ugaitz   | Malkoz josiriko bandera              | 2008  | Poesia |
| Agirre Zapirain           | Ugaitz   | Erokerian                            | 2009  | Poesia |
| Agirregomezkorta Iza      | Miren    | Mare Mortum                          | 2018  | Prosa  |
| Aiestaran Iparragirre     | June     | Mendekuen fabrika                    | 2021  | Prosa  |
| Aiestaran Iparragirre     | June     | Agur, aurrera noa                    | 2022  | Prosa  |
| Aiestaran Iparragirre     | June     | Kale beltzeko itzala                 | 2023  | Prosa  |
| Aiestaran Iparragirre     | June     | Belarritako bat mesanotxean          | 2024  | Poesia |
| Aiestaran Iparragirre     | June     | Besarka zaitzadan                    | 2024  | Prosa  |
| Aiestaran Iparragirre     | Maddi    | Bitxilore, zu traidore               | 2016  | Poesia |
| Aiestaran Iparragirre     | Maddi    | Aske                                 | 2017  | Poesia |
| Aiestaran Iparragirre     | Maddi    | Irantzu                              | 2018  | Poesia |
| Aiestaran Iparragirre     | Maddi    | Miraz                                | 2018  | Poesia |
| Aiestaran Iparragirre     | Maddi    | Oroitzapenen kutxa                   | 2019  | Poesia |
| Aiestaran Iparragirre     | Naia     | Nire poema                           | 2020  | Poesia |
| Aizpiolea Martikorena     | Maialen  | Azken orbela                         | 1997  | Prosa  |
| Aizpuru Bilbao            | Miren    | Larunbatak                           | 2016  | Prosa  |
| Aizpuru Seguroa           | Kristina | Isiltasunaren oihartzuna             | 1999  | Prosa  |
| Akizu Bidegain            | Maialen  | Blas                                 | 2011  | Prosa  |
| Akizu Bidegain            | Maialen  | Ipuin batean bezala                  | 2011  | Poesia |
| Akizu Bidegain            | Maialen  | Hozkada                              | 2012  | Poesia |
| Akizu Bidegain            | Maialen  | Espaloian noraezean                  | 2012  | Poesia |
| Akizu Bidegain            | Maialen  | Zulo beltza                          | 2013  | Poesia |
| Akizu Bidegain            | Maialen  | Teloia jaisten denean                | 2013  | Poesia |
| Alberdi Estibaritz        | Antton   | Ez dut ezer ulertzen                 | 2002  | Prosa  |
| Albistur Gurrutxaga       | Mara     | Yamila                               | 2024  | Prosa  |
| Albizbeaskoetxea Sánchez  | Beñat    | Zein urrun dagoen Europa             | 2018  | Prosa  |
| Aldabaldetreku Etxeberria | Gotzon   | Itzultzerik gabeko bidaia            | 1993  | Prosa  |
| Alduntzin Egizurain       | Unai     | Morte nel carnevale                  | 2008  | Prosa  |
| Alduntzin Egizurain       | Unai     | Izango al du udaberririk negu honek? | 2009  | Prosa  |
| Alonso Allue              | Leire    | Azken dantza hau                     | 2011  | Prosa  |
| Alonso Allue              | Leire    | Autopsia                             | 2012  | Poesia |

| ABIZENAK              | IZENA    | IZENBURUA   | URTEA | ARLOA  |
|-----------------------|----------|---|-------|--------|
| Alonso Allue          | Leire    | Alzheimerraren doinua                                 | 2012  | Prosa  |
| Alonso Allue          | Leire    | Jainkoaren izenean                                    | 2011  | Poesia |
| Altuna Angiozar       | Nekane   | Niregandik urrun                                      | 1987  | Poesia |
| Altuna Angiozar       | Nekane   | Baldin argia ikustera iristen banaiz                  | 1988  | Poesia |
| Altuna Jauregi        | Karmele  | Praisku mutil zaharra                                 | 1986  | Poesia |
| Altuna Jauregi        | Nuria    | Bizitza horrela delako                                | 1987  | Prosa  |
| Alvarez Gerriko       | Ion      | Betidanik, betirako                                   | 1990  | Poesia |
| Alzate Azpiroz        | Jon      | Zozketagai xelebrea                                   | 1992  | Prosa  |
| Alzugarai Sacristán   | Aitziber | Zergatik?   | 1988  | Poesia |
| Amondarain Ipiña      | Gaizka   | Margotu ninduten                                      | 1999  | Poesia |
| Amondarain Ipiña      | Gaizka   | Urtaroen klandestinitatean, zu                        | 2000  | Poesia |
| Amondarain Ipiña      | Nagore   | Gogoratzen haiz                                       | 1995  | Poesia |
| Amondarain Ipiña      | Nagore   | Malekoitik so   | 1997  | Poesia |
| Amorrortu Barrenetxea | Peru     | Beragatik   | 2015  | Prosa  |
| Amorrortu Barrenetxea | Peru     | Post mortem   | 2016  | Prosa  |
| Amorrortu Barrenetxea | Peru     | Lubiankan   | 2017  | Prosa  |
| Amozarrain Mendizabal | Idurre   | Pentsamenduak   | 1995  | Poesia |
| Amutxastegi Maguregi  | Amets    | Denbora makina  | 2019  | Poesia |
| Amutxastegi Maguregi  | Amets    | Autoernetzea  | 2020  | Poesia |
| Ansa Arbelaitz        | Garazi   | Iratzargailuaren orratz herdoilduek martxan dihardute | 2005  | Prosa  |
| Ansa Arbelaitz        | Garazi   | Oraina iraganean ahazturik                            | 2005  | Poesia |
| Anzizar Lizarraga     | Nerea    | Blues bat gauaren iluntasunean                        | 1997  | Prosa  |
| Apaolaza Cardona      | Mattin   | Azken geltokia  | 2016  | Poesia |
| Apaolaza Goena        | Amaia    | Amaigabeko itukin latzak                              | 1992  | Prosa  |
| Apaolaza Goena        | Amaia    | Zaharra berri... orain eta beti                       | 1993  | Prosa  |
| Apaolaza Larrea       | Uxue     | Azken bost minutuak                                   | 1996  | Prosa  |
| Arana Cardenal        | Oihana   | Volfgang  | 2019  | Prosa  |
| Aranburu Aseginolaza  | Iñigo    | Sahatsaren azken negarra                              | 1987  | Prosa  |
| Aranburu Aseginolaza  | Maria    | Bi hitz nire pentsamenduen maizterrari                | 1990  | Poesia |
| Aranburu Gorrotxategi | Laiene   | Zuri esker  | 2017  | Poesia |

| ABIZENAK               | IZENA     | IZENBURUA   | URTEA | ARLOA  |
|------------------------|-----------|---|-------|--------|
| Aranburu Guridi        | Mattin    | Gau luzea   | 2012  | Prosa  |
